

JAKIN

TXEMA RAMIREZ
KOMUNIKAZIOAREN NORABIDE BERRIAK
DIRTADURAREN OSTEAN (1975-95)

JOSE MARIA CAMINOS
IREKITZE ETA INTEAK: BURUALDE BERRIAK

IÑAKI URIA
EUSKAL PRENTSA SÖRTZEN

JOSU AMEZAGA / EDORTA ARANA
TELEBISTAGINTZA PUBLIKOA. ETB
ETA ZERBITZU PUBLIKOAZ

LUIS ALBERTO ARANBERRI
ETB: 25. URTEURRENAREN BIDEAN

CARMEN PEÑAFIEL
IRRATIAREN HISTORIAKO 20 URTE
EUSKAL HERRIAN

JESUS ETXEZARRAGA
XABIER MENDIGUREN ELIZEGI
LONTXO OIHARTZABAL
KIKE AMONARRIZ
EGUNEN GURPILEAN



JAKIN

89

UZTAILA-ABUZTUA 1995



Aldizkari hau ARCEko kidea da
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Turismo Departamendua



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

AURKIBIDEA

Z	ENBAKI HONETAN	7
---	----------------	---

G	AI NAGUSIA	11
---	------------	----

TXEMA RAMIREZ
KOMUNIKAZIOAREN NORABIDE BERRIAK
DIKTADURAREN OSTEAN (1975-95)

31
JOSE MARIA CAMINOS
IREKITZE ETA IXTEAK: BURUALDE BERRIAK

49
IÑAKI URIA
EUSKAL PRENTSA SORTZEN

65
JOSU AMEZAGA / EDORTA ARANA
TELEBISTAGINTZA PUBLIKOA, ETB ETA ZERBITZU PUBLIKOAZ

77
LUIS ALBERTO ARANBERRI
ETB: 25. URTEURRENAREN BIDEAN

95
CARMEN PEÑAFIEL
IRRATIAREN HISTORIAKO 20 URTE EUSKAL HERRIAN

E	GUNEN GURPILEAN	115
---	-----------------	-----

JESUS ETXEZARRAGA
XABIER MENDIGUREN ELIZEGI
LONTXO OIHARTZABAL
KIKE AMONARRIZ

I	IBURUAK	135
---	---------	-----

IDAZKARITZA
JASO DITUGU

© JAKIN

JAKINEKO IDAZLANEZ INON
BALIATZERAKOAN AIPA BEDI,
MESEDEZ, ITURRIA

JAKIN

ALDIZKARI IREKIA DA ETA EZ
DATOR NAHITAEZ IDAZLEEN
IRITZIEKIN BAT

ZUZENDARIA

JOAN MARI TORREALDAI

ERREDAKZIO-BATZORDEA

PAULO AGIRREBALTZATEGI - JOXE AZURMENDI - JOSEBA INTXAUSTI

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C - 20009 Donostia - Tel. (943) 21 80 92 - Fax 21 82 07

1995eko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	5.000 pta.	—
Ale arrunta	850 pta.	1.225 pta.
KANPOAN		
Harpidetza	5.500 pta. (235 FF)	—
Ale arrunta	925 pta. (40 FF)	1.400 pta. (60 FF)

SUMMARY

NEW DIRECTIONS IN COMMUNICATION IN THE BASQUE COUNTRY FOLLOWING THE DICTATORSHIP (1975-95)

TXEMA RAMIREZ

Txema Ramirez, journalist and doctor in journalism, argues in his article that the Basque informative system nowadays bears no resemblance to that of 1975 and that the changes which have taken place are due more to sociological and journalistic factors than political ones. From the national point of view,

the Basque informative system is weak and those newspapers which express themselves on a Basque national basis are going through a difficult situation. According to the author, changes which may come about in the 21st century shall be based on three factors: technology, market and specialization.

OPENINGS AND CLOSURES: THE NEW HEADINGS

JOSE MARIA CAMINOS

The press dating from the beginnings of the political transition bears little or no resemblance to that of 1985, explains in his article Jose Maria Caminos, Professor of the Faculty of Information Science of the University of the Basque Country. The press already in existence in 1975 had no option but to trans-

form its structures so as to compete with the new mass media in a new society eager to receive information. The changes brought about the permanent opening and closure of new and old newspapers which ended up shaping the new Basque informative framework.

CREATING PRESS IN THE BASQUE LANGUAGE

IÑAKI URIA

Following a brief review of the most recent history of press in the Basque language, Iñaki Uriá analyzes the current reality behind the press in the Basque language. The author singles out as the

most important achievements the creation and consolidation both of *Egun-karia*, of which he is representative member, and local magazines. He warns, however, that the Basque press

in general continues to suffer the consequences of a lack of suitable policy on the part of institutions and advoca-

tes the creation of a Basque Communication Slot.

ON PUBLIC TELEVISION, ETB AND PUBLIC SERVICE

JOSU AMEZAGA / EDORTA ARANA

The spectrum of public television in the Basque Country has varied notably since the times when Spanish television was the only TV channel, in the view of Josu Amezaga and Edorta Arana, professors of the Faculty of Information Science of the University of the Basque Country. Nowadays, two public televi-

sions (TVE and ETB) and three private ones (Antena 3, Tele 5 and Canal +) compete for the same market. The authors defend that ETB must give priority to its public function rather than focusing exclusively on competing for audience.

ETB: TOWARDS ITS 25 TH ANNIVERSARY

LUIS ALBERTO ARANBERRI

Luis Alberto Aranberri, Director of ETB (Basque Television) at the time of writing the article (03-10-94), carries out an assessment of the twelve years of life of Basque television and warns that, in the thirteen years remaining to reach its 25 th. anniversary, the Basque chan-

nel must adapt itself to new challenges in the world of television. In his assessment of the first 12 years, Aranberri states that Basque television, in particular television in the Basque language, has advanced notably in the hands of ETB.

20 YEARS IN THE HISTORY OF RADIO IN THE BASQUE COUNTRY

CARMEN PEÑAFIEL

In her synthesis of the last 20 years of Basque radio, the journalist and university professor Carmen Peñafiel explains the appearance during the political transition of a new informative order, emphasizes the importance of the

consolidation of Basque autonomous radio, and carries out an analysis of the appearance of a plethora of free radio stations in the eighties and the creation of the first municipal broadcasting stations.

NEWS TODAY

VARIOUS AUTHORS

This section gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following university, sociolinguistic and literary-related matters. This section draws on various specialists: Jesus Etxezarraga,

journalist for ETB (Basque television), Xabier Mendiguren Elizegi, philologist and literary director, Lontxo Oihartzabal, psychologist and university professor, and Kike Amonarriz, sociolinguist.

ZENBAKI HONETAN

Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 89. zenbakia da eta 1995eko laugarrena.

Zenbaki honetako gai nagusia Hego Euskal Herriko komunikabideei eskaini diegu. Prentsa idatziak, telebistak eta irratia, euskarazkoek nahiz erdarazkoek, Diktaturaren ostean egin duten bidea aztertzea izan da asmoa. Hogei urte hauen balantzea egiteko helburuarekin ekarri ditugu orrialdeotara unibertsitateko lau irakasleren eta komunikabideetako bi profesionalen lanak.

Txema Ramirez irakaslearena da prentsari buruzko lehenengo lana. 1975. urtean Euskal Herriko prentsak bizi zuen egoera abiapuntu hartuta, prentsaren kontsumoak eta egunkarien difusioak zein bilakaera izan duten aztertu du, ondorioetan Euskal Herriko gaur egungo sistema informatiboaren ezaugarri nagusiak zein diren azaltzeko. XXI. menderako zein aldaketa aurrikus daitezkeen ere aipatzen du.

Jose Maria Caminos irakasleak Diktaduraren osteko lehen hamar urteetan prentsan gertatutako ixteen eta irekitzeen historia egin du, Mugimenduko Prentsa-kateko egunkarien heriotzetik hasi eta Deia-ren eta Egin-en jaiotzeraino.

Iñaki Uria *Euskaldunon Egunkaria*-ko kontseilari ordezkariak, berriz, euskarazko prentsaren historia laburrarekin batera, *Egunkaria*-ren sorreraren xehetasunak eta euskal prentsaren egungo egoerari buruzko azterketa eskaintzen ditu bere lanean.

Telebista aztergai duten bi artikulu datoz gero. Luis Alberto Aranberri «Amatiño»k ETBko zuzendaria zenean idatzia da lehenengoa, eta Josu Amezaga eta Edorta Arana irakasleek landua bestea. ETBren lorpenak nabarmentzen ditu Aranberriek, eta ETBk telebista publiko gisa bete beharko lukeen funtzioaz egin dute gogoeta Amezagak eta Aranak.

Camren Peñafiel irakaslearena da *Gai nagusia* ataleko azken idazlana. Hogei urteotan irratigintzak emandako urrats garrantzitsuenen berri ematen digu, hala nola informazio-ordena berriaren etorrera, euskal irradi autonomikoaren finkatzea, irradi librearen agerpena eta udal-irratien jaiotza.

Egunen gurpilean sailean ohiko lau idazleak datoz, kultura, literatura, unibertsitatea eta hizkuntza gai-sailean gainean hainbat gaurko gai jorratuz.

Eta, azkenik, *Liburuak* sailean azken aldi honetan bulegoan jaso ditugun liburuen zerrenda eskaintzen diogu irakurleari.

GAI NAGUSIA

TXEMA RAMIREZ

KOMUNIKAZIOAREN NORABIDE BERRIAK
DIKTADURAREN OSTEAN (1975-95)

JOSE MARIA CAMINOS

IREKITZE ETA IXTEAK: BURUALDE BERRIAK

IÑAKI URIA

EUSKAL PRENTSA SORTZEN

JOSU AMEZAGA / EDORTA ARANA

TELEBISTAGINTZA PUBLIKOA, ETB
ETA ZERBITZU PUBLIKOAZ

LUIS ALBERTO ARANBERRI

ETB: 25. URTEURRENAREN BIDEAN

CARMEN PEÑAFIEL

IRRATIAREN HISTORIAKO 20 URTE EUSKAL HERRIAN

KOMUNIKAZIOAREN NORABIDE BERRIAK DIKTADURAREN OSTEAN (1975-95)

Euskal Herriko prentsan izandako
aldaketak

TXEMA RAMIREZ

1 975eko apirilak 26: Franco jeneralak salbuespen-egoera ezarri zuen Bizkaian eta Gipuzkoan. 1995eko apirilak 19: ETAk José María Aznar Espainiako oposizioburuaren aurkako atentatua burutu zuen; ezerezean gelditu zen ekintza. Gertaera bi hauen artean hogeitun urteren aldea dago. Biek izan zuten isla handia Euskal Herriko mezubideetan. Baina jazoerok hedatu zituzten sistema informatiboak arras ezberdinak ziren.

1975ean Francisco Francoren diktadurak bere mende zituen mezubide guztiak: prentsa, irrati eta telebista. *Mugimenduak* hiru egunkari zituen Euskal Herrian: *La Voz de España* eta *Unidad* Donostian eta *Hierro* Bizkaian. Irrati-emisora guztiek bat

egin behar zuten egunero, nahitaez Espaniako *Radio Nacional*-ekin ohiko *parte*a emateko. TVE telebista-kate bakarra zen garai haietan. Beraz, sistema autoritario bati dagokion egoera zen hura, ez baitzegoen ez adierazpen-askatasunik, ezta informazio-askatasunik ere. Sistemak eskaintzen zituen zirriki-tuak oso estuak ziren. Zeuden apurrak 1966an onartu zen Prentsaren legean (*Fraga legea*) azaltzen ziren. Diktaduraren amaieratik gertu egon arren, 1975ean frankismoak komunikabideei ezartzen zien kontrola erabatekoa zen, bere esku zituen neurriak ugari baitziren (zentsura zuzena, zigor administratiboak...).

1995ean eskaintza informatiboa oso ugaria da. Inoiz baino egunkari, irrati eta telebista-kate gehiago ditugu eskueran. Prentsa, informazio eta adierazpen-askatasunak 1978ko Konstituzioan (20. artikulua) ofizialki onartzen diren eskubideak dira. Gaurko egoera duela hogeituro urtekoarekin parekaezina baldin bada ere, Euskal Herrian dagoen sistema informatiboak baditu gabezia eta hutsune franko. Batzuk espezifikokoak dira (zenbait egitura informatiborenahultasuna, adierazpen-askatasunaren aurkako erasoak...), baina beste asko orokorrak (talde multimedien nagusitasuna, aniztasun informatiboaren murrizketa...).

Egun, merkatu-legea jainko bakarra dugu. Teknologiak ideien erreinua alboratu eta ordezkatu du. Teknologiak eta merkatuak banaezinezko binomioa osatu dute, armonia ezin hobean dantza egiten duen bikotea.

Artikulu honen helburuak honako hauek dituzue:

- Bi hamarkada hauetan eta komunikazioaren esparruan izan diren aldaketak azaldu, dagokien testuinguruan lekutu eta interpretatu.
- Euskadiko prentsak hogeituro urteotan hartu dituen portaera eta norabide berriak berrikusi eta aztertu, beti ere kazetaritza-irizpideak erabiliz.
- XXI. mendeari begira, Euskal Herriko sistema informatiboan nagusituko diren ildo nagusiak ezagutu, ahal dugun neurrian, jakina.

BI HAMARKADA KOMUNIKAZIOAREN ESPARRUAN

HOGEI URTEREN BUELTAN

Franco hil aurreko eta osteko hilabeteak istiluz betetako egunak izan ziren Euskal Herrian. Salbuespen-egoera ezarri ondoren, errepresio latza zabaldu zen gure auzo, herri eta hiri nagusienetara. Basauri eta Martutenen zeuden preso sozialak tokiz aldatu zituzten, egun haietan polizia atxilotutako pertsonak kokatu ahal izateko. Diktadoreak azken hatsa bota aurreratik, astia izan zuen Juan Paredes Manot (*Txiki*) eta Angel Otaegi euskal herritarrak eta hiru FRAPkideren heriotza-zigorrrak sinatzeko eta betearazteko (75/IX/27). Zendu ondoren (75/XI/20) hasiera eman zitzaion luzea bezain istilutsua gertatu den *trantsizio politikoa* deitutako garaiari.

Egoera aldakor hartan, erreakzioak eta ekimenak egun batetik bestera gauzatzen ziren. Espainian, *El País* egunkaria (1976) izan zen diktaduraren ondoren jaio zen lehen kazeta demokratikoa. Euskal Herrian beste hainbeste gertatuko zen 1977an, *Deia* eta *Egin* egunkarien sorrerarekin. Sei urte beranduagokoa da ETB (1983).

Bizkitartean, euskal gizartea *burbur*-ean zegoen. Amnistia aldarrikatzen zuten manifestazioak, langileen protestak eta ekintza armatuak ia egunero eta nonnahi gertatzen ziren. Erreforma politikoak ez zituen euskal herritar gehienen asmoak eta gogoak asetu, eta horren lekuko izan zen liskarrez beteriko hamarkada (75-85).

Erreforma politikoak instituzio aldaketa ugari ekarri zuen. Egoera politiko berri honetara egokitu ez izanak hainbat egunkariren desagerpena eragin zuen, dela eredu enpresarial zaharkituari eutsi ziotelako, dela politikoki joko-zanpo geratu zirelako: *Norte Express* (1982), *Hierro* (1983), *La Gaceta del Norte* (1984 eta 1987), *La Voz de España/Euskadi* (1985), *Pensamiento Navarro*,...

Azken hamar urteotan, berriz, bestelako baloreak gailendu dira bai mundu zabalean baita Euskal Herrian ere. Azkenengo

sei urteotan batik bat —1989an Berlingo murrua erori (?) edo bota zutenetik—, honako hiru hauek izan dira Bernardo Diaz Nosty-ren aburuz (1994:12) garai berri hau definitzen duten faktoreak: krisi ideologikoa, teknologiaren nagusitasuna eta Estatu demokratikoaren krisia. Mezubideak ez dira errealtate honetatik landa egon. Are gehiago, aipatu adituaren iritziz (Bernardo Diaz Nosty, 1994:17) komunikabideek zerikusi zuzena dute *eredu sozial eta politiko berri* honen eraikitzean. Ideien gainbehera honek ekarri digu, besteak beste, merkatu-baloreen garaitasuna eta esparru ideologikoen murrizketa, aukera posible bakarra balore kontserbadoreen eta modernitate *light*-aren artekoa izango balitz bezala

Teknologiak, eta bere inguruan osatu den diskurtsoak, liliaturarik dauka euskal gizartea. Ordena, progresoa, integrazioa, eraginkortasuna, produktibitatea, sinergia, baliabideen optimizazioa, interaktibitatea, konforta eta seguritatea/kontrola bezalako baloreak (B. Diaz Nosty, 1994:18) ate azpitik gure egongelarraino egunero sartzen ari diren elementuak dira.

Bestalde, azkenaldion bizitza politikoa ziprirtindu duten ustelkeria kasuek deskonfidantza eta etsipena hedatu dute herritarren artean. Teknologiaren azkartasunaren aurrean, Administrazioa inoiz baino motelagoa, ustelagoa eta zaharkituagoa agertu da.

Testuinguru honetan, mezubideek berebiziko garrantzia bereganatu dute, hala *star system* berriaren egituraketan, nola *eredu sozial eta politiko berriaren* legitimazioan. Filosofia honen ondorioz, arian arian, denok gara, apur bat, *gutxiago herritar* eta *gehiago kontsumitzaile*.

Enpresa-eredu berria ere sortu da enpresa informatiboetan, zerbitzu multimedietan oinarritzen den modeloa; hau da, talde berak bere aginpean ditu egunkariak, irratiak eta telebistakateak. Eredu berri honek adierazpen-askatasunean izan ditzakeen ondorioak oso larriak dira. Horretaz oharturik, hainbat aditu azaldu dira (ideologia guztietakoak gainera) fenomeno honen kontrola eskatuz. Armand Mattelart soziologo frantziar ezaguna, esaterako, argi romintzo da gai honi buruz (1993:6).

Bereustez, *komunikazioa hain da garrantzitsua ezin dela merkaturaren logikara abandonatu*. Mattelartt-en aburuz, gizarte zibilak dagokion protagonismoa berreskuratu behar du.

Euskal Herriko panorama informatiboa ere asko aldatu da hogeitun urteotan. 75-85 hamarkadako urteak gora-behera politiko eta ekonomiko ugariz osatutakoak izan baziren (krisi ekonomikoa, aldaketa politikoak, erakundetze-prozesua, autonomi-estatutuak...), azkenengo hamar urteotan gailendu den eredu komunikatibo berria eta komunikazioaren kontsumoak Euskal Herrian izan duen hazkundera nabarmentzen dira, besteak beste.

KOMUNIKAZIOAREN KONTSUMOA

Komunikazioaren kontsumoari dagokionez, Euskal Herria maila onean kokatu izan da beti, Europako batezbestekoare n azpitik, baina Espainiako emaitzak dezente gaituz (ik. 1 grafikoa), batez ere egunkarien irakurketari eta irratia-entzuketari dagokienez (azken datu hau, batez ere, Euskal Autonomi Elkartearen).

1 grafikoa

Komunikazioaren kontsumoa egunero (%). 1992

	Espainia	E.A.E.	Nafarroa
Egunkariak	33,6	55	45,3
Aldizkariak	57,9	56,7	44,9
Iratia	52,4	61,8	49,3
Telebista	89,5	86	83,1
Zinema (*)	6,3	7,7	9,1
Bideoa	5,6	5,1	4,1

(*) Aurreko astean

- Iturria: Estudio General de Medios (1992)
- Egileak landutako koadroa.

Liburuen erosketari dagokionez ere, Euskal Herrian, Espainian baino gehiago erosten direla aipatu behar da (% 43,5 eta % 37, hurrenez hurren), nahiz eta kasu honetan madrildarrak eta kataluniarrak gure aurretik ibili (% 54,3 eta % 46, hurrenez hurren). Aurreko koadroan dagerrenez, euskaldunok, espainiarrak baino telebista eta bideo gutxiago ikusten

dugu. Zinemari dagokionez, berriz, beraiek baino sarriagotan goazela antzematen da (Nafarroan batez ere).


Kultura ekipamenduei dagokienez ere, hau da, euskal etxeetan ditugun musika-kate, argazki-kamara, bideo-kamara, ordenagailu, disko trinko (*compact*), telebista eta irrati-aparailuei dagokienez, EAEko datuak Espainiakoak baino altuagoak dira. Ezin gauza bera esan, ordea, Nafarroari dagokionez¹.

Ramon Zallo EHUko katedradunak emandako datuen arabera (1994:381), 1992an EAEko kultura-arloko produkzio osoa 78.107 milioi pezetakoa izan zen (gutxi gora-behera). Bertan, argitaldarek, industria fonografikoak, prentsak, irratia, telebistak eta ikus-entzunezko azpisektoreak eragindako ekoizpena sartzen zen. Kopuru hau gaur egun, Hego Euskal Herrirako (EAE gehi Nafarroa) 100.000 miloi inguruan koka daiteke.

Kultura Sailaren aurrekontuak aztertzen badira, nabaro gelditzen da azken urteotan gizarte gastuek Euskal Herrian —beste hainbat herritan gertatu bezalaxe— izan duten beherakada. Eusko Jaurlaritzak osatu zenetik gaurdaino, Gasteizko Gobernuak kulturaren inbertitua duen dirutza gero eta ttipiagoa izan da, beti ere EAEko aurrekontuekin alderatuz gero (ik. 2 grafikoa). Edozein herritan datu hau kezagarria izanik, are gehiago gurea bezalako nazioan.

2 grafikoa

Kultura Sailaren aurrekontuen bilakaera (%) EAEko aurrekontuekin alderatuta



- Iturria: Eusko Jaurlaritzako aurrekontuak
- Egileak landutako grafikoa


PRENTSAREN GARAPENA: AUTORITARISMOTIK TALDE MULTIMEDIEN NAGUSITASUNERAINO

HEGO EUSKAL HERRIKO DATUAK

Lehen aurreratu legez, Hego Euskal Herria beti ibili da hogei urteotan tropelaren buruan, Estatu espainoleko beste herriekin alderatuz, bai hedapen-indizeari dagokionez², baita irakurle-kopuruari dagokionez ere. EGM (Estudio General de Medios) eta OJD (Oficina de Justificación de la Difusión) erakundeek halaxe konfirmatzen dute urtero kaleratzen dituzten buletinaren eta estatistiken bidez. Beste hainbeste gertatzen da CIES enpresak Hego Euskal Herrirako eskaintzen dituen emaitzekin.

3 grafikoa

Hedapen-indizeak komunitate autonomoka eta Europan. 1993




- Iturria: 1994ko OJDren buletinak. Erakunde honek ikuskatzen ez dituen egunkarien kasuan, Fundescok egindako estimazioa hartu da.
- Egileak landutako grafikoa.

Goiko irudian ikus daitekeenez (ik. 3 grafikoa), Euskal Autonomi Elkarte (EAE) Estatuko lehen komunitate autonomoa da hedapen-indizeari dagokionez (182 ale mila pertsonako). Jarraian Nafar Foru Komunitatea azaltzen da (178,6). Hego Euskal Herria bere osotasunean hartuta, hedapen-indi-

zea 179,3koa da. Europako indizetik (233) urrun samar gelditzen baldin bagara ere, argi dago beste komunitate autonomoak askoz urrutiago gelditzen direla. OJDk azkenengo urteotan kaleratu dituen estatistiketan, Gipuzkoa puntaren puntan azaltzen da beti (lehen herrialdea Estatu osoan). 1993an bere hedapen-indizea 210,8koa izan zen.

4 grafikoa

Prentsaren irakurleak (%) egunero Europan. 1992



(*) 1993ko datuak.

- Iturriak: Central Media / Zenith Worldwide, 1992 / Cies.
- Egileak landutako grafikoa.


Azter ditzagun Europako datuok eta, zehazkiago, herri ba-koitzean prentsak duen irakurle-kopurua (ik. 4 grafikoa). Ber-tan ikus daitekeenez, Hego Euskal Herriko indizea (%55) Eu-ro-pako batezbestekoaren azpitik dago, Belgika eta Frantzia bezalako herrie-kin parekatuta. Gertakari bitxia antzematen da grafiko honetan. Estatu espainolean antzematen den bezala, Europan ere irakurzaletasuna handiagoa da Iparraldeko herrietan Hegoaldekoetan baino. Portaera honek azalpen ugari beharko lituzke, apika. Hona hemen pare bat: Iparraren eta Hegoaren artean dauden ezberdintasun ekonomikoak esparru honetan ere islatu izana eta Hegoaren eta Iparraldearen artean dagoen eguzki-orduen desoreka; hau da, zenbat eta Iparralderago jo (Norvegia, Finlandia), eguzki-ordu gutxiago eta, beraz, etxean irakurtzen gelditzeko aukera gehiago, eta Hegoaldeko herrietan —Portugal, Grezia, Espainia, Italia—, berriz, kalean

egoteko okasio gehiago. Bestalde, ezin da aipatu gabe utzi herri bakoitzean dauden kultura-ohiturek ere garrantzi handia dutela fenomeno berezi honen interpretazioan.

CIES erakundeak hamar urte baino gehiago daramatza EAeko eta Nafarroako komunikabideen portaerak eta audientziaren gora-beherak aztertzen. Argitara eman berri duen azken buletinetakoa baten arabera (1995), azken hamarkada honetan (1984-94) dezente igo da prentsa-irakurleen kopurua (ik. 5 grafikoa) Hego Euskal Herrian (bost puntu, %49tik 54ra). Ikerketa honen arabera, gaur egun 973.000 pertsonak irakurtzen dute prentsa egunero Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. 1984an, irakurleak 789.000 ziren; beraz, ia 200.000 gutxiago (184.000 zehazki).

5 grafikoa


Prentsa irakurleak egunero (%) Hego Euskal Herrian. 1984-1994



- Iturria: Cies.
- Egileak landutako grafikoa.

Datu hauek lurraldeka aztertuz gero, ezberdintasun nabariak suma daitezke (ik. 6 grafikoa). Hazkunderik nabarmena Araban gauzatu da —ia 20 puntukoa— eta ttipiena Bizkaian (puntu bakar batekoa). Gipuzkoa eta Nafarroan, berriz, igoera sei eta zazpi puntukoa izan da. Gaur egun, beraz, lurralde ezberdinetan dagoen irakurzaletasun-indizeak nahiko berdintsuak direla esan daiteke, hamar urteotan dezente murriztu baitira diferentziak (hogeita bat puntukoa zena hamabikoa da orain).

6 grafikoa

**Prentsaren irakurleak lurraldeka (%). 1984-1994**

- Iturria: Cies.
- Egileak landutako grafikoa.

Lehenengo hamarkadari dagokionez (1975-1985) hainbeste daturik ez bada ere, esku artean ditugunekin ondorio argigarriak atera daitezke. Garai honetan, hedapen-indizeak nahiko egonkorrak izan ziren Euskal Herrian (125-131 baloreen artean). Gora-behera politiko eta ekonomiko ugariz betetako urteak izan arren, aldakuntza horiek ez ziren kioskoetan gehiegi nabaritu. Egia da egunkarien salmentetan fluktuazio handiak izan zirela, titulu dezente sortu eta desagertu baitziren garai hartan, baina, 7. grafikoan argiro ikus daitekeenez, batzuren gorakadak, beste batzuren beherakadekin kitatzen ziren, merkatuaren baloreak termino beretsuetan mantenduz. Lehen hamarkada honetan Euskal Herriak Espainiari ateratzen zion aldea jada garrantzitsua zen (50 puntu ingurukoa).

Bigarren hamarkada honetan, eta batik bat 1987az geroztik (ik. 5 grafikoa) hedapen-indizeak bost puntu gora joan dira Hego Euskal Herrian. Salmentei dagokienez, 1991n hasi zen gainbehera ekonomikoa euskal prentsak ongi gainditu duela esan daiteke, irakurleen kopurua mantendu baitu (%54) azken hiru urteotan. Ezin gauza bera esan, ordea, publizitateak urte horietan euskal egunkarietan utzi dituen sarrerei buruz.

Datu adierazkor hauek ez datoz bat kazetagitzaile profesionalen artean zabaldu diren uste okerrekin, beraiek prentsaren egoera eta etorkizunari buruz duten iritzia askoz beltzagoa baita normalean. Publizitateak 1992-1994 biurtekoan izan duen beheraldi nabarmenak izango du ziurraski zerikusirik sineste makur horrekin.

Bernardo Diaz Nosty-ren iritziz (1994:47), prentsan azken bi hamarkada hauetan izan diren aldakuntzak ulertzeko aldagai politikoak baino gehiago soziologikoak eta periodistikoak hartu behar dira kontuan. Honako hauek lirarteke, bere ustez, garrantzizkoenak:

Aldagai soziologikoak

- Herritarron erosteko ahalmenak izan duen gorakada.
- Emakumeak lan-merkatuan lortu duen presentzia (garai honetan 3,5 puntu igo da Estatuan).
- Unibertsitate-biztanleriaren igoera (*baby-boom*-eko belaunaldia Unibertsitatara iritsi zaigu).


Kazetaritza aldagaiak

- Egunkariak eskaintzen dituzten estimulu eta promozio berriak (bideoak, liburuak, bilduma bereziak...)³.
- Kalitatearen hobekuntza (orrialde gehiago, kolorea, maketazio erakargarriagoak, infografia ...).
- Asteburuetan prentsaren kontsumoak izan duen hazkundera.

Aldagai hauek, batera jotzean, dezente handitu dute prentsaren kontsumoa. Era honetan, askoz hobeto ulertzen dira hogei urteotako mudantzak. Hurrengo urteei begira ez da aldakuntza handiegirik espero. Susperraldi ekonomikoaren datuak konfirmatzen badira, prentsaren kontsumoak igotzen jarraituko duela pentsa daiteke.

EGUNKARI GARRANTZITSUENEN JARRAIBIDEA

Gaur egun Hego Euskal Herrian kaleratzen diren egunkari-
riek izan duten ibilbideaz erreparatzeko 7. grafikora jo behar
dugu nahitaez. Hogei urteotan desagertu diren egunkarien
aipamenik ez dugu egingo, horixe baita José María Cami-



nos irakasleak monografiko honetan bertan idatzi duen
artikuluaren xedea.

7 grafikoa

Euskal prentsaren difusioa (salmentak). 1975-1995

(1) 1992az geroztik, egunkari honek ez du OJDren ikuskaritzarik pasa. Urte horri dagokion zifra Iparragirre Argitaletxeak emandakoa da.

(2) Zifra hau 1994ko urteari dagokio. Zeroa Multimedia argitaletxeak emandakoa da, oraindik egunkari honek ez baitu OJDren ikuskaritzarik pasa, ofizialki hala eskatu arren.

- Iturria: OJDko Buletin Ofizialak.
- Itxaso Fernandezek landutako grafikoa.

Lehenengo eta behin garbi asko geratzen da *El Correo* taldearen egunkari-
riek (*El Correo* bera eta *El Diario Vasco*) man-
tentzen duten nagusitasuna. Bilboko kazetak lortu du inork
gutxik Estatuan lortu duena: Franco hil aurretik, ondoren eta
hurrengo bi hamarkadetan lehen egunkaria izatea. Egun
proiektu enpresarial sendoa da, Euskal Herrian txertatua,
nahiz eta bere ildo ideologikoa abertzaletasunetik at kokatu.

Beste hainbeste esan daiteke talde berekoa den *El Diario
Vasco* kazetari buruz. Grafikoari so eginez gero, berehala ant-
zematen da egunkari honek *El Correo*-ren ibilbide paraleloa

duela. Gipuzkoako gizartean mantentzen duen lidergoa ukaezina da. Nagusitasun hau areagotu egin zen *La Voz de España* egunkariaren desagertzea gertatu ondoren.

El Correo taldeko burua den Emilio Ibarra bankariak (BBV) urte hauetan guztietan tentu handiz eutsi dio bi enpresa hauen lehari. Egun, Hego Euskal Herriko prentsak duen difusio osoaren %47 bi kazeta hauek bereganatzen dute, hau da, kaleratzen diren bi egunkaritatik bat Ibarraen *holding*-ekoa da.

El Correo eta *El Diario Vasco* egunkariak duten lasaitasun-egoera hau 1984ean hasi zen mamitzen. Ordurarte gora-behera handiak jasan zituzten (1978ko beheraldia tarteko), gehien bat *Deia*-en eta *Egin*-en agerpenaren ondorioz (1977). Euskal gizarteak bi egunkari hauei eman dien onspenaren giltzarriak hauexek izan daitezke: tokian tokiko informazioari betidanik eskaini dioten arreta eta urtez urte bereganatu duten aseptikotasunaren irudia.

Beste hainbeste esan daiteke ere *Diario de Navarra* egunkari kontserbadoreari buruz. Berau da jauna jabe bakarra lurralde honetan. Nabaroa da 1988tik hona mantentzen duen gorunzko joera etengabea, eta ez dirudi, 1994an jaio den *Diario de Noticias* egunkariak kalte handirik egin diezaiokeenik. 1975etik 1988ra bitartean iraun zuen beherunzko joera zergatik inbertitu zen aztertzerakoan, azken urteotan Julio Martínez Torres zuzendari berriak kazeta honi eman dion jiteak berebiziko garrantzia duela esan behar da.

Egin-en kasua berezia da oso, zalantzarik gabe, ez baitago Estatuan ezta Europan ere honelako eredu mantentzen duen kazetarik. Egunkari honek orain inoiz baino difusio handiagoa du (50.000tik gora). 1987/89 bitartean egunkari honek zortzi edizio lokalen sorrerari ekin zion. Prozesu honek geldiarazi zuen ordurarte nozitu zuen beherunzko joera.

Bestalde, 1992an *Egin*-ek izan zuen erroko transformazioak astindu ederra eman zien bere salmentei. Hernaniko errotatibak lortu du bere ohiko aurkaria (*Deia*) atzean gelditzea eta gainera inoiz baino *etsaiago* (boikot politiko eta eko-

nomikoa) zeukan garai batean. Portaera hori azaltzeko ondorengo faktoreak hartu behar dira kontuan: egunkari hone-tako irakurleek duten fideltasuna⁴, zuzendaritzak aurrera eramantuen promozio-kanpaina ausartak eta bertoko langileek egin dituzten sakrifizioak. Gainera, *Egin* ez da batere merkea —125 astegunetan eta 150 jaiegunetan—, Europako egunkari garestien artean baitago (ik. 8 grafikoa).

8 grafikoa

Egunkarien salneurriak Euskal Herrian, Espainian eta European

Egunkaria	Herria	J.P. [1]	A [2]
El Correo	Euskal Herria	95	0,784
El Diario Vasco	Euskal Herria	100	0,825
Diario de Navarra	Euskal Herria	110	0,907
Egin	Euskal Herria	125	1,03
Deia	Euskal Herria	100	0,825
El Mundo del País Vasco	Euskal Herria	110	0,907
Diario de Noticias	Euskal Herria	110	0,907
Euskaldunon Egunkaria	Euskal Herria	110	0,907
El País	Espainia	100	0,825
ABC	Espainia	110	0,927
Frankfurter All. Zeitung	Alemania	163	0,878
Il Corriere della Sera	Italia	108	0,669
Berlingske Tidende	Danimarka	188	1,119
Le Monde	Frantzia	168	0,963
The Irish Times	Irlanda	169	1,546
The Times	Erres. Batua	62	0,417
E. Batasunaren batezb.	—	125	0,790

[1] Jendearentzako prezioa astegunetan

[2] Balorea ECUetan, herri bakoitzeko Barne Produktu Gordina kontuan hartuta

• Iturria: Fundescoko urtekaria.

• Egileak landutako koadroa.

Deia-ren kasua bestelakoa da. Bilboko egunkariak ez du lortu beherunzko joera geldiaraztea. Gaur egun zenbat egunkari saltzen dituen jakitea inkognita bat da. Iparragirre argitaletxeak duela hiru urte erabaki zuen OJDko ikuskaritzarik ez pasatzea. Argi dago egunkari honek, aginte politikoaren

begikotasuna izan arren, premiazko neurriak hartu behar dituela dituen arazo larriei aurre egin nahi badie bederen.

El Mundo del País Vasco egunkariak duen ibilbide labur rean lortu du merkatu-kuota polita *El Correo*, *El País* eta *Deia* kazetei zertxobait kenduz. Haatik, irakurlegoa ez du oso fidela, bere salmentek gora-behera handiak baitituzte egun batetik bestera (lehen orrialdeko albiste nagusiaren arabera).

Euskaldunon Egunkaria-k berriz, hasierako zailtasun gogorei aurre egitea (1990-94) lortu du, euskal hiztunen unibertsoan erreferentea izanik. Jaurlaritzarekin sinatu zuen hitzarmena (1994) hurrengo urteotan nola bideratuko den argitzeke dagoen honetan, egunkari hau birmoldaketa-fasea gauzaten ari da orain.

Diario de Noticias egunkari nafarrari buruz ezin gauza gehiegirik esan ordea, urtebete eskas baitarama kioskoetan eta ditugun datu apurrak enpresak berak emandakoak direlako.

Egunkarien errepasso hau ezin bukatu Iparraldeko egoerari aipamen laburra egin gabe. Eta murrizta izan behar gainera halabeharrez, orain arte ez baita datu fidagarririk argitaratu Iparraldean prentsak bizi duen egoerari buruz. Bestalde, dauden datuek Akitaniako errealitatea bere osotasunean aintzat hartzen dute, eta ez Iparraldea bereziki.

Aipa dezagun bakar bakarrik, *Sud-Ouest* egunkaria nagusi dela aspaldian. Egunkari honek hogeitik gora edizio lokal argitaratzen ditu eta 1.200 behargin ditu bere mende. Akitania osoan 375.000 ale saltzen ditu egunero (*El País*-ek beste ia ia). *Sud-Ouest* eta *El Correo* taldeen arteko elkarlana (Bilboko egunkariak Bordelekoaren akzioen %6 du uneon) areagotu egin da azkenaldi honetan. Sortu zenetik hona (1944), egunkari honen akzio gehienak Jacques Lemoine-n familiaren eskuetan dira (Jean-Jacques Cheval, 1993:67).

ADIERAZPEN-ASKATASUNA EZBAIAN

Pentsamendu, informazio, prentsa eta adierazpen-askatasunak, 1978ko Espainiko Konstituzioak arautu eta onartzen

dituen eskubideak izan arren, hogei urteotan ugari izan dira libertate hauek ezbaian jarri dituzten gertaerak.

Eraso hauen zerrenda 1977an sektore ultraeskuindarrekin burutu zituzten atentatuekin hasi zen. Urte berean (ekainean) ospatzekoak ziren Francoren osteko lehen hauteskundeak. Atentatuak eta erasoak etengabe katramilatu ziren, bai Euskal Herrian (*Norte Express*, *Punto y Hora*, *El Correo*-ko zuzendaria-riaren aurka,...) baita Espainian ere (*Diario de Barcelona*, *El Popus*, *Diario 16*,...). Bizkaiko eta Iruñeko zenbait liburutenda eta kiosko ere kiskalita geratu ziren ultraeskuindarrek egindako erasoen ondorioz.

1981eko otsailaren 23ko Estatu-kolpe zapuztuak piztu zuen giroaz baliatuz, Madrilgo Kongresuak oniritzia eman zion Demokraziaren Defentsarako 2/81 Lege Organikoari (LOAPA ere garai hartakoa da). Testu honen arabaera, epaileak —fiskalaren agindua betez— *terrorismoaren apologia* ustez egiten zuen edozein medioren behin-behineko itxiera edota bahiketa erabaki zezakeen. Lege honek helburu garbiak zeuzkan: *Egin* egunkaria eta *Punto y Hora* aldizkaria. Ondorengo urteetan (81/83) bi medio hauek zenbait bahiketa jasan behar izan zituzten, beti ere *terrorismoaren apologia* aitzaki izanik.

Agintari politikoek zuribide berbera erabili zuten Xabier Sanchez Erauskin kazetari gasteiztarra eta *Punto y Hora* aldizkari-ko zuzendaria kartzeleratzeko. 1983ko apirilaren 16an izan zen hura. Langraitzeko kartzelan bederatzi hilabete pasa ondoren, kalera atera zen. Erauskinen epaiketa izan baino bost egun lehenago, Xavier Vinader kazetari kataluniarra akusatuen tokian eseri zen Entzutegi Nazionalean, 24 urteko kartzela-zigorra eskatzen zion eskaera fiskalari aurre egiteko. Ebazpena jakinarazi ondoren, profesional honek erbestera jo zuen. Handik gutxira, bere burua entregatu eta kartzelara joan zen.

Trantsizio politikoaren garaian, epaileek 400 prozesu ireki zituzten Estatu osoan beste hainbeste kazetariren kontra⁵. Euskal Herrian *Egin* egunkariko zuzendari ezberdinek ongi asko ezagutu dute epaitegietako giroa, ehundaka aldiz joan behar izan baitute 1977tik gaurdaino. Kazeta honetako beste

erreportari batek, Pepe Rei Rodríguez-ek, Carabanchelgo kartzela hiru hilabetez ezagutzeko aukera izan zuen 1994an, *ETAr* laguntzeaz akusatutik. Une honetan baldintzapeko askatasunean dago.

Kasu hauen eta beste hainbaten inguruan —irradi-emisorren lizentzia-banaketa, publizitate instituzionalaren banaketa, *Euskaldunon Egunkaria*-ren egoera, medio publikoen erabilpen alderdikoia...— gertatu diren irregulartasunak salatzeke 1993an 50 kazetari eta Unibertsitateko irakasleek *Adierazpen Askatasunerako Plataforma* osatu zuten (ik. *Jakin-81*, martxo-apirila 1994).

Bestalde, azken hilabeteotan kazetarien eta ezker abertzalearen arteko tentsioa puzten joan da etengabe. Enfrentamendu honek ez du —epe laburrean behintzat— konponbide jakinik.

GIBELSOLASA

Honako hauek dituzue lantxo honen ondorioak:

- *Gaur egun Hego Euskal Herriko parametro informatiboak Frantziako eta Belgikako herriekin parekatu daitezke. Hedapen-indizeari eta irakurle-kopuruari begira Estatuko lehen nazionalitatea izan arren, gure baloreak nahikoa urrun daude oraindik Europako batezbestekoetatik.*

- *Gaur egun Euskal Herrian dagoen sistema informatiboak ez du zerikusirik 1975ean zegoenarekin. Duela hogeitun urte diktadurak beremende bazituen mezubide guztiak, uneon dugun egoera honetan, sistema informatiboaren mugak merkatuaren legeak ezartzen ditu. Adierazpen askatasunari begira, aurre-rapausoak gertatu direla ukatu ezin daitekeen bezala, ezin da oharkabe pasa ere bi euskal kazetarik —Javier Sanchez Erauskin-ek (1983) eta Pepe Rei-k (1994)— kartzela-zigorrek jaso dituztela bitarte honetan, beren lana profesionaltasunez betetzeagatik.*

• *Euskal prentsan egon diren aldakuntzak aldagai soziologiko eta kazetaritza-irizpideetan oinarritu dira, eta ez hainbeste politikoetan.* Horren adierazle garbia dira 75-85 eta 85-95 hamarkadetan sumatzen diren aldaketak. Berauetan, garbi asko gelditzen da gora-behera politikoez lehenengo hamarkadan lortu ez zutena —prentsa-ren kontsumoa igotzea, hain zuzen—, bai lortu dutela aldagai soziologikoez (erosteko ahalmenaren hobekuntza, emakumearen sarrera lan merkatuara...) eta periodistikez (gero eta egunkari hobekoak egiten dira) bigarren hamarkada honetan.

• *Nazio-ikuspuntutik, gure sistema informatiboa ahula eta gorpuztu gabea dugu, naziotasunaren aldarrikapena egiten duten kazetak —arazo politikoak, ekonomikoak ala biak batera direla medio— egoera larrian baitaude. Gure artean nagusi dira euren lurraldetzat Espainia hartzen duten egunkariak.*

• *XXI. mendeari begira, etor litezkeen aldaketak hiru aldagai hauetan oinarrituko dira: teknologia, merkatua eta espezializazioa.* Informazioaren autopista erraldoien atarian gauden honetan, ondorengo urteotarako iragartzen zaigun sistema informatiboa balore kontserbadoretan eta post-modernistetan oinarrituko da ziurraski. Testuinguru horretan, naziotasunaren aldarrikapena egiten duten euskal medioek erronka gaitzari aurre egin beharko diote datozen urteotan. Gauza bera esan liteke gizarte-eredua errotik aldaeraztea proposatzen duten medioei eta sektoreei buruz, beraien mezuak ez baitira erakitzen ari den *eredu sozial eta informatibo berri* honen gustukoak izango.

Aipamen bibliografikoak

- ASKOREN ARTEAN, «Adierazpen Askatasunerako Plataforma», in *Jakin*, 81. zenbakia, martxo-apirila, 1994. Donostia.
- ASKOREN ARTEAN, *Los medios de comunicación en el País Vasco*, César Coca eta Florencio Martínez irakasleen gidaritzapean osaturiko liburukia, EHUKo Argitalpen Zerbitzua, 1993, Leioa.
- CAMINOS, José, *Transformación de la prensa en Guipúzcoa. La transición política*, doktorego tesia, EHUKo Argitalpen Zerbitzua, 1993, Leioa.
- CIES, *Estudios de audiencia de medios de la Comunidad Autónoma Vasca y Navarra (1984-1994)*, 1995.
- CHEVAL, Jean-Jacques, «Los medios de comunicación social en Aquitania», in *Imágenes recíprocas en los medios de comunicación social (Francia-España / Aquitania-Euskadi)*, Josu Bilbao eta Jean-Michel Desvois irakasleen zuzendaritzapean osatutako liburua, EHUKo Argitalpen Zerbitzua, 1993, Leioa.
- DIAZ NOSTY, Bernardo, «Los medios en el sistema rector», in *Comunicación social 1994/Tendencias*, Fundesco, 1994, Madril.
- MATTELART, Armand, «La comunicación es demasiado importante para dejarla a la lógica del mercado», in *Fundesco*, 146. zenbakia, 5. orr.
- ZALLO, Ramón, *Estructuras Industriales, gasto público y política cultural en el País Vasco* ikerlana, EHU-UPV, 1994, Leioa.

Oharrak

1. Datu gehiago nahi izanez gero, Espainiako Kultura Ministerioak 1985ean Kultura ekipamendu, praktika eta kontsumoei buruz egin zuen inkestara jo behar da. Dena dela, gaiari buruzk berri zabala, Ramon Zallo EHUKo katedradunak 1994ean burutu zuen ikerlanean aurki daiteke (*Estructuras industriales, gasto público y política cultural en el País Vasco*, 376-383 orr.).
2. Hedapen-indizea, mila pertsonako saltzen den egunkari-kopuruari esaten zaio. Egunkariaren kasuan, hedapena edo difusioa kazeta horrek egunero saltzen dituen ale-kopurua da. Tirada beste zerbait da: argitalpen batek (egunkariak kasu honetan) kaleratzen dituen ale-kopurua, hots, errotatibatik ateratzen diren kazetak. Audientzia, berriz, argitalpen horrek dituen irakurle-kopuruari esaten zaio. Hiru kontzeptu hauek —hedapena, tirada eta audientzia— behar bezala bereiztea komeni da.
3. Estimulu horiek salmentetan zenbaterainoko islada duten jabetzeko, *Egin* egunkariak azken urteotan izan duen promozio-politika aztertu behar da. 1993an, adibidez, kazeta honen kontrako boikot politikoa eta ekonomikoa gori-gorian zegoelarik, berau izan zen Hego Euskal Herrian salmentetan gehien igo zuen egunkaria (%10,9). Estatu osoan, hazkundearen *ranking*ean, urte horretan, hamargarren tokian azaldu zen, *ABC* eta *El Mundo Deportivo* bezalako kazeten aurretik.
4. Leialtasun hori gero eta handiagoa da. 1977-87 bitartean HBko botoak gora joan ziren arren, *Egin*-en salmentek behera egin zuten. 1988tik hona HBko botoak behera doaz, baina *Egin*-ek gero eta kazeta gehiago saltzen ditu.
5. Madrilgo Kazetarien Batasunak eta Adierazpen Askatasunaren Aldeko Batzordeak emandako datuak dira (ik. 1983ko ekainaren 6ko prentsa).

IREKITZE ETA IXTEAK: BURUALDE BERRIAK

JOSE MARIA CAMINOS

Trantsizio politikoari buruz jarduteak, informazioak aparteko toki berezia hartuko duen garai historiko berri baten erdian, komunikabideek jokatu zuten egiteko garrantzitsua jasotzera behartzen du nahitaez. 1975etik hasita —data hone-tan esan genezake hasten direla lehen une bateko aldaketa demokratiko lotsatiak—, komunikazioak, ikuspegi orokorrean begiraturik, oso funtsezko aldaketak izan zituen. Kuantitatiboki zein kualitatiboki, «*duela ehun urte (1880 inguruan), egunkarien garapenak, une hartan jende-masaren fenomenoak nahiz merkatuak adierazten zuten fase goren berri batera eramantzen zuteneko*»¹ haren pareko eraldaketak.

Trantsizio politikoaren hasierako prentsak gutxi edo batez ere zerikusirik ez du 1985ekoarekin. Hamar urte horietan, eguneroko prentsa idatzia oso aldaketa sakonetan sartua egon zen, eta honek eragina izan zuen haren barne-egituretan, informazioaren trataeran eta, aldaketa politikoak gertatzen zirena abiada berean merkatuan agertzen eta desagertzen ziren burualdeen kopuruan bertan.

1975ean zegoen prentsari ez zitzaion iraultza egitea beste irteerarik geratu; ez aldatuz joatea soilki, argi eta garbi egiturak eraldatzea baizik, komunikabide berrien lehiari erantzuteko. Komunikabide berriak, bestalde, gizartean burutzen ari ziren aldaketetako joeren berri jasotzeko irrikaz zegoen gizartearen erdian, informazio-esparru bat bilatu beharraz plazaratu ziren merkatuan.

Trantsizio politikoan zehar prentsan gertatu ziren aldaketa zenbait, estatu-mailako izaera zuten komunikazio-taldeen eraldaketek Euskadin izandako ondorioen emaitza izan ziren. Estatuko Gizarte-Komunikabideen Katea —lehenago Mugimenduko Prentsa deitua— desagertzeak eta geroagoko pribatutzeak, hala, goizeko *La Voz de España*-ren eta arratsaldeko *Unidad* eta *Hierro*-ren desagertzea erakarri zuen.

Beste aldaketek komunikabide zahar eta berrien etengabe-ko irekitzea eta ixtea bera ere erakarri zuten. Trantsizio demokratiko bete-betean azaldu ziren eta gure egunetarin irautea bermatu dien informazio-eremu bat behin betiko eskuratzea lortu zuten komunikabide berrien irekitzea, hain zuten. Honela, 1977an *Deia* eta *Egin* atera ziren merkatura, euskal nazionalismo moderatuarekin eta erradikalarekin zerikusia zuen eta une hartako komunikabideek ohiz baztertua zeukaten informazio-eremu bat betetzera. Baita, edonon zen *Diario de Navarra*-rekiko lehiatik, informazio-eremu propioa bilatu zuten *Navarra Hoy* bezalako egunkarien irekitzea ere, edo *La Voz de Euskadi*-rena: UCDko Gobernuak itxitako Mugimenduko Katea erregunkari gipuzkoarra zen *La Voz de España* 1983az gero ordezkatu zuena.

Izan ziren baita ixte ugari ere, denak ezinbestekoak informazio-lehia itxiगतik edota, ohiko egunkarietan aurkitzen ez

zuena, lehiakideen komunikabideetan bilatzen zuen eta pixkana-pixkana informazio-eskaintza zahar eta berrien inguruan finkatuz zihoan irakurleagoak osatutako merkatu aldakor haren erdian finkatzeko zailtasun handiagatik.

La Gaceta del Norte-rena bezalako ixteak, esate baterako: euskal informazioaren gailurrean egon izanik, euskal gizartean gertatzen ari ziren aldaketa sakonetara egokitzen ez jakiteagatik, erremediorik gabe hondoratu zen prentsaren porrotik ikusgarri eta eredugarriena. Edo *La Voz de Euskadi*-rena bezalako ixteak: irakurleago gipuzkoarraren erdian txoko egonkorra bereganatu ezin edo asmatu ez zuena, inkestek itxaropenezko etorkizuna iragartzen bazioten ere; edo *Navarra Hoy*-rena bezalakoak: gorabeheraz eta polemikaz betetako bizitzaren ondoren, desagertuz amaitu zuen, birmoldatu eta merkatura berriro *Diario de Noticias* izenaz itzultzeko. Baita Gipuzkoako eta Bizkaiko *La Hoja del Lunes*-en itxiera ere: prentsa pribatuaren informazio-estrategia berrien lehiari ezin izan baitzioten aurre egin, hura, bere ekonomi proiektuak azkarrago eta eraginkorrago errentagarri egiteko, astelehenetako merkatura atera zenez.

Euskal informazio-ingurunea eratu zuten irekitze eta ixte hauek datozen orriotan gaingiroki aztertzen ahaleginduko gara.

MUGIMENDUKO KATEAREN IXTEA

Mugimenduko Prentsa-katea desagertze-bideari, trantsizio politikorantz jotzen zuten lehen aldaketetatik ekin zitzaion. Unión del Centro Democráticok hauteskunde nagusietan lortutako garaipena eta hilabete batzuk geroago, komunikabide publikoekiko estrategiaren abiapuntu izango zena erakusten hasi zen alderdi politiko hau.

1979ko ekainaren 18ko Estatuko Buletin Ofizialak ekainaren 16ko 1.434/1979 Errege-Dekretua kaleratu zuen eta, horren bidez, Estatuaren Gizarte-Komunikabideetako langileria-egoera eratze arauak xedatzen ziren, bertara adskribatutako egunkariak berregituratzerakoan edo deuseztatzerakoan.

Egunkariak ixteko politikari bide ematerakoan Gobernuak erabilitako argudioa, ez zen egunkarion egoera ekonomikoa besterik izan. Urte batzuk geroago Gipuzkoan intentzio osoz erabiliko du argudioa bera, *La Voz de España* eta *Unidad* ixteko.

Mugimenduko Prentsa-Kateko egunkarien ixtak ondorio biziki garrantzizkoak izan zituen euskal prentsan, Gipuzkoakoan nagusiki, *La Voz de España*-ren desagertzea ekarri baitzuen: herrialde horretan, egunkarien hedapenari dagokionez, bere historia guztian buru izan zen egunkaria, betiko lehiakidea zuen *El Diario Vasco*-ren gainetik.

Bestalde, arratsaldeko egunkarien desagertzea ekarri zuen Euskadin. 60ko urte inguruan gainbeherakadari ekin zion prentsa, irratia eta telebista modu eraginkorrean informazio-mundura sartu zirenez gero. Hala desagertu ziren *Unidad* eta *Hierro* eta, hauekin batera, arratsaldeko euskal egunkariak, 1983an oso une laburrez *La Tarde de Euskalherria* merkatuan agertuko bazen ere, baina hain bizitza laburrekoa, ia inolako eraginik ez izateraino euskal komunikazioan.

Hierro egunkaria 1937ko uztailaren 5ean azaldu zen merkatu bizkaitarrean eta 1938a arte, *Euzkadi* inprimatzen zen Bilbo-ko lantegi berean argitaratu zen. Bere bizitzako lehen urteetan, zenbait euskal komunikabideren jabetzako leku ugarian argitaratu zen 1950a arte, Falangeak Orueta Apezpikua kaleko 2 zk.an Indalecio Prietoren seme Luis Prietoren etxea bereganatu zuen arte.

Mugimenduko Kateko komunikabide gehienekin gertatu zen bezala, *Hierro* arratsaldekoak ia ez zuen aldaketa aipagarriarik egin, ez teknologikorik ez informazioarenik, ia desagertu zen unea arte 1983an. Maindire-formatoari eta orrialdeko tartearen bost zutabeko banaketari bere egunen azkena arte eutsi zion. Hauen inmobilitatea hain gehiegiko mailara iritsi zen, aldaketa aipagarri bakarrak burualdeko tipografiari soil-soilik eragiteraino. Hala, Begoña Zalbideak dioenez, «1975eko apirilaren 20an, une hartan egunkariko zuzendari zen Julio Campuzano Canterok Informazio eta Turismoaren Ministerioaren probintzi ordezkariari adierazi zion, aipatu hileko eta urteko datuz *Hierro* markak estiloa eta estetika aldatzen zuela. Hala dei-

turiko euskal kaligrafia erabiliko zuen, karaktere edo tipo 'trin-koak' erakutsiz, inprimaketa hobia lortzarren».

Bestela, ez zuen ia ezer aipagarririk ekarri euskal informazio-bizibidera. Zerbait adieraztekotan, hau esan beharko litzateke: bera izan zela Euskal Herriko lehen egunkaria «*lan-informazioa era apalean ematen hasi zena eta, oso bestelako ar-
lo bati dagokionez, Bizkaiko lehen egunkaria eskualde-mailako kirol-lehiaketei arreta ematen*»².

1983ko otsailaren 14an itxi aurretik, herioak dagoeneko joa eta 5.000 ale besterik zabaltzen ez zituenean, salmenta iragarri zen ageriko enkantean, Mugimenduko Kateko komunikabide gehienekin gertatu zen modu berean; baina Indalecio Prietoren ondorengoek onibarraren gain galdapena egina zutenenez, bertan behera utzi zen enkantea eta onibarra azkenean lehengo jabeai itzuli zitzaien.

Hierro-k bere historian zehar eraman zuenaren antzeko politika inobilista bete zuen *Unidad*, arratsaldeko egunkari gipuzkoarrak. Merkatuta 1936ko irailaren 16an atera zen, Falangeko soldaduek onibarra, makineria eta lantokiak hartu ondoren eta bere informazio-ibilbideko lehen pausoetatik Falange alderdiaren aldizkari ofiziosoa bihurtu zen.

Lehen instalazioak Victor Pradera kalean egon ziren eta Prensa Editorial Católica S.A.-renak ziren; eta 1970az gero Jose Maria Soroa kaleko lokaletan, *La Voz de España*-ren partaide izan zen. Egunkariaren azken zoria *La Voz de España*-k eraman zuen patuaren eskutik joan zen, egun berean desagertu baitziren, bi komunikabideak ixteko UCDko Gobernua ren-erabakiaren ondoren. 1980ko otsailaren 11n desagertu zen.

1975ean, lehen aldaketa politikoak hasten ari ziren une berean, *Unidad* arratsaldeko egunkaria Mugimenduko Prentsa-Kateko egunkari defizitarioen talde handiko bat gehiago zen eta 11.118 aleren hedapenari eusten zion. Arratsaldeko egunkari guztien beheerako joeratik at ez zegoen atzerakadak jotako patua.

Norte Express arratsaldeko egunkari arabarrak ere ezin ihes egin izan zion patuari. 1967ko martxoaren lehen kaleratu zen lehen aldiz, Oriol sendiari lotutako eta zantzu tradizionalista-

ko egunkari izatetik erabat frankista izatera heldutako *Pensamiento Alavés* egunkariaren ordekoa. Porrotaz amaitu zuen *Pensamiento Alavés*-en txanda hartu zuen eta honengandik jaso zuen baita haren zantzu frankista nabarmena ere. Bizirik iraun zuen bitartean, Oriol sendiari eta Fournier sendiari lotua egon zen, Arabako Aurrezki Kutxekin oso harreman estuak izateaz gain.

Egunkari honen historiak ez du gauza nabarmenegirik. Inoiz ez zen iritsi 8.000 ale baino hedapen zabalagora eta ez zuen bizirik ateratzerik lortu, *El Correo Español-El Pueblo Vasco*-ren edizio arabarraren ondorioz, eraman behar izan zuen lehiatik; honek 1945ean hasi zuen eskualdeko edizioa Arabarako eta geroago, 1969an, lehia gogorriari ekin zion, merkatu arabarra bereganatzeko asmoz. *Norte Express*-ek lur jota amaitu zuen lehia oso gogor honen aurrean, 1982ko martxoaren 20an langileen grebara eraman zuen barne-gatazka batetik igaro eta gero, egunkariaren hedapenak 3.000 aleren kopurua gainditzen ez zuen unean.

Enpresariak eta langileak ez zuten akordio atsegingarririk lortu eta bi hilabete geroago, 1982ko maiatzaren 6an, negoziaketak behin betiko hautsirik geratu ziren. Egunkaria ez zen gehiago plazaratu eta Araba herrialde bakarra bilakatu zen Euskal Herrian bere komunikabide propiorik ez zuena. Egoera ezohikoa eta gure egunak arte berekin duena.

Hierro eta *Unidad* ez bezala, euskal gizartean garrantzizko eraginik izatera ez baitziren iritsi, *La Voz de España* ia bere historia osoan Gipuzkoako egunkari nagusia izan zen eta historia bitxiaren jabe bere «*La Voz*» izenaren inguruan, aldietan zehar luzatu baita eranskin berriez, izena osatzeko.

La Voz de España-ren sorrera antzinako *La Voz de Guipúzcoa*-n bilatu behar da, ideal errepublikazale moderatuaren egunkari defendatzailea, burgueseria gipuzkoarreko alderdi garrantzitsuen ordezkari ziren Frantzisko Goitia, Ramon Usabiaga, Benjamin Brunet, Benito Jamar eta Blas Eskoriazak 1855ean sortua.

1936ko irailaren 15ean azaldu zen *La Voz de España*-ren lehen alea, indar nazionalak *La Voz de Guipúzcoa* izan zenaren

makineria, etxea eta mantxeta bahitu eta gero. 1937an Mugimenduko Prentsa-Kateak argitaratutako egunkarien taldekoa izatera igaro zen, postulatu falangistak biribilki defendatuz. Hala ere, bere bizitzako lehen urtean egunkari tradizionalista izan zen nabarmenki.

Urte askoan egunkari liderra izan zen egunkari gipuzkoarren merkatuan, *El Diario Vasco*-rekiko lehia estuan. Iraun zuen denboran zehar, gainera, Mugimenduko Kateko egunkaririk errentagarrienetakoa bilakatu zen.

La Voz de España-ren ixtea 1980ko otsailaren 17an gertatu zen; ekonomi ikuspegi hertsitiki arrazoirik ez zuen itxiera; alderantziz, neurri politikoa izan zen —eta protesta ugari jaso zituen gizarte gipuzkoarraren aldetik—, gizartean bizitzen ari ziren aldaketa sozialetara egokitzen eta une politiko korapilotsu haren erdian informazio-bide berrietan aurre hartzen asmatu zuen komunikabide baten aurkakoa.

1977ra iritsi arte *La Voz de España*-ren egoera hain zegoen finkatua, une hartan hala deituriko «Kateko batekoen poker»-eko bat izateraino, Alacanteko *Información*, Oviedoko *La Nueva España* eta Valentziako *Levante* egunkariekin batera. Finantza-egoera on horren lekuko dira 1968tik 1977a arte sortu zituen 600 milioitik gora pezetak; etekin hauek, bestalde, ez ziren egunkarira itzuli teknologia berritan eginiko inbertsiotan.

La Voz de España-ren eta, hori zela-eta, *Unidad*-en itxiera UCDko gobernuak, gizartean gertatzen ari ziren aldaketekin batera ibiltzen asmatu eta gerra zibileko faxisten garaipenean jatorria izan zuen estatu-prentsako katearen ahotan pentsaezinak ziren informaziotara bere orrialdeak zabaldu zituen Mugimenduko Kateko komunikabide honentzat prestatua zuen zigorra.

LA HOJA DEL LUNES-EN DESAGERTZEA

Trantsizio demokratikoan gertatutako beste informazio-aldaketa garrantzitsuak kirol-informazioan izan zuen eragina; eraldaketa sakonak eman ziren esparru honetan, bai gai hauek

bereziki ukitzen zituzten zenbait egunkariri —*La Hoja del Lunes*-ak— dagokionez, bai komunikabideek eginiko kirol-gaien informazio-trataerari dagokionez.

La Hoja del Lunes-ak langileek bere garaian lortutako arrakastarik handi eta oinarrizkoenen gauzatzetik sortu ziren: 1925ean eratuta geratu zen igandeko atsedenetik, alegia. Lorpen honen ondorioz, kazetaritzako enpresek astelehenetako edizioak argitaratzeari utzi zioten, igandeko atsedena ziurtatzeko.

Kirol-informazioa trantsizio politikoan gaiaritzeak *La Hoja del Lunes*-en aipamena egitera behartzen du nahitaez: Prentsa-Elkarteen kontrolpeko komunikabide eta kazetariak beren komunikabideetan igandeko atsedena izatea ziurtatzeko baliagarri zirenak, alegia.

Astelehenero eskusibitate-zantzuz agertzeak bazuen bere alderdi oso garrantzitsua: lehiarik ez izatea merkatuan. Baina eskusibitate hau *La Hoja del Lunes*-en alderdirik negatiboenetako bat ere gertatu zen: beste kideekiko lehiak ematen duen motibaziorik gabe, ekimenik gabeko informazio-politika eraman zuten.

1982ko irailaren 27an *Deia* egunkari nazionalistak zabaldu zuen atea eta plazaratu zen lehenengoz euskal prentsan astelehenetako merkatuan. Kolorezko azalez eta «Extra Deia» izena zuen 16 orrialdeko kirol-koaderno bereziaz, egunkari honek jarri zuen Euskal Herriko *La Hoja del Lunes*-ak desagertzeko lehen oinarria. *Deia* astelehenetako merkatura atera zenez gero, egunkari lehiakideek ordura arte eramandako informazio-politika birplanteatu zuten eta lehia biziari ekin zioten baikoitzak bere edizioa astelehenetako merkatura ateratzearren.

Bi komunikabideok, ia urtebetez *La Hoja del Lunes de San Sebastián* dagokionez eta 18 hilabetetik gora *La Hoja del Lunes de Bilbao*-ri bagagozkio, eguneroko prentsari lehia egiten saiatu ziren, astelehenetako kirol-merkatua berenganatzeko asmoz. Hala ere, komunikabideok ez zeuden prestatuta, merkatuaren aldeko halako borroka gogorrari arrakastaz aurre egiteko.

Egitura zaharkituak zituztenez bai ikuspegi teknikatik eta informatibotik, ezin izan zuten Euskal Herriko kazetaritza-merkatuan beren txokoaren bila zegoeneko urte batzuk zeramatzaten egunkari bizkorren presio gogorra jasan. Azkena halaberrekoa zen eta merkatutik desagertuz amaitu zuten. Beren ospe handiko urteetan 100.000 ale inguruko hedapena, orri bilbotarrari dagokionez, eta ia 80.000 alerena, orri gipuzkoarrari dagokionez, lortu zuten Donostiako *La Hoja del Lunes*-ek eta Bilboko *La Hoja del Lunes*-ek, azkenera eraman zituen beherako joera oso azkarra hasi zuten. Hedapenaren porrotaren ondoren, errentagarri bihurtu ezina hasi zen eta, ondorioz, ekonomi egoera eutsi ezina egin zen eta, merkatuan irauarazteko ahalegin guztiak gorabehera, desagertuz bukatu zuten. *La Hoja del Lunes de San Sebastián*-ek itxi zituen ateak, lehenik, 1983ko ekainean eta sei hilabete geroago, 1984ko urtarrilean, *La Hoja del Lunes de Bilbao*-k gauza bera egin zuen.

Trantsizio politikoak eta aldi politiko horretan merkatuan azaldu ziren komunikabide berriekiko eta finkapenaren eta informazio-nagusitasunaren borrokan ari ziren iraganeko komunikabideekiko lehia gogorrek informazio-arloko igandeko atsedenaldiaren tradizioa desegin zuen: urte haietan 50 urte baino gehiago betetzen zituen lorpena.

INERTZIAREN PORROTA

Trantsizio politikoak eta hortik eratortzen diren aldaketek benetako iraultza sortarazi zuten komunikabideetan. Aldaketak hasi aurretik merkatuan zeudenengan, informazio-egiturak gizarte-joera berrietara egokituz joateko. Aldi politiko horretan sortu ziren komunikabide berriengan, esparru egonkorra bilatzeko merkatuan, lehiakide zituzten egunkarien entzulegoa berenganatuz.

Komunikabideek urte horietan bizi zuten halako egoera korapilotsuaren erdian, irekitzeak eta ixteak eguneroko gauza ziren komunikazioaren munduan. Egunkari berrietako asko ez ziren merkatuan irauteko gauza izan eta porrot eginez amai-

tu zuten. Beste batzuek, ordea, garatzen ari ziren gizarte-egoe-
ra berrietara egokitzeko gauza ez izateagatik egin zuten porro t.
Bere informazio-orrialdeak aldaketetara egokitzeko zabaltzen
asmatu ez zuten Euskal Herriko komunikabide historikoen ere-
durik adierazgarriena *La Gaceta del Norte*-rena izan zen.

Itxi zen unean, *La Gaceta del Norte* kazetaritza bizkaitarre-
ko egunkaririk zaharrena zen. 1901ean hasi zen argitaratzen
eta desagertuz amaitu zuen 83 urte geroago, aldaketa-garaiek
gomendatzen zuten malgutasunari ez zegokion informazio-zu-
runtasunaren ondorioz.

La Gaceta del Norte-ren kasuan bitxia gertatzen da trantsi-
zio politikoan zehar egunkariak mantendu zuen eklektizismoa
eta, alderantziz, diktadura frankistaren azken urteetan era-
kutsi zuen zabaltasuna: inertziara emanegia zegoen egunkariari
haize garbia, ekimena eta burutapen berriak ekarri zizkioten
Nafarrako Unibertsitatetik zetozen kazetari gazteak kontrata-
tuz.

Enpresa-politika malgu hau kontrastean zegoen trantsizio
politiko osoan zehar gauzatu zuenarekin eta jaso zuen porrot
biribilaren oinarritzko zergatia izan zen. Trantsizio demokrati-
koan, izan ere, informazio-eskaintza zabaldu ordez, nazionalis-
moaren aurkako jarrera trinkoak, erregionalismoaren azke-
nerainoko babesak eta postulatu katolikoen babes ia militan-
teak markatutako sorrera-oinarriak berretsi zituen. Inolako
aldaketarik gabe, 1980a arte iraun eta Manuel Gonzalez Baran-
dianaren zuzendaritzarekin batera gertatu zen aldia.

60ko hamarkadan 100.000 ale inguruko kopurura iritsiz,
zenbait hamarkadaz hedapenik handieneko euskal egunkaria
izan zen *La Gaceta del Norte*-k 70eko hamarkadan beherako joe-
rari ekin zion eta 1979an heldu zen kopururik txikieneko une-
ra: hedapenak ez zuten urte horretan 40.000 aleren kopurua
gainditzen.

1980tik aurrera, eta beherako joera bazterrezina zela-eta,
Manuel Gonzalez Barandiaranek utzi egin zuen egunkariaren
zuzendaritza eta informazio-estrategiaren aldaketa-aldi bati
ekin zitzaion, baina ez zen lortu, ez egunkariaren norabidea zu-

zentzea, ez halabeharrekoa zena eragozte. 1984ko maiatzaren 6an, sortu eta 83 urte geroago eta 28.190 ale argitaratu eta gero, enpresa argitaratzaileak *La Gaceta del Norte* argitaratzearen azkena itundu zuen langileekin eta Fernandez de Bobadilla enpresari errioxarrak bereganatu zuen.

Gorabehera ugariren ostean —eta, hauen artean, enpresako akzioen % 50a eskuratu, baina formalki kanpoan geratu zen EAJren kontrola aipagarri— ateak itxiz amaitu zuen 1987an, egunkaria onik ateratzeko azken ahalegin gisa, EAJren babespean gidaritzan jardun zuten Gregorio Moranek eta Kepa Bordegaraik gidatutako azken aldi gorabeheratsuaren ondoren.

La Gaceta del Norte-ri gertatutakoaren antzekoa gertatu zen Nafarroan *El Pensamiento Navarro*-rekin; hau ere gizartean ematen ari ziren aldaketa politikoetara egokitzen asmatu ez zuen egunkaria eta bere ibilbide luzeari 1981eko azaroaren 13an amaiera eman ziona, merkatuan 84 urte egin ondoren.

El Pensamiento Navarro 1897ko urriaren 17an jaio zen egunkari tradizionalista gisa, *La Lealtad Navarra*-ren itxierak utzitako eremua betetzeko. 1900ean desagertu egin zen, zirkulu karlisten itxieraz eta hauen prentsa guztiaren deuseztatzeaz amaitu zen Weyler jeneralaren ekitaldiaren ondoren Katalunian.

Katolizismoaren banderaren zaintzaile leial izateko jaio eta eliz zentsurapen menpe zegoen arren, azken aldian eliz hierarkiari kontrajarria egon zen eta borroka izan zituen honekin. Azkenean, ezin izan zion *Diario de Navarra*-rekiko lehia gogorrari eutsi eta trantsizio demokratikoa ondo amaitu eta gero bukatu zuen, garaiko informazio-aldi berrietara egokitzen asmatu gabe.

KOMUNIKABIDE BERRIEN KRISIALDIA

La Voz de España itxi eta gero, komunikabide horretako langile-talde batek *La Voz de España*-ren errautsetatik jaiokozen informazio-proiektu berri bat merkatura ateratzeko el-

karte eragilea osatu zuen. Hala kaleratu zen 1983ko maiatzaren 25ean *La Voz de Euskadi*, euskal kazetaritzan langileen sozietate anonimoak zuzendutako lehen egunkaria.

Egunkariaren lehen alean, komunikabide berriaren oinarri-aitorpena argitaratu zen eta bertan, gizarte gipuzkoarreko osotasunaren zerbitzu hutsera jartzeko xedeaz jaiotzen zela adierazten zen; horretarako, ezinbestekotzat jotzen zen proiektu berri honen kapital guztia langileen esku egotea.

Euskal prentsaren historian ezohikoa zen gertaera honek, proiektuaren talde eragilearen ustez, talde politikoen nahiz ekonomikoen presioetatik at zegoen egunkariaren independentzia bermatzea ekar zezakeen.

Jokabide independente hau bermatzeko, editorialik gabe eta euskal gizarteko politika-, kultura- eta gizarte-sektore desberdinen ikuspegiak, inolako bazterketarik gabe, jasotzen zituen iritzi-orri bat zeramala jaio zen egunkari berria.

La Voz de Euskadi-k 1985eko martxoaren 7an utzi zion argitaratzeari, merkatura 637 ale atera eta gero. Azken alean proiektua ixtearen zergatiak azaltzen ziren eta, hauen artean, egunkariaren ekonomi eta finantza-porrota eta Estatuko instituzioetatik kreditu-bide ofizialetara sartzeko jartzen zitzaizkien oztopo handiak aipatzen ziren. Era berean, egunkari berriaren informazio-estrategiak bereganatu nahi zuen gizarte-eremu ia osoa jada hartua zuen kalitate handiko komunikabide bat bazegoela Gipuzkoan azpimarratzen zen.

La Voz de Euskadi ixtearekin batera, itxirik geratu zen ia 50 urte lehenago *La Voz de España*-ren lehen alea plazaratu ondoren jaiotako euskal prentsaren egunkari historikoetako baten historia.

Tribuna Vasca dugu trantsizio politikoko aldi labur bat nola edo hala informatiboki bete zuen bizi laburreko beste egunkari bat. *Tribuna Vasca* PSOEek finantzatutako eta kontrolatutako kazetaritza-ahalegina izan zen: aukera nazionalistek baikoitzak bere egunkaria zutela ohartuz, bere eraginpeko egunkaria bidean jarri nahi izan zuen.

Bilbon jaio zen 1982ko martxoaren 9an, PSOErekin uztartutako ehunen bat pertsonak erabat izenpetu zuten 10 milioiko hasierako kapitalez. *La Gaceta del Norte*-ren inprimategian argitaratu zen beti, begi onez onartzen zuenez egunkariaren plazaratzea, ekonomi luzapidea bidera baitziezaiokkeen bere finantza-egoera hondatuari. Hasiera batean *El Liberal* izenaz kaleratzeko asmoa izan zuten, baina Indalecio Prietoren sendiak ez zuen utzi nahi izan mantxetaren gain zituen eskubideak.

Hasieran Eduardo Sotillosek zuzendu zuen: honek eman zion lehen abiada eta bederatzi hilabete geroago utzi zuen. Azken aldiari Fermin Goñik eta Jose Manuel Alonsok zuzendu zuten; azken hau izan zen ixteaz arduratu zena 1983ko uztailearen 15ean. 5.000 aleren gailurra inoiz gainditu ez zuen egunkariaren 16 hilabeteko abentura.

Navarra Hoy dugu trantsizio demokratikoan jaio, merkaturatu iraun, baina proiektuaren iraupena ziurtatuko zion behinbetiko gorakada lortuko ez zuen prentsaren beste eredu bat.

1982ko maiatzaren 23an atera zen merkatura, *El Pensamiento Navarro*-k itxi ondoren eta, proiektuaren eragileek bere garaian adierazi zuten bezala, irakurleko aurrerakoiek eta *euskaltzalasunetik* gertukoek mugatutako informazio-eremua biltzeko asmoz. Lehen alearen editorialean argi eta garbi ageri dira egunkariaren informazio-gogoak: inolako ideologia politikotik at, Konstituzioak gidatua eta «neurrikotasun, ulermen eta aniztasunetik hurbil» dagoen egunkaritzat aurkezten du bere burua.

Une gorena 1984an izan zuen, merkatura atera eta bi urte geroago; une horretan lortu zuen hedapenik handiena, 14.556 aleko OJDaz. Handik gutxira, ordea, ekonomi krisialdi handian sartu zen eta OJDtik irtenez amaitu zuen, bere publizitate-merkatuan zatiren bati eusten saiatzeko.

Proiektua, lehen *La Hoja del Lunes de Bilbao*-ko eta *Deia*-ko zuzendaria izan zen Alfonso Ventura zuzendariak jarri zuen abiadan, giza eta teknologi baliabide nahikoa urriz; azken hauek, egun haietan desagertu zen *Diario de Asturias*-etik zetozenak.

Navarra Hoy-ren historia, inoiz gainditu gabeko ekonomi arazoz betetako eta egunkariaren nondik norakoa markatu zuten komunikabideen ohikoa dugu.

Merkatura atera eta urtebete geroago, Alfonso Venturak utzi egin zuen zuzendaritza eta Jose Antonio Montónek ordezkatu zuen; hau 1986a arte egon zen gidaritzan. Montónek bizi zuen egunkariaren une gorena 1984an eta hurrengo bi urteetan krisialdi sakona etorri zitzaion gainera; egunkaria, krisialdi sakonetik ateratzeko, PSOEngana hurbildu zen ideologikoki eta Nafarroako Gobernuaren 40 milioiko diru-laguntza jaso zuen, Gabriel Urralburu lehendakari zela.

1986ko azaroan gertatu zen bigarren txandaketa egunkariaren zuzendaritzan, Xabier Zabaletaren eskuetara igaroz; honek egunkariaren forma-modernizatzea zela-eta batik bat nabarmendu zen aldia bete zuen. Xabier Zabaleta 1989ko martxoan Bilbora, *Gaur Express* zuzentzera joan zenean, zuzendaritza Jose Arrietaren eskuetara igaro zen, honek bienbitarteko izaeraz bete zuen kargua 1990eko apirila arte eta Juan Pedro Batorrek ordezkatu zuen data horretan.

Aldi honetan egunkarian aldaketa sakon ugari egin zen, merkatuan irauten saiatzeko. 1990eko uztailaren 18an, enpresa LSA gisara eratu zen legez. Hala ere egoera ekonomikoak ez zuen onera egin, okerragora baizik, 1993an Zeroa Multimedia enpresa egunkariaren aktiboen kargu egin zen arte, proiektu hau itxi eta berri bat martxan jartzeko asmoz. *Navarra Hoy* 1994ko otsailaren 21ean itxi zen behin betiko eta bi hilabete geroago, urte bereko apirilaren 8an, atera zen merkatura *Diario de Noticias*, emaitza txarrek gehiegi markatu zuten proiektua ordezkatu zuen egunkari berria.

PRENTSA NAZIONALISTAREN BULTZADA

Trantsizio politikoan zehar garaiko prentsaren egitura zaharkituak aldatu egin ziren eta egoera politiko eta sozial aldakorra jasotzea bideratzen zuten sail bereziak sartu ziren. Egunkariek sail bereziak sartu zituzten, euskal arazo politikoak,

ekonomi eta lan-informazioak eta euskarazko informazio-idazkiak lantzeko. Era berean, informazio-enpresak teknologi eraldaketa sakonei ekin zieten eta ateak ireki zizkieten euskal prentsan egindako lehen diseinuei.

Deia eta *Egin* egunkariak izan ziren aldaketa sakonok bultzatu zituzten motorrak. Une hartako eraldaketa politiko eta sozialekin bat egiten asmatu zuten bi egunkarion jaiotzak zirrara handia eragin zuen kazetaritzaren ingurumarian eta une hartako prentsaren funtsa gertatu ziren aldaketak eragin zituen. Areago: *Deia*-k eta *Egin*-ek ekarritako berrikuntzek iraun egin dute aldietan zehar eta gaur egungo euskal prentsaren informazio-ildoak oraindik ere darabiltzan ardatz bilakatu dira.

Trantsizio demokratikoan zehar prentsa nazionalista benetakoa erreferentzi gune bihurtu zen gainerantzeko euskal prentsarentzat eta, urte askotan, bi egunkariok markatutako informazio-ildoaren atzetik ibili zen.

Deia izan da trantsizio politikoaren bitartean jaio zen Euskal Herriko lehen egunkaria eta euskal nazionalismoko sektore moderatuengana zuzentzeko lehen asmoz sortu zen, baina Eusko Alderdi Jeltzalearekin identifikatzeari ihes eginez, alderdi horretako burukideak izan baziren ere egunkari berriren sortzaileak.

Denbora errekorrean kaleratu zen, zeren eta hiru hilabete soilen tartea baitago elkarre argitaratzailearen sorreraren eta egunkariaren irteeraren artean. 1977ko martxoaren 21ean eratu zen Iparragirre enpresa argitaratzailea eta egunkaria 1977ko ekainaren 8an atera zen kalera, elkarre eratu eta 98 egun geroago. Lehen hauteskundeak 1977ko ekainaren 15ean ospatzeak izan zuen zerikusirik proiektua martxan jartzeare n abiada apartekoan.

Iparragirre enpresa 40 milioiko hasierako kapitalaz eratu zen, 25 bazkide fundatzailearen artean izenpetua bere osoan. Geroago, eta proiektu berriaren herri-izaera areagotzeko, hasierako kapitala 1.000 pezetako harpidetzen bidez saldu zen. Hilabete batzuk geroago kapital-zabalkuntza bat izan zen, 600 akziodunek ekarritako 50 milioi pezetako zenbatekoan. *Deia*, ho-

nela, euskal gizarteko sektore nazionalista moderatuan ondo errotutako egunkaria bilakatu zen.

Egunkari berriak sorrera-oinarrietan puntuz-puntu informazio egiatiaren eta bakarkako eta taldeko giza eskubideen zaintzaile aldarrikatzen zuen bere burua, euskal gizartearen elkartasunezko aurrerabidea bultzatuz. Elkartasunezko aurrerabide hau, behin eta berriro aipatutako «*Euskal Herriko tradizioen, kulturaren, hizkuntzaren, politikaren, gizarte- eta famili bizitzaren eta bertako biztanle guztiak erakunde politiko-sozial, demokratiko, zuzen eta aurrerakoien barruan elkarekin bizitzea sustatzearen*»³ defentsa bezala hartzen zen.

Lehen unetik saiatu zen EAJrekiko loturarik gabe agertzen, akziodunen lehen taldean, gero, EAJren ordezk bezala, euskal politikan ardura handiko karguak bete zituzten pertsonak ageri baziren ere. Honela, bazkide fundatzaileen artean Jesus Duñabeitia, Mitxel Unzueta, Eli Galdos, Luzio Aginagalde, Sabin Zubiri, Luis Maria Retolaza, Karmelo Renobales eta Jesus Alkain aipa genitzake.

Deia-ren merkatura agertzeak euskal prentsan zirrara eragin zuen, Bizkaian nagusiki, eta bat-batean ezartzea lortu zuen bertan, ordura arte *La Gaceta del Norte*-ri edo *El Correo Español-El Pueblo Vasco*-ri zegozkien entzulego-sektoreen bizkar.

Horrez gain, trantsizio politiko bete-betean puntako teknologia zuela sortzen zen Euskal Herriko lehen egunkaria bihurtu zen. Euskal Herrian egunkaria inprimatzen zuen lehen errotatiba izan zuen *offset*-en, koloretan inprimatzea ere bideratzen zuen «Solna-Distributor» bat.

Merkatuan bete zuen lehen aldian, *Deia*-k erregimenari aurkakotasuna erakusten zioten iritzi politikoko joera guztien egunkari bateragilearen egitekoa hartu zuen. Aldi hau, hala ere, agortua geratu zen azkar asko, egunkariak euskal politikako gai garrantzitsuen aurrean erakusten zuen zehaztasun-ezagatik.

Ondoren, EAJk ordezkatzten zuen nazionalismo moderatua-rekin gero eta identifikazio handiagoa bilatzen zuen proiekturantz abiatu zen egunkaria eta, une berean, proiektuaren ekonomi finkapenera, zeren eta, indarrean eta azkar asko merka-

tuan sendotzeko adina inplantazioz jaio zen arren, defizitarioa baitzen garai hartan. *Deia*, honenbestez, merkataritza-proiektua errentagarri egin beharrak eta alderdi-militantziaren zuzenki elkartuko ez litzatekeen egunkariaren bokazio nazionalistak finkatzen zituzten koordinaden artetik joaten hasi zen.

Trantsizio politikoan jaiotako beste egunkari nazionalistari dagokionez, *Egin* 1977ko irailaren 29an atera zen merkatu-ara, Ardatza eta Orain enpresak sortu eta ia urtebete geroago. Egunkariaren inprimatzeaz eta merkaturatzeaz arduratzen zen Ardatza. Orain enpresa, milioi bana ordaindutako 11 akziodunek inbertitutako 11 milioi pezetako kapital sozialaz eratu 1976ko azaroaren 27an, egunkariaren argitaratzeaz arduratzen zen.

Merkatura atera aurretik eta, puntako teknologiaz egitura-tutako proiektu honentzat zegoen finantzaketa-proiektuaren on-dorioz, egunkariaren talde eragileak, lehen *Avui* egunkari kataluniarrak burututako finantzaketa-formula bultzatu zuen: gizar-teko hainbat sektoretan kontu-partaideak bilatzea, alegia.

Finantzaketa-iturri hauei esker, *Egin*-ek «*bazkideen ekarpeneko (kapitala eta kreditu pertsonalak) 120 milioiz, 120 milioiko kredituz eta herri-finantzaketako 100 milioiz*»⁴ osatutako kapital soziala lortu zuen.

Egin-en herri-errotzearen eta bere irakurlegoaren sektore oso garrantzitsuarekin duen loturaren lekuko dira, bai proiektuaren finantzaketarako hainbat alditan egindako etengabeko herri-harpidetzameskabideak, bai «Egin-Eguna»ren urteroko ospaketak.

Dena dela, *Egin* euskal ezker abertzalearekin argi eta garbi lerrotzen zen egunkariaren ikuspegitik sortu zen, baina inongo alderdi politikorekin espreski lotu gabe. Eta, egia esan, egunkariaren lehen aldi bertan elkartzen ziren Euskadiko Ezkerratik gertu zeuden jarrera politikoak eta gero Herri Batasunari bide emango zioten Altsasuko Mahaia deituriko organoaren inguruan antolatzen ziren sektore hausturazaleak.

1978ko abendua arte iraun zuen lehen aldi honetan, egunkaria Mariano Ferrerrek zuzendu zuen eta, honen dimisioaren

ondoren, errepedeko istripu larri baten ondorioz hilko zen Juan Ramon Martinezek. Aldi honetan zehar, *Egin* ETaren ekintza armatuetan gertatutako heriotzen aurka atera zen inoiz eta honek era larrian hondatu zituen egunkarian elkartzen ziren bi jarreraren arteko harremanak.

1978ko abenduaz gero, Mirentxu Purroi egunkariaren zuzendaritzarako aukeratu eta gero, *Egin* Herri Batasunatik gertuko jarrera politikoen alde dekantatu zen behin-betiko eta Euskadiko Ezkerrari lotutako sektoreak egunkaria utzi egin zuen behin-betiko. Gure egunak arte mantenduko den informazio-jarrera.

Euskaratzailea:
ESTEBAN AGIRRE

1. TIMOTEO ALVAREZ, Jesús. *Historia de los medios de comunicación en España. Periodismo, Imagen y Publicidad (1900-1990)*. Ariel Comunicación, Barcelona 1989, 385. or.
2. HAINBAT EGILE. *Los medios de comunicación en el País Vasco*. Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco. Bilbo 1993, 20. or.
3. HAINBAT EGILE. *La Comunicación en las Naciones sin Estado*. Gizarte eta Informazio Zientzien Fakultatea. Bilbo 1989, 242. or.
4. ARANBURU SAGARZAZU, Javier. «Medios de comunicación social (1939-1984)». *Euskal Herria. Errealitate eta Egitasmo*. Jakin, 1985, 470. or.

EUSKAL PRENTSA SORTZEN

IÑAKI URIA

Artikulu hau zure eskuetara iristearekin bateratsu, urrats eder bat emana izango du euskarazko prentsak: *Euskaldunon Egunkaria*-k lortu du kolorearen apustuari heltzea; erdietsi du eguneroko informazioa osatuago izateko asmoz orri gehiagoz argitaratzea; heldu da igandeetan orri berezi batzuk eskaintzera; unibertsitatea; gazteak; euskalduntze-alfabetatzea; mendia, musika... Hasiera-hasieratik —bost urte dagoeneko!— bere motxilan zeuzkan proiektuetarik batzuk martxan jarri ditu.

Itxura-aldaketa izango da irakurleak lehendabizi nabarmentzeko duena. Diseinu berria irakurketa-lana errazteko as-

moz pentsatuta dago. Argiago izan nahi du *Egunkaria*-k. Bai aurkezpenean, bai eta agertu beharreko informazioetan. Horrela, ez da kolorea bakarrik izango aro berri honen ezaugarria. Kazetaritza modernoaren joerarik nabarmenenak jarraiki, informazioaren analisiari, prospektibari, iritziari eta infografiari orain arteko garrantzia baino handiagoa eskainiko dizkio *Egunkaria*-k.

Azala eta mamia hobetu ditu bada *Egunkaria*-k. Asko kostata! Eta emandako urrats berri honi ere —hasieran *Egunkaria* sortzeak berak izan zuen moduan— apustu-kutsua erantsiz. Zuhur, baina arriskatuz. Aurrera eginez azpiegituran, enpresa-egituraren sendotzean eta produktuan.

Gustura jarraituko nuke *Euskaldunon Egunkaria*-k emandako urrats berri hauek ospatzen. Ona da gainera emandako urratsak ospatzea...

Ez da hori, baina, artikulu hau idaztera ekarri nauen gaia.

1976: EUSKAL PRENTSAREN URTEA

Hogei urte beteko dira laster «Euskal prentsaren urtea» izendatua izan zen 1976 harez geroztik. Franco hil berria, *Egin* eta *Deia* sortzeke (1977an sortu ziren) magazine-formatoa hartu zuten *Goiz-Argi*, *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* keta kazetari-tza euskalduna berritzearen erronkari heldu zioten.

Espainiako trantsizio politikoaren hasiera horretan eragin handia lortu zuten euskarazko komunikabide hauek, besteak beste, «mugimendua»ren prentsa besterik ez zegoelako aurrean. Baina 1977an *Punto y Hora*, *Garaia* eta *Berriak* asteakariak sortutakoan, eta bereziki lehen aipatutako bi egunkariak argitaratzerakoan, «askatasun» berriaren lilurak laster lausotu zuen euskarazkoen arrakasta. Merkatu-arrazoiak eta eragin-kortasun politikoa medio «elebitasuna»ren bidetik abiatu ziren prentsa-proiektu berri hauek denak.

Itxaropen handia zegoen komunikabide berri horiengan. «Prentsa-askatasuna» alde batetik, eta «euskalduntze» progresi-

boaren itxaropena bestetik, nahikoa usai gozoak ziren, loratu berria zen lorategian.

Urteek, baina, gordin erakutsi digute, merkatuaren legeak eta eraginkortasun politikoa, morrontza handiegiak direla eta lilura hutsa baino ez zirela izan itxaropen haiek. Astekariak, baita 1979an sortutako *Ere* ere, euskaldundu baino lehen hil ziren, eta, *Deia*-k eta *Egin*-ek aurrera baino atzera egin dute euskararen erabilpenean.

EAEn erakunde berriak zeuden arren hauek ez zuten sentsibilitaterik erakutsi euskarazko prentsarekiko; noiz eta bere biziko krisirik latzena jasaten ari zenean. Ikus-entzunezkoak ziren Eusko Jaurlaritzaren lehentasun eta kezka bakarra.

«Prensa Euskaraz» (1982) herri-kanpaina egin arren, desagertu egin zen *Anaitasuna* eta, hilabete batzutan itzalita egon ondoren (1981), ozta-ozta ekin zion *Argia*-k euskal prentsaren bandera eusteari.

«Krisi horren azken datua hauxe izan zela esan genezake: prentsa elebiduna prentsa erdalduna bilakatzearen porrot» zioen *Argia*-ren 1987ko Urtekariak «Euskal Prentsak 100 urte bete ditu» izeneko dossierrean. *«Deia-n hasiera batetan egin zen planteamendu serioa (11 kazetari euskaldun), eta Egin-en egindako estraineko saioa ere pikutara joan ziren urtebete pasa baino lehen»*... *«Porrot horren ostean lau-bost urtetako parentesi bat eman zen. Prentsa elebidunean euskarari duinta-sunezko tratamendua bilatu ezinean, euskal prentsaren norabidea zuzentzeko behar bezalako indarririk ere ez zen inondik susmatzen. Argia-ren saio isolatu bezain desesperatua izan liteke garai hartako eszepzio bakarra»*.

Ezin argiago adierazi, *Argia*-k bizi izandako negu gorri haiek.

Emile Larre-k ere bere bakardadean eta isolamenduan eutsi dio Lafittek utziz geroztik *Herria*-ren apustuari: *«Odol berria behar da. Abtsulutuki odol berria, edo galduko da. Nik 61 urte ditut orain. Baina ez dut ikusten gazteagorik nere lekua hartzeko, agertzen denik ez dut ikusten. Hori beharko du Euskal Herriak gauza horretaz kontzientziatu»*. (Urtekaria 1987. *Argia*)

Aizu, Elhuyar, Anaitasuna, Argia, Euskera, Goiz-Argi, Ikas-tola, Ipurbeltz, Jakin, Jaunaren Deia, Karmel, Kili-Kili, Oh Euzkadi, Olerti, Saski-Naski, Susa eta Zer. Hauek ziren 80ko hamarkada hasieran euskaraz argitaratzen ziren aldizkariak. 1982. urtean, ideia egiteko, lau milioi t'erdira ez zen iritsi Eusko Jaurlaritzatik guztien artean jaso zuten dirulaguntza.

1985. urtean Gasteizko Legebiltzarrean euskarazko prentsa-agentzia baten zerbitzua sortzeko proposamena onartu zen. Haren ondorioz Vasco-Press-ekin itzulpen-komenio bat hitzartu zuen Eusko Jaurlaritzak. 1992ko urtarrila bitartean iraun zuen inork gutxik erabilitako zerbitzu horrek (geroztik ez du inork aipatu ere egin euskarazko berri-agentzia baten beharrik; baina beharrezkoa litzateke).

1986ko udazkenean *Hemen* eta *Eguna* plazaratu ziren EAEko Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzei esker. *Egin* eta *Deia* egunkariaren proiektuak hobetsi zituen Jaurlaritzak, *Argia*-rena baztertuz, euskarazko egunkarirako bidea egin zezaketelakoan. Subentzioak amaitu bezain pronto frogatu zen ez *Egin* eta ez *Deia* ez zeudela berez euskarazko egunkari bat martxan jartzeko moduan: dirulaguntzak etetearekin batera utzi zioten *Hemen* eta *Eguna* argitaratzeari.

ZIKLO BATEN AMAIERA: EGUNKARIA SORTU DA

Hamar urtetik gora Euskarazko Egunkaria eskatuz, errei-bindikatuz, bere biabilitateaz eta izaeraz eztabaidatu ondore n miresgarria da, atzera begiratu eta urtebeteren buruan egin zen lana ikustea. 1989ko udazkenetik 1990ko udazkena bitartean Egunkariaren beharra berriro plazaratzenetik *Euskaldunon Egunkaria* argitaratzera iritsi zen «Egunkaria Sortzen» Talde Eragileak. Errealitate bihurtu zuen Ibar, Aitzol, Lizardi eta gerraondoko hainbat euskaltzale belaunaldi etsitaren ametsa.

Eztabaidatan, «oraindik ez da garaia», «azkarregi da», «euskaraz ez dago Egunkariarentzat prestaturik», «ez dago kazetaririk», «ez dago irakurlerik»..., ohizko argudioak izan arren, ametsa egia bihurtzeak aise usatu ditu beldur haiek. Egia esan, beran-

dutxo ekin genion euskaldunok Egunkariaren erronkari. Ahal izan zenean, noski, baina ondoan bizirik dirauen *El Correo Español* begiratu gero, 80 urteko atzerapenarekin (1910. urtean sortu zen; *Diario de Navarra* 1903an).

Egunkaria nahi bezain goiz sortu ez bazen ere, 1989ko azaroaren lean «Egunkaria Sortzen» izena hartuko zuen taldea bildu ez balitz, auskalo egun zertan izanen zen *Egunkaria!*

Jaurlaritzak CIES etxeari enkargatutako azterketa «kajoi batean gorderik» zeukan, urte horretan bertan, urrian, *Argia* as-tekariak argitara eman zuenean. Euskarazko kazetaritzan genbiltzanon intuizioa berresten zuen azterketak: bideragarria zen euskarazko egunkaria.

Abiada bizian eman ziren hurrengo urratsak. «Euskarazko Prentsaren alde» firma bilketa egin zen azaroan bertan. Durangoko Azokan 50 lagunetik gora bildu ziren abenduaren 10ean Egunkariaren Oinarrizko Ezaugarriak ezarriz. Urtarrilaren 21ean osatu zen azkenean «Egunkaria Sortzen» Talde Eragilea Donostian. Hiru batzorde osatu ziren Egunkariaren proiektua egiteko: Batzorde Bateragilea; Ekonomi Batzordea eta Kazetaritza Batzordea.

«Euskarazko Egunkarirako Proiektua» prestatu zuen Talde Eragileak eta apirilaren 7an onartu zuen «Egunkaria Sortzen»ek Donostian egindako Batzarrean.

Maiatzaren 5etik uztailaren 15a bitartean proiektua aurkeztu eta diru-biltze kanpainari ekin zitzaion. «Zenbaki 0a» (gaizki) deitu zitzaion *Egunkaria*-rekin eta Belodromoan antolatutako Festarekin amaitu zen kanpaina hura.

Udazkenerako agindu zen *Egunkaria*. Eta latzena geratzen zen burutzeko. Egoitza, azpiegitura tekniko-informatikoa, kazetarien prestakuntza, lantzamendu-kanpaina... Handiak ziren egin beharrekoak, baina Abenduaren 6an (udazkena, artean) kalean zen *Egunkaria*.

Egin beharreko lana hainbatekoa izanik Eusko Jaurlaritzak eta hainbat alderdi politikok traba ugari sortu zituzten. «Egunkaria Sortzen»ek proiektua osatuta zuenean eta onartu bezperan

(apirilak 4) izendatu zuen Joseba Arregi Kultura sailburuak Jose Ramon Beloki egunkari hipotetiko baten nondik-norakoak marrazteko.

Berehala piztu zen eztabaida. Bi ala bat. Publikoa ala pribatua... Eta eztabaidak ez zion onik egin martxan zihoan proiektuari. Giza sail askok atzera egin zuten lehiaren aurrean. Eta kalterik handiena sail finantziero eta enpresarialen inhibizioa gertatu zen. Bestela ere zaila baldin bada enpresa-mundua, aurrezki-kutxa etabarrak euskararen aldeko proiektuetan inplikatzeari, Jaurlearitzak «beste proiektu bat» prestatu behar zuela agertu zuenetik askoz ere zailagoa bihurtu zen *Egunkaria*-ren proiektua: batean bil zitezkeenak bitan banatzea lortu zuen eta jakina, lortutako atxikimenduak ez ziren ahal ziren guztiak izan hasieran.

Oztopoak oztopo, bere bideari eutsi zion *Egunkariak* eta lortu zuen argia ikustea, horrekin batera ziklo bat itxiaz euskal prentsan: euskarazko egunkari baten premia aldarrikatzeara.

EZTABAIDATIK AKORDIORA

Eztabaida ez zen *Egunkaria*-ren sorrerarekin amaitu. Eta *Egunkaria*-ri diseinatutako hiru eszenategietatik okerrena bizitzea tokatu zitzaion. Hau da, ez subentziorik ez eta publizitate instituzionalik gabe geratuko zen aurrera ekin ahal izateko. Eszenategirik baikorrenetik, dirulaguntzak eta publizitatea izatek, oso urrun. Ez zen iritsi tartekora ere, dirulaguntzarik ez baina publizitatea bai. Eusko Jaurlearitzak modurik gogorrenean erantzun zuen herri-ekimenetik sortutako proiektu honen aurrean.

Baina *Egunkaria*, estuasunik gorrienean bazen ere, irakurleago eta erosleago finko bat eskuratzen joan zen. Sinesgarritasuna lortu zuen «Egunkaria Sortzen»ek ezarritako Oinarriko Ezaugarriak egunero egunero bere orrialdeetan betez. Estilo Liburuak egundoko arrakasta lortu zuen. Honen adierazgarri dira argitaratutako lau edizioak. OJDk 11.212 erosle zer-

tifikatu zituen 1993. urtean eta hasieran proiektu hutsa zena enpresa gisa egituratzen ari zen.

Kazetaritza-proiektuak irakurlegoa eskuratzea eta mantentzea lortu arren, proiektuak ezingo zuen aurrera egin enpresa-egitura gero eta sendoagoa egin gabe. Honela garrantzi handia eman zitzaion hasieratik publizitate eta banaketa-sailak antolatzeari. Publizitatea eskuratzeko sortutako ekipo komertziala euskarazko prentsan inoiz lortutako publizitate-kopururik handienak lortzera iritsi da. Euskal Herriko egunkarrietan arrunta ez bada ere, euskal prentsan hain ezaguna den harpidedun-sistema martxan jarri du *Egunkariak*, horretarako dauden oztopo objektiboak —Espainiako Posta— gaindituz eta banatzaile-sare bat antolatuz.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila gidatzen zuen Joseba Arregiren itxitasunaren aurrean kapital-gehitze ezberdinek lortu zuten urteroko defizitari aurre egin ahal izatea. Egoera horren aurrean 50 milioi pezetako dirulaguntza hitzartu zuten *Egunkaria*-rentzat Gipuzkoako Batzar Nagusietan EA, HB eta EUE alderdiek 1992. urtean.

1993ko martxoaren 25ean gomendioa luzatu zion Arartekoak Eusko Jaurlaritzari *Egunkaria*-n publizitatea sar zezan. Urte horretan bertan, urriak 8, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu zion *Egunkaria*-ren arduradunekin harremanetan jartzeko elkarrizketa bidez arazoa bideratu eta egoera normaltzeko. Zentzu berean mintzatu ziren Euskaltzaindia eta Euskararen Aholku Batzordea ere.

Honela, gizartean erdietsitako babes eta sinesgarritasuna medio, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua harremanetan jarri zen udazken horretan *Egunkaria*-ren kudeatzaileekin.

Elkarrizketa-prozesuak etenaldi bat izan bazuen ere Gabonak aldera, urte berriarekin antzeman zitekeen adostasun batera heltzeko jarrera. Zailtasunak gainditu eta testu labur batean sinatu genuen 1994ko ekainaren 30ean Eusko Jaurlaritzak eta *Egunkaria*-ren arteko elkarlanerako konpromezua.

Akordio horren bidez herri-ekimena eta Eusko Jaurlaritzak bat agertu ziren *Euskaldunon Egunkaria* bultzatzeko helbu-

ruan. *Egunkaria*-k, zerbitzu publikoa eskaini arren euskal gizaritari, izaeraz pribatu izaten jarraituko du eta independentzia, profesionaltasuna eta aniztasuna gordeko ditu. Hau da, hasiera-hasieratik ezarritako Oinarrizko Ezaugarriak gorde egingo ditu, ez da Gobernuarena izango, eta Eusko Jaurlaritzak *Egunkaria*-ri laguntzera konprometituko da.

Akordioa sinatzeko garaian esan nuen moduan 70 milioi pezetako dirulaguntza ez da nahikoa *Egunkaria* aurrera ateratzeko (atera kontuak 900 milioi pentsatzen zituela gastatzea urtean Eusko Jaurlaritzak bere proiektuan eta «Egunkaria Sortzen»ek 150 milioiko laguntza eskatzen zuela 1990. urtean). Zabalduko bideari ematen genion garrantzia, EAEko erakunde publiko ezberdinek kontuan hartuko zuten euskarazko egunkaria publizitatea egiteko garaian eta Eusko Jaurlaritzak bere Aurrekontuetan sartuko zuen ordutik aurrera.

Akordioak ez zituen konpontzen *Egunkaria*-ren arazoak. Konponbidean jartzeko konpromezua zen. Eta, egia esan, urte t'erdi geroago, kezkatuta agertzeko moduko arrazoiak daude publizitate instituzionala *Egunkaria*-ra erakartzea zein zaila den ikusita.

Egunerokolanak eta gizaritearen babesak Eusko Jaurlaritzak herri-ekimenarekin elkarlanerako konpromezura ekarri baldin bazuten duela urtebete, orain, inoiz baino garrantzitsua da gizariteko agente ezberdinen partaidetza publizitate instituzionala euskarazko komunikabideen alde jartzeko eta publizitate komertziala ere erakartzeko.

EGUNKARIA-TIK EUSKAL PRENTSARA

«*Dirulaguntza limosna moduan ematen dute*» zioen duela urtebete (94-11-20, *Egunkaria*) Iñaki Irazabalbeitia *Elhuyar*-eko lehendakariak: «*Uste dut ez dagoela kultur politika argi bat, orain arte Kultura Sailaren ardura izan dutenek prentsa idatziari ez diote duen garrantzia eman*».

Erreportaia berean zera zioen *Argia*-ko Jose Mari Irazus-tak: «*Ez dago politika bat, eta horretan bat nator Jakin-ek esa* -

ten duenarekin: diskriminazio positiboa aplikatu behar da. Oro-korki euskal prentsa guztiak zeharkako beste laguntza batzuk behar ditu autofinantziatziora iristeko».

Azaldu iritziak *Jakin*-ek argitaratutako «Bizi itxaropena» editorialak eragindako erreportaian bilduta zetozen. Joan Mari Torrealdairen iritzia ere bertan genuen: «*Historia guzti honetan guk uste duguna da diruaren destinoa, destinatarioa, dela aldatu dena, dirua emateko politika, kulturegintza egiteko/bultzatzeko filosofia*». Eta zehazten du: «*Guk uste dugu 1992an kultur politika berri bat inauguratu zela, 10-15 urtetarako oinarriak jarri nahi izan zirela, eta politika haren ondorioak ari garelako ikusten orain*».

Hau da, ez da euskal prentsa laguntzeko politika eza bakarrik (1992ra arteko egoera). Okerragoa da egoera: zeuden laguntza eskasak ere urritzen hasiak dira, politika-aldaketa baten ondorioz: subentzio politikaren ordeztu behar da azpiegitura erraldoien politika bat (Guggenheim).

Jakin-eko editorialak oso ondo agertzen zuen euskal prentsa arengo egoera larria. Ordutik hona gobernu berria dago Gasteizen eta bi aldizkari gutxiago plazan: *Susa* eta *Larrun*.

Testuinguru horretan eta urtebete pasa ondoren, zertan da *Egunkaria* eta Jaurlaritzaren artean sinatutako akordioa?, galdetuko du batek baino gehiagok.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko ordezkari berriekin izandako bileratan aldaketa nabarmena somatu dugu jarraitutan. Onera. Amaitutzat jo dira garai bateko errezeloak, *Egunkaria* errekonozitzen da, bere independentzia onartzen da eta diruz laguntzeko borondatea erakutsi zaigu. Aurrekontuetan 70 milioi pezetako dirulaguntza besterik ez bazen agertu —150etik gorakoa da *Egunkaria*-ren defizita orain arteko produktumailan— orain, udazkenean, hortik gorako zuloa estaltzeko konpromezua hartua dauka Eusko Jaurlaritzak.

Publizitatean aldiz ez dira betetzen ari akordioa sinatzera koan piztutako itxaropenak. Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundi eta Udaletxe nagusiek egiten duten publizitate instituzionala

ez dator oraindik *Egunkaria*-ra; ez behintzat etorri beharko lukeen neurrian (oraingoa baino hiruzpalau handiagoa).

Lau urtera begira *Euskaldunon Egunkaria* hobetzeko (produktua, azpiegitura eta sustapena) plana aurkeztu dio *Egunkaria*-kaurten Eusko Jaurlaritzari. Jaurlaritzaren esku egongo da neurri handi batean plan hori arinago ala motelago ezartzea eta, beraz, gero eta *Egunkaria* hobeago bat izatea.

Dena den bada esaldi bat euskal kultura dabilen orok laguntza eske joandakoan behin eta berriz entzuten duena: «Ez dago dirurik». Ez dago dirurik Kultura Sailean. Eta dirurik ez badago ezin egon politika berri baterako itxaropen handirik. Dauden txamarrak hobeto administratzea gerta daiteke. Baina diru-premia gorrian dagoen euskarazko prentsa, eta kultura orohar, laguntzarik ezean etsipenean eror daiteke hurrengo urteetan.

Ondo pentsatu beharreko kontua dute hau alderdi politikoek. Abiadura biziko tren, errepede etabarrek baino premia larriagoa bizi dute euskarazko komunikabide eta kultura ekoizle ezberdinek. Beste batzuri baino gutxiago entzuten zaien arren (ez dute oihartzun handirik komunikabideetan).

ARBOLAK EZ DEZALA BASOA EZKUTA

Euskaldunon Egunkaria plazaratu bitarteko eztabaidak aurrena eta proiektu honekiko dirulaguntzak lortu beharrak ondoren, bigarren maila batean utzi ditu urte hauetan euskal prentsaren beharrak.

Herri aldizkariak gora egin badute ere, orohar, Euskal Herrira zuzendutako gainontzeko aldizkariak aurrean aipatutako kinka larrian daude oraindik. Bizi-iraupenean indar guztiak xahutu behar dituenak nekez egin dezake aurrera espainieraz eta frantseseraz daukagun prentsaren ondoan. Nekez dauka iniziatibarako adorarik.

80ko hamarkadan *Argia* astekaria-k behin eta berriz euskal prentsari buruz eragindako gogoeta, eztabaida, «*Argia Eguna*», «*Euskal Prentsaren Eguna*»... haietatik isiltasunik gorrenera ira-

gan gara urteotan. Joan Mari Torrealdaik aipatzen zuen isiltasun hau lehen aipatutako artikulu berean: «*Ez dakit zer adierazten duen isiltasun honek. Geure marjinalismoa agian. Irakurle bat baino gehiago harrituko da jakitean aldizkariok ez dugula elkarterik edo antzekorik; azken bilera duela 7 bat urte egin genuela geure artean. Geuk geure burua baloratzen ez badugu, nola aintzat har gaitzakete ba bestek?» (Egunkaria, 94-11-20).*

Beste bizitasun bat erakutsi dute herri-aldizkariak, Arrasatekoen ekimenez, herri komunikabideei buruzko bi jardunaldi antolatu dituztelarik dagoeneko (1992-93). Ondoren ere zenbait herri-aldizkariaren artean bilera batzuk egin diren arren, halaz eta guztiz ere ez dago oraindik ez elkarterik, ez federaziorik ez antzekorik.

Legazpian Hotsen inguruan hasi eta 1988az geroztik Arrasate Press-ek hedatutako herri-aldizkariaren fenomenoak Euskaldunon Egunkaria-ren sorrerarekin batera hedatu da. Bere ekarpena handia izan da urteotan eta zortzi astekariren artean 31.400 ale banatzen dituzte gaur egun. Publizitatez eta dirulaguntza publikoez finantzatzen dira eta herri-informazioarekin batera, doantaz da hauen ezaugarri nagusia.

Paraleloan sortutako bi fenomeno hauek, Egunkaria-k eta herri aldizkariak, erronka amankomun bat dute etorkizunerako: eguneroko informazio lokala.

EUSKALDUNON KOMUNIKAZIO-EREMUA OSATU BEHARRA

Euskaldunon Egunkaria-ren salmentei begira (11.256, OJD-1994) esan daiteke euskal prentsak inoiz izan duen hedapenik handiena lortu dela. Eta halaz eta guztiz ere Euskal Herrian saltzen diren egunkari guztien %3 baino ez da kopuru hau. Hara hor, gordin gordin, euskaldunon erronka. Ez zegoen tokian badugu orain egunkari bat. Baina aurrean daukagun erronka orain artean lortutakoa baino arras handiagoa da.

Zein da, bada, aurrean daukagun erronka? Euskaldunon Komunikazio Eremua. Zein da arriskua? ETB, Euskadi Irratia,

Euskaldunon Egunkaria baditugula uste izatea eta horrekin nahikoa dugula uste izatea. Hiru uhartetxo izango genituzke euskaldunok frantsesak, espainierak eta gero eta gehiago ingelesak osatutako komunikazio-itsasoan.

Euskaldunok munduan berezko kultur eremu bat nahi baldin badugu, ezinbesteko dugu gure lurraldean komunikazio-eremu euskalduna antolatzea.

Escola-eremuan euskara hedatzen hasia den moduan komunikazio-eremuan beste hainbeste egin beharra daukagu ezinbestean.

Lurraldearen gaineko subiranotasuna daukaten hainbat herri eta estatu kezkatuta dago gaur egun kultura eta komunikazio-arloan berezko esparrurik ez duelako edota daukatena ezin dutelako babestu ikus-entzunezko anglosaxoniarren indarraren aurrean. Hor daude esaterako, EBren babes legeak edota Frantziaren frankofoniaren ministerioa.

Gaur egun munduan osatzen ari den komunikazio-sistemak eta kultur industriek fenomeno berriak bultzatzen dituzte herrien hizkuntza-joeratan. Ingelesaren erabilera bultzatzen dute kultura ezberdinen arteko komunikazio-hizkuntza gisa eta arlo ezberdinetako informazioaren euskarri gisa (kazetaritza, zientzia, politika, artea...).

Joera honen barruan esan daiteke Europan ez dagoela gehien goaren hizkuntza bakar bat. Ingelesa, frantsesa eta alemaniera nagusitzen dira errusiera, gaztelera eta italierarekin batera.

Portugal alde batera, Europako estatu gehienak dira hizkuntz-anitzak. Ze jarrera agertzen dituzte estatu hauek beren barne-hizkuntzekiko?

- Lurraldetasuna oinarri duten Estatu hizkuntz-aniztunak (Belgika, Suitza): estatu-mailan berdintasun-maila gorena dute hizkuntzek eta norbere lurraldean hizkuntza bakarra da ofiziala.

- Eskubide pertsonalak oinarri dituzten Estatu hizkuntz aniztunak (Finlandia, Luxemburg, Irlanda, Malta): ezein hiz-

kuntza mintzatu arren hiztunak eskubide berberak ditu estatu osoan.

- Hizkuntzak ezberdin tratatzen dituzten Estatuak (gehienak, Espainia, Frantzia, Britainia Handia, Italia, Polonia...): ofizialki hizkuntz aniztunak izan arren hizkuntza bakarra dute ofiziala estatu osoan.

- Estatu barruan beste hizkuntzarik ezagutzen ez duten estatuak; ofizialki elebakarrak (Bulgaria, Grezia...).

Hizkuntz hierarkia honek ze ondorio dakartza komunikazio-hizkuntzekiko? Beti ere kontuan hartu beharko da ze konstituzio egoeran dagoen eta ze eskuhartze gaitasuna dagoen hizkuntza horretan diren komunikabideetan. Egia esan, komunikabideei buruz estatuak antolatzen dituzten politikatan «ahaztu» egiten dira beti hizkuntzaz. Estatuentzat, Espainia eta Frantziarentzat bereziki, bakarra da nazio-hizkuntza.

Komunikazio eta kultur industria handien proiektu paneuroparren aurrean estatu-hizkuntza nagusiek beren erresistentzia jarriko dute. Baina non geldituko dira euskara bezalako eremu urriko hizkuntzak? Ze babes izan dezakete panorama honen atarian? Estatuak izatea beharrezko izan daiteke, baina gero eta gehiago antzeman daitekeenez ez da aski izanen.

Krisi-garaia bizi dugu kultura-arloan eta Europa osoa ari da birmoldatzen. Harreman berriak arautzeko elementurik garrantzitsuena komunikazio-eremu nazional sendoa izatea izango da. Euskararen, euskal kulturaren eta euskal nazioaren etorkizuna komunikazio-eremu horren osaketaren arabera izango da hein handi batean.

Ezingo nuke artikulu honetan Euskaldunon Komunikazio Eremuari buruz askoz gehiago luzatu, baina beharrezko dukesat Euskal Herriko instituzio ezberdinek, unibertsitateak eta komunikazioan dihardugun enpresa edota partikularren artean gai honi luzagabe heltzea.

1985. urtean argitaratu zuen *Jakin*-ek EKBk prestatutako «Euskararen Plangintzarako Oinarriak». Bertan diglosikotzat definitzen zen euskarazko prentsaren egoera eta «merkatu li-

b rea» aipatzen zen euskara prentsa arloan normaltzearen aurkako faktore nagusienetakotzat.

«Eskabideak eta ekinbideak» atalean hiru puntu aipatzen ziren aurrera begira beharrezkotzat:

a) Ezinbestekoa da euskal prentsa babestuko duen lege bat egitea. Lege honek bi irizpide hauek errespetatu beharko lituzke: lehenik, lurraldearen aldetik nazionala izatea eta, bigarrenik, dau den edo aurkez daitezkeen egunkari-proiektu guztiei baliabide berberak eskaintzea.

b) Ezinbestekoa da, halaber, «komunikabide diglosikoek» beren irakurlego euskaldunaren proportzioan euskaraz argitaratzea.

c) Euskara hutsezko prentsa lorbidean jartzeko, beharrezkotzat jotzen da euskal erakunde publikoek medio diglosikoak presionatzea, neurri jakin batzutan bederen euskara sar dezaten; aldizka ko prentsa euskalduna sendotzea, bultzatzea eta laguntzea; euskara hutsezko egunkari bat edo batzu kaleratzea; teletipoak euskarara itzulaldatzeko zerbitzu bat sortzea».

Ez da txarra atzera begiratu eta duela hamar urte eskatzen ziren gauzak erreparatzea. *Euskaldunon Egunkaria* eta herrietako aldizkariak dira ordutik hona nabarmendu ditzakegun aldaketa nagusienak. Tartean egon dira Vasco Press-i emandako dirulaguntzaren truke teletipoak itzultzeko zerbitzu bat eta *Hemen* eta *Eguna* astekari-egunkariak.

Ona izango litzateke orain ere euskal prentsaren diagnosi sakon bat eta euskaldunon komunikazio-eremua sortzen joateko lehentasunak pentsatzen hastea.

PUBLIZITATE-MERKATU EUSKALDUNA

Ur sakonegietan sartu gabe pare bat gogoeta egin nahi nituzke publizitatearen merkatua eta euskarari buruz. Publizitatearen merkatuak euskararen kontra dihardu etengabea, baitetik; eta bestetik, euskarazko kultur produktuek, eta horien artean euskarazko prentsak, ez dute ahalmenik publizitate eta sustapen-kanpainen bidez merkatu horretan sartzeko.

Lehenengo puntuari buruz begibistakoa da publizitateak zabalkundea bilatzen duela eta Euskal Herrian hedapenik handiena duten prentsa eta komunikabideak erdaldunak direla. Honela, merkatu honen araurik nagusienak —eta bakarra kasik— euskarazko komunikabideen kontra funtzionatzen du derrigorrez. Marko lokala duen publizitateak jokatzen du —iragarleen kontzientzia euskaltzalea medio— arau horretatik kanpo. Gainontzekoek ez dute inondik inora kontuan hartzen euskararen faktorea.

Euskal Herriko erakunde ezberdinek euskal prentsan egiten duten publizitate-maila ikusita nekez animatuko da enpresa pribatua euskarazko medioen aldera bideratzen bere iragarriak. EAEn, gainera, Euskararen Legea dela medio, erakunde publikoek espazio bikoitzak erosten dituzte erdarazko egunkarietan euskarazko prentsa, gehienetan, bat ere gabe gelditzen delarik. Honela, ohartuta ala oharkabean, erabat handitzen da erdarazko prentsa eta euskal prentsaren arteko aldea. Alderdi politiko eta erakunde ezberdinek badute zer pentsatua eta zer hobeto programatua gai honetan.

Bestalde, ezin aipatu gabe utzi euskarazko prentsak eta kultur produzioak oro har, nozitzen dugun beste gaitzik larrietakoa: ez gara gai gure produktuak behar bezala merkaturatzeko. Euskaldun batek euskarazko disko, liburu edo aldizkariaren bat nahi badu, liburudendara joan eta galdezka hasi behar du ea zein diren argitaratutako azken nobedadeak. Erdarazkoak produktuak berriz etxeraino sartzen zaizkigu egunkari, irrati nahiz telebistaz egiten duten publizitatearen bidez.

Euskarazko kultur produktuak ekoizten dituzten enpresak ahulegiak dira publizitate eta sustapen-kostuak produktua- ren salneurrian kontuan hartzeko. Garestiegi aterako lirateke eta ez daukate kontzeptu horretan inolako laguntzarik merkaturatu erdarazkoen aurrean konpetitu ahal izateko. Liburu bat egitea edota aldizkari bat argitaratzea defizitarioa bada euskaraz, nolatan dirua sartu publizitatean? Eta sartzen ez bada nola lortu gure produktuak gehiago hedatzea?

Gurpil gaizto honetatik ateratzeko ezinbestekoa da erakunde publiko ezberdinek euskal produktuen sustapena garatze-

ko programa ezberdinak garatzea. Ez da nahikoa ekoizpena subentzionatzea, merkaturatze prozesuan dauden publizitatea eta sustapena ere bultzatu behar dira euskarazko produktuentzat.

EGUNKARIA, ETENGABE AURRERA

Aurreko ataletan aipatutako eginbehar guztiak aurrean baldin badauzkagu ere, egunotan kalean izango duzun *Egunkaria*-ri erreparatzea gomendatuko nizuke, irakurle. Asko kosta zaigu berrikuntza hauetara iristea. Gehiegi. Baina jakin ezazu begibistan daukagula egin nahi dugun *Egunkaria* eta horretarako beharrezko den azpiegitura. Eta eskuartean darabilzun hori proiektu horren lehendabiziko urratsa baino ez dela. Neurri handi batean Eusko Jaurlaritzaren esku egongo da diseinatuta daukagun proiektu horretara lehenago ala beranduago iristea.

TELEBISTAGINTZA PUBLIKOA, ETB ETA ZERBITZU PUBLIKOAZ

JOSU AMEZAGA

EDORTA ARANA

Hego Euskal Herrian bezala Estatu espainiarreko beste hainbat tokitan, telebista piztu eta ikus daitezkeen kanaletatik gutxienez hiru publikoak dira (zentralak eta autonomikoak, eta, beste maila batean, udal-TBak) eta beste hiru pribatuak. Televisión Española onena bezain bakarra zen sasoietatik, telebista autonomikoak eta pribatuak ikusi ahal izan arteko bidea ez da edonolakoa. Izan ere, kontrol instituzionaleko kanalak zerbitzu publikoa zirela aldarrikatetik, negozio bila ari direnen telebista pribatuekin lehian jartzera pasa gara, duela urte gutxiko oreka hankaz gora jarritz.

Panorama honetan kokatzen da euskal telebistagintza publikoa ere. Gorpuzketa nazionala (lurraldetasuna, hizkuntza,

kultura, informaziobide propioak, etab.) beharrezkoa zuen herrialdearentzako tresna paregabea zelakoan jarri zen martxan ETB. Telebista pribatuei zazpi urteko aurrea hartu bazien ere, azken hauek martxan jarri eta sortu zuten zorabiotik libratu beharrran dago, oraindik ere. Zerbitzu publikoaren birdefinizioa, interes ekonomiko eta sozialen arteko eztabaida, epe labur zein luzeko etekinen balantza eta oreka mediatiko nahiz linguistikoaren arazoak eztabaidagai daude, berriro.

Estatu espainiarreko telebistagintzaren azken urteei begirada bat ematean, hiru dira, gure ustez, gogoratzeko moduko datak: 1956, 1983 eta 1990. Lehen biek telebistagintza publikoaren bi mugarri nagusienak markatzen dituzte, eta hirugarrenak kanal pribatuen sorrera markatzen du.

TELEBISTA-KANAL BAKARRETIK AUTONOMIKOETARA

Francok agintean eman zituen urteetatik erdiak TVE martxan jarri eta geroakoak izan ziren. Europako beste hainbat estatutan bezala espainiarrean ere, telebistagintza botere politikoaren esku zegoen. Estatu desberdinek monopolioan zerbiltzen telebista, bigarren gerra mundialaren ostean, beharre zkoa sentitzen zuten eraikuntza nazionala eta barne-koherentzia eta, aldi berean, sistema politikoaren ideieria zabaltzeko asmoz. Estatu espainiarraren kasuan diktaduraren publizitazio-tresna paregabea izan zen Televisión Española.

1956tik 1983ra TVE monopolioa, zentralismoa eta dirigismoaren adierazgarri garbia izan zen.

Legez, monopolioz, berari bakarrik zegokion zerbitzu publikotzat jotzen zen telebista emisioak aideratzea. Estatuaren aurrekontuez gain publizitatearen bidez eskuratzen zituen TVEk martxan aritzeko dirutzarrak.

Madriletik abiatzen zen errepetigailu-sare erradialaz baliatuz, emisio zentralizatu eta bakarra zegoen martxan jarrita. Telebista ikusi gura zuen orok aukera gehiagorik eduki ez, eta hartzailegoa beste inoiz ezagutu ez zuen mailara heldu eta bertan mantentzen zen.

Gainera, diktadurak iraun zuen bitartean eta gero ere, agintearen menpe egon da telebistagintzaren kontrola. Zalantzarik gabe, geroxeago aipatuko dugun bezala, handia da telebistari atxekitzen zaion garrantzi eta eragingarritasun soziala. Beraz, hain boteretsutzat jotzen zen/den hedabidea izanik, akuilupean eduki beharra sentitu izan dute lehengo eta oraingo botere-taldeek zein instituzioek.

Beraz, hasiera-hasieratik, monopolioz aginte politikoaren esku zegoen *zerbitzu publikotzat* hartua izan da telebista. Espainiar Konstituzioak aldarrikatzen duen «autonomien estatua»-ren eta hauen gauzatzea zekarten Gernikakoa bezalako estatutuen bidez, instituzio zentralak zuten monopolioa malgutu egin zen 1983an. Urte horren lehen egunean jarri zen martxan Euskal Telebista eta berehalaxe etorri ziren Katalunia, Galizia, Valentzia, Andaluzia eta Madrilako telebista autonomikoak ere.

TVE instituzio zentralen esku geratzen zen bitartean, autonomia desberdinetako gobernuetan lagatzen ziren telebista-kanal autonomikoak. Monopolioaren deszentralizazioaren eskuetik, Televisión Española bere audientziak kanal autonomikoe-kin banatu beharrean aurkitzen da, eta modu berean publizitatearen bidezko diru sarrerak.

Aipatu ditugun datetatik hirugarrenean gertatu zen Estatu espainiarreko telebistagintzan eman den beste aldaketa garrantzitsu bat: kudeaketa pribatua zuten kanalak martxan jartzea.

TELEBISTA PRIBATUEN ERAGINAK

1990ean, zerbitzu publikotzat hartua izan zena esplotazio pribatua ere edukitzera pasatu zen. Europako beste estatu batzuetan bezala, 70eko hamarkadan hasi eta 80koan bereziki gertatu zen joerari jarraiki, Estatu espainiarreko telebistagintzari pribatizazioaren atea ireki zitzaizkion. Jarrera liberalzaleek p redikamentu handia zuten urte horietan, argudiatuz telebista-kanal gehiago edukitzea eta adierazpen askatasuna parekoak zirela. Aldi berean, hainbat egunkariren eta irratiren jabegoa esku instituzionaletatik pribatutara pasatu izanak (*Medios de*

Comunicación del Movimiento izenekoen salmenta dela medio) telebistagintzaren pribatizazioa justifikatzen zuen. Multimedia talde boteretsuek eta *intelingentsia*-ren partaide askok ez zioten zentzurik ikusten bestelako hedabideak pribatizatu eta telebista publikotasunaren eremuan mantentzeari. telebista-kanalen jabegoan aurpegi berriak ikustea iritzi-aniztasunaren berma zela argudiatu zuten.

Publizitateari dagokionez gainera, telebista urre-mehatz tentagarriegia zen. TVEk eskuratzen zuen hartzailego erraldoia eta iragarkien bidezko fakturazioa handiegiak ziren, esku bakarretan lagatzeko, nahiz eta publikoak izan hauek. Talde multimedia, finantziario eta politikoez interes berezia zuten telebistagintzaren bidez ere beraien eragina sendotzeko. Interes horren adierazpen grafikoa da gaur egun telebista pribatuetan kapital finantziarioak duen presentzia: Antena 3, Tele 5 eta Canal Plus elkarrekin harturik, banketxe ezberdinek kapitalaren % 44a kontrolatzen dute, zuzenean kasu batzuetan eta zeharka besteetan¹.

telebista-kanal pribatuak emititzen hasi zirela bost urte bete dira. Denbora gutxian, Hego Euskal Herrian, TVE eta ETB ikusi ahal izateaz gain Canal Plus, Tele 5 eta Antena 3 aukeratu ahal izatera pasa gara. Tele-pantaila eskaintza ugariagoaren atzetik izan diren aldaketak aipatuko ditugu segidan.

Lehenik eta behin, telebistagintzaren historian hasiera-hasieratik botere politiko-ekonomikoez telebista kontrolatu nahi izanaren joera mantendu da. Hori bai, kontrolean, bakarrik instituzioak egotetik, bestelako presio-taldeen partehartzea onartzera jo da.

Telebistagintza pribatuak oinarri gisa zuen legeak bestelakorik ahalbidetzen bazuen ere, emisio bakar eta zentralizatuaren bideari jarraitu zaio. Elebakartasuna (Kataluniarako hainbat programen salbuespenaz) eta homogeneitate kulturalaren eredia nagusi da Madrildik emititzen duten telebista-kate pribatuetan.

TB pribatuak martxan jarri zirenetik emisio-ordu kopurua biderkatu egin da baina ez du horrek edukinean aniztasuna ekarri. Izan ere, filmeei eta telesailei dedikaturiko programen multzoa puztu egin da nabarmen azken urte hauetan, %40tik

gora jarriz albistegiak %10ean dauden bitartean. Antzerako produktuak eskaintzen dituzten supermerkatuak dirudite telebista-kateak. Programazioaren inguruan izan diren aldaketak, TB pribatuen etorreraz bat izanik, kate guztietan gauzatu dira, hala publikoetan nola komertzialetan. Besteak beste, programazioaren espektakularizazioa eta programa jeneroen arteko mugak ezabatzea. Audientziak erakarri eta mantentzarazteko estrategia desberdinak programa guztietara heldu dira: eguneromititzen diren saioak (serializazioa), fideltasuna areagotzeko trikimailuak (lehiaketa eta sariak) eta ikus-entzunezko efektu elektronikoen erabilera neurrigabea, besteak beste. Programazio-parrila, gero eta gehiago, ikuskizun hutsa bilakatu da non albistegiak, *reallity show*-ak, lehiaketak, fikzioa eta mahainguruak antzerakoagoak baitira. Telebista monitorea zirko elektronikoa izatera pasa da, non iritzia eta informazioa, edukina eta publizitatea, gertaera eta fikzioaren arteko mugak bereizten nahiko lana baita.

Telebista-kate pribatuen etorreraz bat ezagutu diren aldaketen artean nola ez, hartzailegoaren banaketa eta zatikaketa gertatu da. Aukera gehiago edukirik, ikusle-kopurua kanal desberdinen artean barreiatzen da. Gainera, ardu-eskaintza eta programa ezberdinen edukinen arabera hartzailegoa zatitu egin da.

Aipaturiko zatikaketa horren ondorio zuzenena publizitateko fakturazioa da. Iragarleek, diru gehiago inbertitu beharra dute lehengo jende kopuruetara heltzeko eta gainera, telebista-kanal desberdinetan dirua jarri. Publizitatearen dirutzarrak lehen TVEra heltzen ziren modura orain beste kanal batzuetara ere iristen dira. Etekin ekonomikoaren atzetik ari diren telebista-kanal pribatuen eraginez, publizitatea dibertsifikatu egin da. Iragarki-formak ugartu egin dira. Lehen espotak ziren iragarki-forma bakarrak. Orain azpitolaketak, babesletzak, mikroprogramak, aipamenak, sponsorizazioak eta *bartering*-ak azaldu dira, besteak beste. Programaren edukina eta publizitatea bereiztezinak izaterainoko puntura heldu gara, ia.

Aipatu ditugunak borobilduz, telebista pribatuaren eragina, epe laburrean etekina lortu gura duten enpresen filosofian

gorpuztu da. Telebista-kanal desberdinek ahalik eta ikusentzule gehien lortzeko jarreran murgildu dira, horretarako egin behar reko guztiari ekiteko prest daudelarik. Errentagarritasun ekonomiko hutsaren parametroetan (ikus-entzule gehien saltzeko duen TB-ak publizitate gehiago eskuratuko du) programazioa arras komertzialdu, homogeneizatu eta pobretu egin da. Etekin ekonomikoaren eta telebistari atxeki izan zaion zerbitzu publikoaren arteko lehia pil-pilean dago.

Zurrumbilo honetan, Hego Euskal Herriaren telebidezko panorama ez da oso desberdina. Telebista-uhinei mugak jartzea zaila den bezala, *epe laburreko etekinaren* jarrera ere heldu da gure lurraldera. Hartzaile-kopuru handiena lortzea helburu bakarra dutenekin norgehiagoka, euskal telebistagintzara *berehalako errentabilitatearen* harra iritsi da, goreneko despatxoetara gainera. Madrildik datorren telebista-eskaintza neutralizatu gurak galtzaile paperean jartzen du ETB: jatorrizko helburuak betetzen ez direlako batetik, eta beti merkatu txikiagoan mugituko delako, bestetik. Gainera, Euskal Telebistak dituen bi kanalen arteko lehiak (enpresa berekoak izan arren merkatuan aurkariak baitira) bi fronte ditu: barrukoa (aurrekontu eta ekipamenduzkoa) eta kanpokoa (entzulegoa mugatua da eta dauden kanalen artean banatuko da). Egoera honetan gainera, euskarazko telebistagintza desorekatuta ageri da erabat. Etekin ekonomikoa (hartzailegoa, publizitatea...) eta hizkuntz ekologia ez doaz bat Euskal Herriaren kasuan.

ZERBITZU PUBLIKOAREN INGURUKOAK

Honek guztiak zerbitzu publikoaren kontzeptuaz galdetzerara garamatza. Telebista pribatuaren eta telebista publikoaren arteko ezberdintasun handi bat bakoitzaren helburuei dagokie. Lehenengoak, beste edozein enpresak bezalaxe, etekin ekonomikoa bilatzen du, horretarako bide ezberdinak izan ditzakeelarik: publizitatearen salmenta, harpidetza-saria, ekoiztutako produktuen salmenta, etab. Modu batera zein bestera finantzatzen delarik, telebista pribatuak ikus-entzule kopurua du

errentagarritasunaren iturburu. Publizitatetik bizi den telebista, iragarritako produktua eros dezaketenak erakartzen saiatuko da. Harpidetza-saria finantzabide duena berriz, harpidedun gehiago lortzen ahaleginduko da. Baina guztiok dute helmuga bera: ahalik eta jende gehiago erakartzea beren telebista-saiotara.

Telebista publikoak —administrazioaren eskuduntzako telebistak, alegia— bestelako helburuak ditu ordea: zerbitzu publikoa betetzea. Hots, telebista publikoak *lehenik* lortu behar duena ez da ahalik eta hartzaile-kopuru handiena, beste zer bait baizik. Esan nahi ote du honek zerbitzu publikoa eta ikusle-kopuru handia kontrajarriak direla? Ez horixe! Nekez jar daiteke zalantzan bere eginbeharra betetzen duen telebista publiko batek zenbat eta ikusle gehiago lortu, hainbat eta eraginkorragoa izango dela. Baina, Joan Mari Torrealdaik dioen bezala, zerbitzu publikoa eta hartzaile-kopurua ez dira beti ere derrigor ondo moldatzen². Zerbitzu publikotzat zer jotzen den, horren araberrako garrantzia eman beharko dio telebista publikoak ikus-entzule kopuruari.

Kasu honetan, zerbitzu publikoaren honako definizio hau erabilenezake: «*Una actividad considerada de interés general por una colectividad y como tal reconocida por el Estado. Dicha actividad de interés general no puede abandonarse a la iniciativa privada y al puro juego de las leyes de mercado, y por tanto el Estado asume directamente su responsabilidad y su control*»³.

Begi bistakoa da zerbitzu publikotzat jo daitezkeen ekimen askok ihes egiten diotela definizio honi, gizarteak bai baina Estatuak aintzat hartzen ez baititu. Hala ere, ETBren kasuan administrazio autonomikoak hala jotzen du. 1992an Kultura Sailak Gasteizko Parlamentuan aurkezturiko txostenak hamar urte lehenagoko legeak zioena berresten du: «*El primer rasgo distintivo de Euskal Telebista es su propia naturaleza, su configuración como servicio público para todos los ciudadanos (...) Una televisión diferente del modelo privado, donde las tendencias principales no obliguen a enfatizar el entretenimiento y la evasión del espectador, que no busque sólo una rentabilidad*

*ecónomica supeditada a estrategias comerciales ajenas y que trate de evitar, a través del producto ofrecido, la homogeneización e indiferenciación cultural de las sociedades, es decir, la subcultura de masas*⁴.

Ildo honetatik, EITB sortu zuen legeak beronen helburu nagusiak zehazten zituen: batetik, euskararen normalkuntza; bestetik, sortu berria zen eremu autonomikoaren inguruan gizartea integratzea, horretarako informazioa eta partehartzea bultzatuz.

Esan gabe doa administrazioaren ikuspegitik ikusita helburuok *interés orokorrekoak* direla. Aldi berean, nabarmena da telebista pribatuek ez dietela helburuoi erantzuten. Beraz, ETB bete-betean sartzen da hemen zerbitzu publikoaz lehen-
txoago emaniko definizioan.

HARTZAILEGOAREKIKO KEZKA

Hedabideek hartzailegoarekin duten kezka ez da berria, masa-komunikazioaren ikerkuntzaren hasieratik dator. Hobe esanda, ikerkuntza estatubatuarraren hasieratik. Kezka honen garrantzia ikustarazteko, gogora dezagun gaur egun hainbeste erabiltzen den iritzi-inkestaren lehenengo sortzaileetakoek (Lazarsfeld, Gallup, etab.) hedabideen hartzailegoari buruzko lanetan eman zituztela beren urratsak, 30eko eta 40ko hamarkadetan zehar. Orduan ere nagusi ziren EEBBetan hedabide pribatuak, eta honek publizitatearen menpe jartzen zituen. Menpekotasun honek hartzailegoarekiko kezka bultzatu zituen hedabideok, eta horrek baldintzatu zuen ikerkuntza estatubatuarraren hasiera, administrazio politiko-militararren beharrekin batera.

Interes ekonomiko honi, lehenengo ikerketa haietan agertzen zirenen planteamendu teorikoak ere gehitu behar dizkiogu. Hartzailea mezu pertsuasiboen bidez kontsumora bultzatu beharrrak, eta epe laburrerako eragina lortu nahiak, oso erabilgarri bihurtu zuten psikologia konduktista hedabideen eraginak aztertzeke garaian. Honekin batera, hedabideek eragindakotzat

gizabanako hartzailea jotzen zen bereziki, bigarren maila baiten geratuz masa-komunikazioak gizartean eragiten dituen ondorioak. Ikuspegi hau indartu baino ez zuten egin *masa gizarteari* buruzko teoria nagusiek: hauen arabera *gizabanakoen metaketa* hutsa baino ez zen *masa*. Gizarte tradizionalaren gainbeherak harreman komunitarioen haustura ekarri zuelakoan, gizarte modernoan gizabanakoa isolaturik ikusten zen. Isolatutako gizabanako hori zen hedabide modernoan menpe ikusten zena.

Aipagarria da, era berean, EEBBetan planteamendu hauek nagusitzen ziren bitartean, Mendebaldeko Europan beste nonbaitetik jotzen zuela hedabideekiko gogoetak. Hartzailegoaren neurketari baino, gizartean eragindako ondorioei arreta handiagoa jartzen zitzaion hemen. Eta, hain zuzen ere, bi azpikontinenteen arteko ezberdintasunetako bat honako hau zen: EEBBetan ez bezala, Europako ikus-entzunezko hedabideak (irratia lehenengo eta telebista geroago) estatuen eskuduntza-koak izan direla hasieratik, azken hamar-hamabost urteotako pribatizazio uhina etorri artean.

HARTZAILEGOA BAI, BAINA ZERTARAKO?

Zerbitzu publikoa, definitu den legez, ez zaio gizabanako bakoitzari zuzentzen, gizarteari baizik. Egia da gizartean eragin nahi dena eragiteko banako hartzaileengandik igaro beharra dagoela. Baina *igaro* horrek *zeharkatu* nahi du esan, ez bertan gelditu bidaiari amaiera emanda. Alegia, gizartea gizabanako metaketa hutsa ez baita, lortu nahi diren helburuak lortzeko gizartean nola eragin hausnartu behar du telebista publiko batek. Eta horretarako kontuan hartzeko datuetako bat baino ez da neurketa koantitatiboa; inolaz ez datu bakarra, ez eta nagusia ere. Soziolinguistikak ederki asko erakutsi duenez, hizkuntza baten egoeraz ezer gutxi esaten digu zenbat hitzun duen jakiteak. Datu interesgarriagoa da, ordea, gizarteko zein funtzio betetzen den hizkuntza horretaz, eta zein ez. Berdin gertatzen da hedabide publikoaren emaitzak ebaluatu behar ditugunean: hartzaileen kopuru hutsak ezer gutxi esaten

digu euskararen normalkuntzarako edota nazio-eraikuntzarako bidean eginiko aurrerapenaz. Adibidez: *Euskaldunon Egunkaria*-k Euskal Herriari ematen diona neurtzeko irakurle-kopurua erabiliko bagenu, apenas ezer aportatzen ez diola esango genuke: ia hiru milioiren artean 12.000 pertsonak erosten dute; irakurri, Euskal Herriko populazioaren % 99ak (bai, lau-rogeita hemeretziak) ez omen du irakurtzen. Baina egunkari honek euskaldungoaren kohesioari, hizkuntzaren normalkuntzari, gizarteko subjektuen eraikuntzari, edota beste inon elkar aurkitzen ez duten joera politiko ezberdinen arteko topaketari orain arte egindako mesedeak, ordea, zenbakiotan ikusten ez diren datuak dira. Sozialki, ordea, garrantzi handiko gertaerak.

ZER EMATEN DIO ETBK EUSKAL GIZARTEARI?

Ondorio gisa, gogoeta egin dezakegu ETBk gaur egun euskal gizarteari ematen dionaz. Euskarazko kateak, berez, zerbitzu publiko bat betetzen duenik ezin ukatu: bizi dugun egoera diglosikoan erdarak hartua zuen eremu batera sartzen da. Hasteko zerbait bada, eta garrantzitsua, euskaldunok euskaraz bizi ahal izateko urrats bat gehiago. Urrats horren luzera, ordea, ETB 1ek gauzatzen duen politikaren arabera izango da: umeei edo kirolzaleei bakarrik zuzentzen bazaie, erren geratuko da; informazioa, zinema edo beste edozein jenero erdarazko katearen esku uzten baditu, eremu horiek geratuko zaizkio irabazteke euskarari; joera politiko bat edo beste zentsuratzen badu, nekez lortuko du euskaldunen arteko topagune bihurtzea. Bestalde, euskarazko telebistak berebiziko garrantzia izan dezake —eta onartu beharra dago jadanik baduela zenbait kasutan— euskararen corpusaren normalkuntzan, euskaldungoaren elkar topaketarako, edota kultur nortasuna sendotzeko, besteak beste. Eta, bereziki, oraindik euskarak irabazteke dituen eremu demografiko handiak erakartzeko, baldin eta ETB 1 kalitatezko telebista bihurtzen bada eta horrekin euskara bera prestigiatzen badu. Euskara gizarteko prestigioaren gainurretara igota, gizarteko dinamikak berak hedatuko du espa-

rru guztietara. Honek ez du esan nahi elite batentzako telebista egin behar denik, euskaraz oso gauza txukunak —eta merkatuko dialektikaren menpeko telebistek egiten dituztenak baino askoz txukunagoak— egin daitezkeela erakutsi behar dela baizik. Alegia, ETBk lehen-lehenik bere eginbeharra betetzeari begiratu behar diola, eta *gero* hartzaile-kopuruari. Horrekin batera, behingoz gauza bat argi utzi beharra dago: ETB 1 ez da, norbaitek inoiz esan bezala, «milioi erdi lagunentzako telebista», Euskal Herri osorako telebista baizik.

Jakina, hau diogunean arazoa sortzen da: nondik atera kalitatezko telebista egiteko baliabideak? Honek zerikusi handia du ETB 2ren paperarekin. Kate honen kasua euskarazkoare n arras ezberdina da, betetzen duen zerbitzu publikoari dagokionez. ETB 1ek euskarazkoa izateagatik berez nolabaiteko zerbitzu publikoa betetzen duela esan dugun moduan, ETB 2ak, gaztelaraz aritze soilagatik, erdararen nagusitasuna birsortzen du. Euskarazko kateak beste inork ematen ez dien zerbaite eskaintzen die Euskal Herriko populazioari eta euskal gizarteari: euskarazko telebista. Gaztelarazkoak, ordea, gainerako telebistek —pribatu zein estatalek— eskaintzen duten gauza bera eskaintzen du kasu askotan. Arrazoimenaren erabilerarekin eta are bestearerikiko errespetua hedatzearekin zerikusirik ez duten saio istilutsuek, euskal kultura edota euskal nortasun kolektiboa bultzatzetik milaka kilometrora dauden ikuskizunek, eta antzekoek, zein zerbitzu publiko betetzen dute? Jende baten aisia asetzea izan liteke, baina esana dugu hori ez dela ETBri dagokion zerbitzua, dagoeneko beste askok betetzen baitu. Diru iturri izatea? Bere baliabide propioez (publizitatea eta salmentak) aumekontuaren % 13a baino estaltzen ez duen telebista batentzat ez dirudi nahikoa arrazoi. Are gutxiago, jorkaera horrekin euskarazko telebistak bete beharko lituzkeen helburuak oztopatzen badira —eta halaxe gertatzen da, ETB 2ak benetako zerbitzu publikoa bete lezakeen kateari baliabideak jaten dizkionean, edota bere edukinek hizkuntz eta kultur diglosia birsortzen dituztenean—.

Gure iritziz, hartara, zerbitzu publikoaren definizioak ETBren bi kateen izateko arrazoiaren eta bakoitzaren zereginen inguru-

ko eztabaidara eramán beharko gintuzke. Era berean —eta hau ETBren zereginak gáinditu eta Hego Euskal Herriko administrazioari dagokion arloa da— zebitzu publikoaren kontzeptuaren aplikazioari ere heldu beharko litzaioke: noiz hasiko da beste telebista publikoa (TVE) eremu honetan dagokion funtzioa betetzen? Areago: ez ote dute bertoko administrazioek ezer esan behar telebista pribatuen jarduerari buruz? Alferrikakoa gerta daiteke administrazioaren eskuduntzako telebistek zerbitzu publikoaren alde egiten duten lana, telebista pribatuek aurkako joerak nagusitzen badituzte. Hor merkatu librearen legeekin egiten dugu topo; hala ere, zereginik badagoela uste dugu. Egon ere, Europar Batasunaren eraikuntzarekin hain arduratsu agertzen diren botere publikoak azkar asko konturatu ziren arazo horretaz: «*Kultur eredu bakarra orokortzea desastrea litzateke. Erregimen totalistek azkenean lortu ez dutena, diruaren legeek lortuko ote dute, indar teknikoén laguntzaz? Izipirituaren emariak ezin dira merkantzia huts gisa hartu.*» Esaldia François Mitterrand-ena da (*Le Monde*, 1993ko ekaina), eta GATTen inguruko negoziaketen barnean plazaratua dago. Horrela, kultur produktuak munduko merkatu libreetik kanpo uztea lortu zuten. Argudio sakon honek zentzua izan badu *kultura europarra* babesteko, ez ote du are zentzu handiagoa euskal kulturaren normalkuntzan? Europar Batasuneko botereguneek telebistari nola edo halako mugak eta kuotak —produkzio motari zein publizitateari dagokionez, etab.— ezartzeko ahalmena badute, euskal administrazioak ere ahalmen bera beharko luke, bertan diharduten telebista guztiei ere hizkuntz eta bestelako kuotak ezarri ahal izateko. Honek, esan bezala, ETBri buruzko debatea gáinditzen du; baina berau egiten denean albora utzi ezin daitekeen gaia da.

1. Ikus FUNDESCO (1995): *Comunicación Social 1994*. Tendencias. Fundesco, Madrid (29. orr.). Era berean, estatuko zein nazioarteko talde multimediek eta bestelako taldeek telebistagintzan zein bestelako hedabideetan duten presentzia ikusteko, iturri berberera jo dezake irakurleak.

2. TORREALDAI, J. M. (1993): *ETB eta euskara, Jakin*, 75. zkia., Martxoa-Apirila, 151-159 (158. orr.).

3. TREMBLAY, Gaetan (1988): *La noción de servicio público*, *Telos*, 14. zkia, Uztaila-Abuztua (57. orr.).

4. KULTURA SAILA (1992): *Euskal Telebista. Txostena*. Eusko Legebiltzarrean aurkezturiko eztabaida txostena. Gasteiz, Ekaina (4-5. orr.).

ETB: 25. URTEURRENAREN BIDEAN

*LUIS ALBERTO ARANBERRI **

ETB sortu zenetik honako hamabi urteren balantzea egiteak eta euskararen normaltzearekiko eragina aztertu nahi izateak atzeranzko begirada ahalegintsua eskatzen dute. Kontua ez da, inondik ere, malenkoniari amainu ematea 80ko hamarkadako egoeraz oroitzea baizik. Izan ere, orduko giro hura orain zeharo sinesgaitz iruditzen zaigun arren, bizitza bera bezain egiazkoa eta benetakoa izan zen. Zail gerta dakiguke lorturiko emaitzen balorazio objetiboa egitea baldin, hainbat segunduz baino ez bada ere, euskararen eta euskal ikus-entzunezkoen egoera 1982ko abenduan zertan zen gogorazten ez badugu:

— Telebistako *barne* produkzio guztia —gaztelera hutsez— Telenorten egindakoa baino ez zen.

— Ez zen bikoizketa-industriarik, bat bera ere.

— Orohar, ez zegoen batere bideo-ekoiztetxerik.

— Dozenerdi besterik ez ziren bere lana euskaraz egiteko gauza ziren kazetari lizentziatuak.

— Euskal Herri osoan bi baino ez ziren euskaraz idazteko gai izateaz gainera, noizbait telebistan aritutako erredaktoreak. Gogora ditzagun: Maite Barnetche (FR3) eta Jose Mari Iriondo (TVE).

— Nazioarteko merkatuak ez zuen ulertzen TVE ez omen zen beste *spanish television* berri hark zer dela-eta filmeak eta telesailak erosi nahi bide zituen bere kasa, kabuz eta diruz.

— Laburbilduz, ez Euskadirik eta ez euskararik ez zen telebista-industriaren arabera.

Hamabi urte geroago, egoera arras desberdina da:

— ETBk 5.000 ordu baino gehiago eskaintzen ditu urtero euskaraz.

— ETB da, Estatu espainarraren barruan, portzentaiaz barne-produkziorik gehien eskaintzen duena: ETB 1ek %80 eta ETB 2k %50 (1994).

— Euskal aktore-aktoreen datuen arabera (1993), autonomi-telebista guztien arteko ekoizpen osoaren %46 Euskal Herrian egiten da, nahiz eta proportzioan ETB %8 besterik ez izan.

— Aurtengo udazkenean, egunero ordu erdiko telesaila ekoizteari ekin zaio. Berrehun milioitik gorako ekoizpen garestia, 300 lagun biltzen dituen: 200 aktore-aktorea, 20 gidoigile, 3 errealizazio-talde etab. Segurutik, euskal ikus-entzunezkoen historian inoiz egin den ekoizpenik galantena.

— ETBk 4.000 milioiko ekoizpen-enkarguak luzatu dizkie ekoiztetxe pribatuei 1994an.

— Hiru bikoiztetxek eta zenbait euskal enpresak hainbat produkzio eta ikus-entzunezko teknologia berri eskaintzen dute euskal merkatutik kanpora.

— Gaur egun euskal irrati-telebistaren baitan euskaraz diharduten langileak Gutenberg-en garaietatik 1982rarte sekula euskal kazetaritzaren historian aritu izan diren guztiak baino gehiago dira.

— ETB da informazio orokorra euskaraz eman ohi duen telebista-aukera bakarra eta 250.000 lagun dira egunero gutxiarik ordu erdiz euskarazko telebista ikusten dutenak.

— ETB 2, lekuan lekuko informazioa eskainiz, euskal informazio-esparruan ezinbesteko erreferentzi-puntua da. ETBren albistegiaren audientzia metatua 750.000 lagun ingurukoa da eta egun guztian zehar 1.300.000 lagun dira gutxi edo asko ETB ikusten dutenak.

— ETB 1 da gazteek gogokoen duten katea: %33.

— «Superbat» klubak 41.000 bazkide ditu dagoeneko (1994eko irailean), Euskadin bazkiderik gehien duen elkarteak hain zuzen ere.

— ETB, Basque Television izenez, erabat ezaguna eta estimatua da nazioarteko merkatuetan eta hainbat aldiz saritua izana han-hemenkako nazioarteko topaketa eta lehiaketetan.

— *Input* delakoa, telebista publikoen nazioarteko biltzarra, Donostian eratuko da datorren urtean. Urtez urte hainbat telebista-kazetari, ekoizle eta errealizatzaile elkartu ohi dira *input*-en inguruan eta horietako 1.200 lagun Euskal Herrian bilduko dira hurrengo maiatzean. Berau izango da hizkuntza murriztuz emititzen duen nazio-telebistak antolaturiko lehen edizioa. Eta berau da, hain zuzen ere, nazioarteko *board*burukide-taldeak gogotan izan duen asmoa Euskal Herria aukeratzeko orduan.

Beraz, hamar urte luzeren buruan Euskal Herria erabat aldatu da telebista-munduaren baitan. Ez izatetik izatera ezezik, hizkuntza-normalizazioari lagundu, euskaldun guztion topaleku bihurtu eta Euskadiren nazioarteko enbaxadorerik nabarmenetakoa izateaz gainera, gorantza ari den ekonomi-sektorearen motore izatera pasatu da.

Honako gonparazio-sorta hau hankamotz geratuko litzateke segurutik baldin etorkizunari begira sikeran hiruzpalau abiapuntu gogoratuko ez bagenu:

— Bai diru-iturritz eta baita programazio-motaz ere (lehen katea euskaraz eta bigarrena, gaztelaniaz, guztiz informazioari atxikia), ETB Estatu espainiarreko telebistarik publikoena da. Guzti hau arriskutsu samarra da, zergak ordaindu behar dituenarentzat telebista-motarik garestiena da-eta; baina, bestetik, baita indartsuena ere, 1982ko abiapuntuei tinko eusten zaien heinean. Hala eta guztiz ere, ezin ahaztu eredu espainiarra ez dela erreferentzia bakarra eta Japoniatik Dani-markara, edota Suediatik Britainia Handira, %100eko finantziatio-publikoaz irauten duten beste hainbat eredu ere egon badagoela. Izan ere, munduko hogeit hamar telebista publikorik handien artean, TVE eta Hego Koreako MB besterik ez dira bere burua autofinantziatu beharra dutenak.

— ETB 1i dagokionez, Islandian-edo izan ezik, ez dago munduan 500.000 hiztunentzako ari den beste nazio-telebistarik. Gales, Estonia, Kanadako zenbait leinu etab., edo biztanlez gehiago dira edo ETB 1ek baino askoz ere ordu gutxiago eskaintzen dute asteko. Erronka polita da zalantzarik gabe, baina zail-zaila zifra handiek agintzen duten telebista-munduan.

— ETBren bi katek elkarrekin osatzen duten eskaintza telebista-merkatuaren %20 da batezbeste Euskal Herrian. Hiritar horietatik ETBk jasotzen duen erantzuna %18 da 24 ordutan eta %23 iluntzeko 20.30tatik gaueko 23.30ak arte. %23ko audientzia horretatik ETB 1ek %8tik gora jasotzen du eta ETB 2k %15 inguru.

— Datu hauen arabera, ETB da, iluntzetik gauerdira bitartean, bigarren telebistarik ikusiena Euskal Autonomi Elkartearen, eta lehena euskaldunen artean. Aldi berean, euskaldunen %24k ETB 1 ikusten du eta ETB 1 da, hain zuzen ere, bigarren telebistarik ikusiena euskaldunentzat.

— Oro har, guztiz oreka arrakastatsua da ETBrentzat, ematen duena baino gehiago jasotzen baitu, nahiz eta beste ezein telebista baino kostu askoz ere murriztagoz aritu. ETBren mesedetan irauten duen oreka honi eustea, eta zer esanik ez gainditzea, guztiz erronka zaila izango da gero eta merkatu lehiakorrago, komertzialago eta berdintzaileagoan.

— ETB lek barne-produkzioaren aldeko apostua egin du eta ETB 2k informazio-bokazioa sustatu. Berebiziko bi aukera dira, dagoeneko arrakastaz frogatu diren aukerak, gainerako eskaintzetatik bereizten direnak. Baina baita edozein programazioan aukerarik garestienak ere. Eta denok jakitun egon beharko genuke.

GARAPENAREN HARMAILAK

Ikusi ahal izan ditugun datuen arabera, azken hamarkada honetan izan diren aldaketak nabamen-nabamenak izan dira. Uztan oraingoz gauzak ondo egin ote direneko eztabaida, hobeto egiterik ba ote zegoeneko edota hobeto egiterik aukera izan eta egiterik nahi izan ez ote denekoa. Aipagarri dirateke, orain, urtez urte hartu izan diren neurri erabakiorrak, hasierako egitasmoa aldatu izan dutenak eta gaur egun indarrean dagoen formula hobeto ulertzeko ezinbeste ezagutu behar direnak.

EGITASMO ELEBIDUNA

Harrigarri badirudi ere eta orain inork gogoratu nahi ez duen arren, ETB egitasmo elebidun gisa sortu zen sortu. ETBren lehen zuzendari-taldeak antolatu zuen lehendabiziko programazioa —Studio Hamburg Consulting alemaniarrek aztergai erabili zuena eta egitasmoaren dimentsiorako zein giza eta teknika-baliapideak proposatzeko oinarritzat erabili zena— elebiduna izan zen batere zalantzarik gabe. Lehen programazio haren arabera, entretenimenduzko barne-produkzio guztiak euskaraz izan behar zuten, kanpo-egitarauak —euskaraz bikoiztua gaztelaniazko azpidatziekin— eta albistegi guztiak gaztelaniaz. Oinarritzeko kontzeptu hauen arabera, euskarari programazioaren %60 segurtatzen zitzaion eta erdarari %10, gainerako %30a *koltxoi* gisa utziz, unean uneango kasu eta erabakien arabera. Honelatsu, euskararen presentziak %60tik %90era bitartekoa izan behar zuten eta gaztelaniazkoarenak %10etik %40ra bitartekoa. Hauxe zen, eta ez beste, 1982ko urrian ETBren lehen arduradunek eskuartean zuten, genuen, programazio-eredua.

ETBren aurreneko saioa, 1983ko urtarrilaren 1eko lehen ordu txikietan, irizpide horien arabera egin zen eta irizpide berberoriek indarrean jarraitu zuten urte bereko otsailaren 7rarte. Egun honetan, Euskararen Aholku Kontseiluaren aginduz eta ordurarte irrati eta prentsa elebidunean izandako eskarmentu txarra gogotan izaki, programazio elebidunik ez egitea erabaki zen eta hizkuntza bakoitzaren araberako «hizkuntz-ordu» desberdinak egitea pentsatu. Ondorioz, iluntzetik aurrerako programazio guztia —gaztelaniaz izateko prestatua zen albistegia tarteko— euskaraz egitea erabaki zen eta gaueko 21.00etako erdal-albistegia eguerdira pasatu. Une hartantxe sortu ziren «Teleberri» eta noizbait jaio behar zuen ETB 2, ETB 1 bere kasa, euskara hutsez, noizbait ere izan zedin. Ondorioz, «Gaur egun» albistegia euskaraz sortu zen, gaztelaniari iluntzeko 19.00etatik gauerdira bitarteko aukera ukatu zitzaion eta gaztelaniazko eguerdi-programazioa, «Teleberri» tarteko, burutu zen, bere bidea egin zezan. Beraz, nolabait esateko, ia hasieratik beretik bi kateak elkarrekin abiatu ziren, nahiz eta frekuentzia berean, erdarazkoa eguerdiz eta euskarazkoa iluntzez. Hiru urte geroago, 1986tik aurrera, bi frekuentzia ezberdinetan emititzeari ekin zitzaion, eta ordurarte eguerdiz besterik ez zen gaztelaniazko programazioa iluntzeko esparruaz jabetu zen eta iluntzez baino ez zen euskarazkoa eguerdiz ere hasi.

Ukaezina da, 1983ko Urteberriko lehen programa pilotu hartatik otsailaren 7an eguneroko programazio arrunta hasi arte, funtsezko aldaketa izan zela ETBren hizkuntz-irizpideetan. Bi data horien artean, urtarrilaren 17an hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak Joseba Arregi izendatu zuen Hizkuntz Politikarako idazkari eta Euskararen Aholku Batzordearen lehendakari. Datu hau berebizikoa da hamar urteotako ETBren nondik norakoa ulertzeko, zer izan den eta zer izan zitekeen jakiteko. Ez programazio-eskaintzaren aldetik soil-soilik, hizkuntz-normaltzearen aldetik ere bai baizik.

Beste harmaila historiko bat apurka-apurka azpidatziak kentzeko erabakia izan zen. Azpidatziak gizarte-integratuztat defendatu baldin baziren ere hasieran, lehen urteko azterketen arabera berehala auzitan jarri zen ideia hura. Hainbat ikerketa

egin ostean argi eta garbi frogatu zen haurrak ez zirela, ez direla, mezu hirukoitza aldi berean jarraitzeko gai, alegia: bideoa (irudia), ahotsa (audioa) eta azpidatziak (testua). Ondorioz, lehen urtean kendu ziren haur-saioetako azpidatziak, 1985ean gaztetxoan programetakoak eta, azkenik, 1992an, pertsona heldu eta larrienetakoak ere. Azken erabaki hau ez zuen pedagogiak erakarri, merkatuak baizik. Izan ere, 1991n hiru telebista pribatu sortu ziren eta filme-eskaintza erabat gehitu zen. ETBren lehen urteetan azpidatzi eta guztiko euskarazko filmea gaueroko lehen edo bigarren eskaintza izan ohi zen; 1991tik aurrera, ostera, beste bat gehiago laupabosten artean. Egoera berri hartan euskaraz ez zekien hiritarrak ez zuen euskarazko eskaintzaren beharrik eta euskaldunak eskertu egin zuen azpidatziak behin-koz kentzea. Hala ere, jakin dezagun, azpidatziak kentzearekin batera, euskarazko filmeen audientzia murriztu egin zen.

ETB 2REN ERAGINA

Bi frekuentzian emititzen hasi eta 1986tik aurrera gaztelaniazko katea berezia sortzeak erabateko barne-aldaketak eragin zituen ETBren eguneroko bizitzaren baitan. Gehienon ustez, aldaketarik handiena ez zen ETB 2 indarrean jartzea izan, emanaldi berriari zerion filosofia baino. Izan ere, informazio-saioetan oinarritutako gaztelaniazko katearen egitasmoa ETBren beraren genesian zegoen (hasieran kontratatu ziren zazpi kazetarietako bik ez zekiten euskaraz) eta Eusko Jaurlaritzak urtebete lehenago jaso zuen aurreko zuzendaritzarengandik (1985) informazio eta kultura-giroko erdal-programazio alternatiboa, euskarazko kateari ezelango norgehiagoka edo lehiarik egin behar omen ez ziona. Beraz, ETB 2ekin batera 1986an proposatutako egitasmoaren iraultza ez zen hizkuntzarekikoa, gaiekikoa baizik, programazkoa alegia. Jose M. Gorordo zuzendari nagusiarekin lehen aldiz planteiatu zen ETBn Euskal Herritik kanpoko artista eta profesionalen kontratazioa, estraineko hasi ziren ematen Euskal Herritik kanpora ere normaltasunez ikus zitezkeen programak eta inoiz ez bezala indartu zen ordurarte uxatuak ziren lan-sistemak eta produkzio-motak martxan jartzeko tentaldia.

Egoera berriak hizkuntz-irizpideak ezezik, kontzeptu-irizpideak aldarazi zituen. Balore-aldaketa nabarmena nagusitu zen etxe-barruan, euskararen mesedetan hartutako lehentasunak ahuldu egin ziren eta erdaraz hasi zen egiten euskaraz egiterik ez zegoen hainbat programa-mota. Gainera, aldaketa guzti hura izugarritzko erraztasunez gertatu zen. Inork ez zuen protestarik egin, ezein kexurik ez zen entzun, aurreko ereduak ez zuen defendatzaile amorraturik ezagutu eta orok amore eman zuen goitik behera zetorren aldaketa hura tekniko hutsa bailitzan. Are gehiago, mundu guztia ustekabeen zain balago bezala. Madrilgo Ikasketa eta Ikerketarako «Juan March» Institutuaren ardurapean, Josu Mezo Aranzubiak ETBren barruan gertatutako aldaketa hura aztertu zuen 1989an, ingelesez egindako «Organizations versus policy-makers» txostenean, eta honako ondorio honetara iritsi zen: ETBn izandako aldaketa ez zuten kanpotikako arrazoiek eragin, enpresaren beraren barrukoek baizik. Tesia zera zen: enpresak gorputz *bizikiak* dira eta euren dinamika propioa dute. Beste modu batez esanda: beraiek ez uste arren, ETBko langileek nolabaiteko arnasaldia hartu bide zuten euskal gizartean nagusi zen hizkuntzan ere lanean hasteko aukera eman zitzaienean.

ETB 1EN HIRUKOIZTASUN LAUKOTEA

Euskararen funtzioaz ETBren programazioaren baitan eragin erabakiorrik izan zuen beste urraspideetakoa, 1990ean FORTAk (Irrati eta Telebista Autonomikoen Erakundearen Federazioa) lortu zuen LFPre (Futbol Profesionaleko Liga) futbol-partiduen eskusiba izan zen. Josu Ortuondo ETBren zuzendari nagusi zela lortu zen eskusiba garrantzitsu hari beste erabaki are garrantzitsuagoa jarraitu zitzaion; alegia: merkatuan zegoen (eta dagoen) kirol-emanaldirik erakarriena, preziatuena, estimatuena eta ikusiena euskaraz soilik ematea. Eskusiba honetaz euskaraz baliatzeaz gainera, ETBk hasierako ildo beretik jarraitu izan zuen horren fidela den haur ikus-entzulegoari erantzuten eta euskal barne-produzioa zuzperten. Geroztik, hirukoiztasun honetan oinarritu izan da euskal katearen programazioa, hau da, kirolak, haur-progra-

mak eta barne-produkzioa. Laburbilduz, ETB 1en programagileek ondotxo dakite neska-mutikoak direla ikus-entzulerik esker onekoenak, futbola saiorik ikusiena eta euskal produkzioaren sustapena (aktore-aktoreak, gidoigintza, errealizazioa etab.) inork zalantzan jartzen ez duen bokazioa.

Honek ez du esan gura ETB 1ek albistegiak gogotan ez dituenik. Eguneroko «Iparraldearen orena», gaueko 10etan —audientzia potentzialik gehien dagoen orduan— «Gaur Egun» eskaintzea edota goizeroko «Euskadi zuzenean» dira, besteak beste, euskarazko informazioaren aldeko apostu ageria, telebista publikoak ezik beste ezein telebistak inoiz egingo ez duena. Ez hizkuntzaz soilik, ezta kontzeptuz edo jarreraz ere.

Zeharo oker ari da, bestalde, ETB 1en albistegiak testimonio samarrak direla uste duena. Gauza bat da gaztelaniazkoen ondoan euskarazko albistegien gizarte-eragina bigarren mailan gelditzen dela aitortu beharra, eta beste bat, guztiz ezberdina, euren garrantzia gutxiestea. 150.000 lagunetik gora dira ETB 1en albistegiak informazio-erreferentziatzat dituzten euskaldunak eta ez gara orain beste ezein komunikabide edo inprimakirekin gonbaratzen hasiko.

HIZKUNTZ-KATEAREN ETENA

Langile-kontratazioari dagokionez, hasiera-hasieran euskaraz ez zekien zenbait profesionalek behin-betiko lanpostu finkoaz jabetzerik izan zuen, 1982 hartan albistegiek gaztelaniaz izan behar bait zuten. Ondoren, hasierako ideia hura uxatu zenean, euskara-mailaren eskakizuna zorrotzu egin zen, euskarazko programazioa erabat nagusitu zen-eta. Geroztik, berriz, ETB 2ren sorrerarekin batera, zenbait hizkuntz-perfilen proposamena egin zuen Administrazio Kontseiluak, lanpostu guztiek euskara-maila berdina behar ez zutelakoan. Esate baterako, ontzat eman zen operatzaileek errealizatzaileek baino euskara-maila urriagoa behar dutela euren lana txukun samar bete ahal izateko eta mantenu-teknikariek, berriz, operatzaileek baino hizkuntz-ezagupide urriagoa. Honetaz guztiaz, hizkuntz-perfilei logikiekkeen logikaz gainera, zerikusirik ere ba-

du soziologiaren merkatuak; alegia: euskaraz dakiten kazetariak (ondo edo txarto gero ikusiko dugu) aurkitzea batere zaila ez den bitartean, ez da horren erraza euskaraz lan egiteko hainbat euskara dakiten injineruak, fisikariak edota meteorologoak. Honek guztiak koherente samarra dirudien arren, euskara-ezagupidearen araberako lanbide-sektore ezberdinak eragin ditu, hainbat identifikazio-eragozpen sortaraziz eta edozein funtziotan beharrezko den lan-taldeen hizkuntz-katea hautsiz. Hau da, aski da euskaraz ez dakien bat bakarra, teknikaria, kazetaria nahiz errealizatzailea izan, lan-katea osoa eten eta gaztelaniaz mintzatzen jartzeko.

Bestalde, hizkuntz-ondorio nabarmenak erakarri zituzten teknologia berriak indarrean jarri ziren une berean sortu zen Euskal Telebista. 1980ko hamarkadan telebistak zeluloidez edo pulgada bateko bideoz ari ziren lanean. ETBk, ordea, hasieratik beretik uxatu ahal izan zituen formato «zaharkitu» haiek eta goenbandako U-Matic sistema berria martxan jarri, edizioa renerrantzukizuna montatzailearengandik kazetariarengana pasatuz. Honela, kazetaria bera, *telebista-kantautore* gisa, albiste osoaren sortzaile bakar bilakatu zen. Une hartantxetik, kazetaria dugu irudi-konposaketa, testu-idazketa eta dagokion lokuzioaren egile. Ondorioz, teknologia berrien baliapideek, batetik, eta aurrekontu murrizten mugek, bestetik, hiru funtzio klasikoek erantzukizuna pertsona bakarraren bizkar utzi zuten. Gerroztik, ETBren kazetaria ez da, segurutik, irudi-konposatzailearik onena, ezta, beharbada, testu-idazlerik onena ere, eta ez du derrigorrez ahotsik onenaren jabe izan beharrik baina, aintzinako kantautore klasikoek ildoari jarraituz, berau dateke hiru artiston sintesia eta, gainera, guztia gutxi bailitzan, bi hizkuntzatan, euskaraz zein erdaraz, munduan beste inon ez bezala. Batere zalantzarik gabe, teknologiaren arabera behintzat, aldaketa hau urraspide handia da, lanbidez aberasgarria, funtzioz integratzailea eta diru-kostuz guztiz defendagarria. Baina, euskara bezalako hizkuntza ez-normalduaren testuinguruan biderik onena ote den... gutxienik eztabaidagarri da.

Irakurle bat baino gehiago harrituko da, beharbada, lehen itxuraz hizkuntz-eremuarekin zerikusi askorik ez duten zertze-

ladez honenbeste xehetasun emateagatik, baina begibistakoa da teknikak zeharo baldintzatzen duela mezua eta, ondorioz, emisio eta zabalkunde-lanetan erabili ohi den hizkuntza. Michael Schudson-en bidetik abiatuz, gero eta gehiago ontzat eman beharko, komunikabideetako barne-baliapideek berauek transmititutako mezuak baldintzatzen dituztela. Are gehiago, nolabaiteko *macluhanismo biguna* aldarrikatuz, medioa ez da dagoeneko mezua, Marshall McLuhan-ek esan bezala, horra-ko mezu hori egituratu eta murrizten duena baino.

Albistegietako euskara-mailan eraginik izan duen beste arau orokor bat, testuen jatortasun eta zuzentasunaren erantzukizuna kazetariari beraiei leporatu behar zaiela onartzea izan da. «*Todo redactor tiene la obligación de releer y corregir sus propios originales cuando los escribe en la redacción o los transmite por télex, vídeoterminal o un instrumento similar. La primera responsabilidad de las erratas y equivocaciones es de quien las introduce en el texto; y sólo en segundo lugar, del editor en -* cargado de revisarlo» (El País, «Libro de estilo», 16. o). Hau da, besteak beste, Euskal Telebistan lehen egunetik indarrean jarri nahi izan zen tesia, zuzentzaileari eska zekiokkeen erantzukizunaz aparte. Nik neuk, behintzat, betidanik defendatu izan dut Unibertsitatean bost urtez aritu eta Administrazio Publikoan sartzeko azterketa gainditu duen profesionalak ezein zuzentzailearen laguntzarik gabe lan egiteko beste euskara —eta erdara— jakin beharko lukeela. Nire esperientziaren arabera, bereburua zuzentzaileen laguntzaz babesturik sumatzen duen kazetariak ardurabako galanta izaten amaitzeko arrisku handia du, bere erantzukizunari uko eginez eta bere erruak inoren bizkar jaurtiz. Esan ere esango nuke, ez garela *filologoaren sindromea* gainditzeko gauza izan. Hamabi urte daramatzagu hankasartze berberak zuzentzen eta ez gara, nonbait, konturatu, arazorik larriena ez dariola morfologia edota lexikologiari, beharrezko komunikabide-kodeak ez asmatzeari baizik. Zuhaitzek ez digute, antza, basoa ikusterik uzten. Dena den, informazio-gisa, gaur egun Euskal Telebistan zortzi zuzentzaile daude, zenbaitek batere ez dagoela uste arren: hiru albistegietan, bi kanpo-egitarauan, bi bame-produkzioan eta bateragilea EITBren Zuzendari Nagusiaren ardurapean.

Lehenxeago agindu bezala, merezi du euskal erredaktoreen euskara-maila eskasaz-edo ausnarketaren bat egiteak, gauza jakina baita azken bolada honetako bizpahirutan ETBren lan-postu-eskariak betetzeke geratu direna azterketetara euren burua aurkeztu duten kazetarien maila urria dela-eta. Hiru dirateke, besteak beste, erredaktoreen hizkuntza-gaitasunaren kaltetan eraginik izan duten faktoreak:

— ETBren egitasmoak eraman izan duen abiada azkarra, aldi berean lan-merkatuak (eta Unibertsitateak) erantzun ahal izateko baino azkarragoa nonbait.

— Albiste Zerbitzuak Iurretan kokatu izana, lan-postua hautatzeko aukera izan dutenek —gaituenek, alegia— hiriburuetara joatea nahiago izan bait dute.

— ETBn lan egin ahal izateko kazetaritzaz lizentziatua izateari eman izan zitzaion lehentasuna, Euskadi Irratiaren inguruan gertatu ez ziren presio korporatibistei jaramon eginez. Irratian hizkuntz-egagupidea baloratu zen lehenik eta ikasketak gero; telebistan, ostera, alderantziz.

BARNE-PRODUKZIOAREN IKURRAK

Barne-produkzioari dagokionez, hiru izenburu ezagunek bereizten dute, besteak beste, ETBk arlo honetan izan duen bilakaera: «Dallas» 1983an, «Bi eta bat» 1991n eta «Goenkale» 1994an.

Esan gabe doa «Dallas» ez dela, inondik ere, euskal barne-produkzioa, baina berau izan zen lehen urteetan Euskal Telebistaren programazioaren sinbolo eta ikurrik nagusia. Bikoizketaren lehen urraspideak J.R.-ren ahotsetik joan ziren, ETB guztia Iurreta besterik ez zen eta barne-produkzioa albiste-alarri baina ez. «Dallas», *euskara jalgi hadi kanpora* delako leloaren oihurik adierazgarrietakoa izan zen, aktore beltzek euskaraz egiterik ba ote zuten eztabaidatu ere eztabaidatu ohi zen garai haietan.

«Bi eta bat» telesailak, berriz, euskal barne-produkzioaren gailurra jo zuen. Tajuz eta zentzuz, *sitcom* honek erabateko

arrakasta lortu zuen. Euskaraz egindako fikzioak sekula izandako aundientziarik handiena bereganatu zuen eta Joselontxo astean behingo apopilo izan zen milaka euskal etxetan. Gerroztik, hainbat ahalegin eta saiakera egin arren, gainerako eskaintzek ez dute «Bi eta bat»en mailarik lortu, baina bere esperientzia hor dago, euskal ikus-entzuleak gustoko duenaren adierazgarri eta produktu onak euskarak omen dituen komunikazio-zailtasun guztiak gainditzen dituenaren frogagarri.

«Goenkale» deritzan eguneroko telesaila dugu, azkenik, hamabi urteren ondoko bilakaeraren isladarik nabarienetakoa. Nekez aurki daiteke Europa osoan egunero ordu erdiko telesaila egiteko gertu dagokeen telebista. Teknika-baliapidez, produkzio-sistemaz, gidoi-irudimenez, aktore -prestutasunez eta diru-ahalmenez egunero ordu erdiko dramatikoak egin ahal izatea nolabaiteko heldutasunaren seinale da. Behar bada, ETB 1 en ikus-entzule arrunta ez da mirari honetaz jabetuko —eta, agian, ez du jabetu beharrik ere— baina ofizio hone jabe denak badakike zein erronka handia den horrelako lanari ekitea, ondorioak arrakastatsuak izan zein ez izan.

GLOBALIZAZIOA ETA LOKALIZAZIOA

ETB sortu zenean TVE besterik ez zen merkatu espainiarrean. Gaur egun, berriz, ETBz eta TVEz gainera, beste bost autonomi-telebista, hiru eskaintza pribatu eta kontaezinezko edozenbat herri-telebista daude Estatu espainiarrean barrena, satelitez zein kablez datozkigukeenak kontuan hartu gabe. Hala ere, arazorik handiena ez da kantitate-kontua. Telebista-sektore*a* globalizazioa deritzan aldaketa sakonen ataritan dago. Eraberrikuntzek sekulako aldaketa iraultzaileak eragingo dituzte industria nahiz kultura-alorrean eta ondorio sozial zein moralak erabatekoak izango dira.

Jabegoz eta eremuz sortzez txikiak izan arren, gero nazioarteko lantegi handi-mandi bihurtzen diren informazio eta entretenimenduzko enpresen kontzentrazioari deritza globalizazioa. Izatez, bilakaera hau ez da batere berria, euskal ikuspegiz

behintzat; azken hogeitabost urteotan prozesu beretsua eza-gutu izan dugu estatu mailako egunkari-enpresen artean eta, hain zuzen ere, egunkarien kontzentrazio-prozesu honen ondorioz desagertu berri dira hainbat mantxeta Araban eta Iparraldean. Beste horrenbeste-edo gertatu zen mende honen lehen erdian, Frantzia, Alemania, Britainia Handia eta Estatu Batuetako informazio-ajentziak elkarrekin bildu eta mundua euren gobernuen interesen arabera eragin-eremuetan banatu zutenean.

Urrats beretik doa gaur egun kontzentrazio-joera hau: gero eta gehiago dira nazioarte-mailan elkartzen ari diren egunkariak, batzen diharduten komunikabide desberdinak —multimedialak—, eta aldi berean gero eta gehiago dira komunikazio-sektorearekin zerikusirik ez duten kapitalen menpe geratzen ari diren komunikazio-enpresak. Garai batean estatu-mailako arauak erregio eta estatu gabeko nazioen nortasunari uko egin zioten bezalaxe, mugaz gaindiko globalizazioa izango da, orain, estatututako arau ahaltzu haiek gaituzko dituenak.

Edozein estatututako gizarte eta bizitza politikoarentzat hila ala bizikoak diren komunikabideak atzerriko enpresa eta zuzendarien kontrolpera zein erraz pasatzen ari diren ari gara ikusten. Orain arte lekuan lekuko entretenimendu-industriaren arlo propioak zirenak —nazio, hiri eta herri-izakerari atxikiak— orain, berriz, milaka kilometrora dagoen zuzendaritzak erabaki ditzake. Prozesu hau ez da, dagoeneko, hirugarren munduko estatuetan bakarrik gertatzen ari, baita Europako erdigunean bertan ere.

Paradoxa handia da gero gertatzen ari dena. Instantzia txiki eta murriztuek urteak daramatzate handiek aspaldidanik menpe izan dituzten komunikabideak aldarrikatzen, eta teknologia berriek politikak edota ekonomiak ukatzen zieten eskaini dietenean, horra non, kontzentrazioak eta globalizazioak hankaz gora botatzen duen denbora luzez zain egondako aukera.

Globalizazioak eztabaida berria dakarkigu eta honako galdera hau egin: ea benetan lehia-aukerak zabaltzen ala ixten ari ote diren, edota ea aukera profesionalak gehitzen ala murrizten ari ote. Prozesu honek gizarte, kultura eta politika maila-

ko ardurak sortarazten ditu. Satelitez nahiz kablez, Amerika, Britainia Handia, Alemania, Frantzia edo Espainiatik iritsiko diren programa berriek komunitate txikien asmoak eragotziko dituzte eta beraien hizkuntz-audientzien kaltetan gertatuko. Egia da bai, orain inoiz baino aukera gehiago dagoela merkatuan telebista-programak galesez, flamendarrez, katalanez edo euskaraz egiteko eta, beharbada, baita inoiz baino audientzia handiagoetara iristeko ere, baina merkatuan ikus daitekeen programazio guztiaren proportziorik handiena telebista-eskaintzan agintzen duten estatuetatik datorrenez gero, praktikan gero eta aukera gutxiago dago galesez, flamendarrez, katalanez eta euskaraz egiten diren programak hizkuntza horien hiztunak ikus ditzaten. Hau da, inoiz baino samurrago da mikroaudientzientzat programak egitea eta emititzea, baina mikroaudientzia berberoriek inoiz baino gehiago daude estatu handien programazio indartsuen eraginaren menpe.

Jakina, teoriaz, litekeena litzateke nazio txiki edo komunitate etnikoetako enpresariak tokian tokiko audientzia murriztuzko programa komertzialak eskaini ahal izatea. Hau izan zen, hain zuzen ere, teknologia berriek erakarri ziguten promesa. Baina, zenbait ahalegin txalogarriz aparte, zorioneko promesa hori betetzeke da oraindik. Ekintza publikoa izan da Katalunia, Galizia, Euskadi edo Galeseko telebista-kateak martxan jarri dituenak. Antza denez, politikoak dira, eta ez merkatariak, kultura murriztuen egiazko salbatzaile bakarrak. Hala ere, oraindik ere agertzeaz daude neurtezinezko ondorioak erakarriko dituzten teknologi-aldaketak.

TEKNOLOGI ALDAKETAK

Duela hamabi urte, Euskal Telebista sortu aurreko bezperetan, Euskal Herriak bizi zuen ikus-entzunezkoen merkatua ia sinesgaitza iruditzen zaigun arren orain, beste hamabi urte barru bizi izango duguna askoz ere sinesgaitzago gerta daiguke. Etorri datozkigun teknologia berriek eta kontzeptu-aldaketek gaur egun asmatu ere asmatzerik ez dugun etorkizuna erakarriko digute. Are gehiago, aldaketak hain sakonak eta

azkarrak izango dira ezen, XXI. mendearen lehen hamarkadan zaharkituak geratuko baitira oraindik merkatura atera ere ez diren sistema berriak.

Satelitearen eta kablearen komertzializazioari jarioko zaizkion teknologia-aukerabide ia mugagaitzak 500 telebista-programaren eskaintzaz mintzo zaizkigu. Hala ere, benetako iraultza ez da programen oparotasunean eta aniztasunean mamituko, eskaintza ugari horren interaktibitatean baizik. Telebistak zentzu bakarrekoa izateari utziko dio eta teleikus-entzuleek telebista-emititzaileekin komunikatzeko, hitz egiteko, galde-erantzunean aritzeko, aukera izango dute. Ordainezko telebistaren aukera-askatasuna erabat nagusituko da eta gero eta eskaintza selektibo gehiago egongo da. Orain arteko gai orotariko telebistaren eredu konbentzionala —diru-sarrera klasikoez finantziatua (iragarkiez edota aurrekontu publikoez) eta mendiz mendiko antena-sarek banatua— garai berrien bezperetan dago eta ikus-entzulearen ingana iristeko formula berriak asmatu beharko ditu.

Aldi berean, ikus-entzunezko produktuaren ekoizpen eta kontsumoa ez da telebistaren ohizko pantaila tipiko horretara mugatuko, merkatua zeharo zabalduko baita. Batetik, etxeko telebistagailuak erruz ugalduko dira (ia-ia zenbat begi pare hainbat telebista); bestetik, telebistagailu eta ordenagailu pertsonalaren arteko nolabaiteko hibridoa arrunt asko hedatuko da merkatuan zehar eta oraindik orain berri samartzat jotzen ditugun CDR eta CDI formatoak arras normalduko. Tarteka-marteka ezik, takean potean gertatuko diren aldaketa hauek ikus-entzunezkoen panorama aldaraziko dute, merkatu-eskabideak produktu berrien premia sortaraziko du eta euskal industriaren sektore ren batek behar bezainbateko erantzuna eman beharko dio, merkatu guztia kanpotarren eskutan geratuko ez bada.

BEREHALAKO ETORKIZUNA

Zalantza izpirik ez, hamabi urte barruko telebista-merkatuak ez duela gaur egun ezagutzen dugunarekin zer ikusirik izango. Telebista-eskaintza zein kontsumoa gehitu egingo dira,

baina diferentzia nabarmenez: lehena geometria-proporzioz ugalduko den bitartean, bigarrena aritmetikazkoan haziko da. Audientzia lortu beharraren beharrez, burruka hil ala bizikoa izango da eta kateen arteko lehia sekula baino bortitzagoa gertatuko.

Girotberriak indarren arteko beste oreka bat erakarriko du. Lehen eta behingoz, ez da batere segurua merkatuan egongo diren eskaintza guztien artean, audientzia neurri berdintsuetan banatuko denik. Gure aurretik egon izan diren esperientziak kontuan izango baditugu, eredu iparramerikarra kasu, badirudi hiruzpalau katearik handienek merkatu osoaren %75 inguru bereganatu dezaketela eta gainerako %25a bestelako ehundaka —edo milaka— telebista txiki bezain alternatiboen artean banatzen dela.

Ezin pentsatu ere Euskal Herriko bertoko telebista-eskaintza kanpokoaren proportzio berean gehituko denik, eta are gutxiago euskarazko eskaintza. Une honetan euskal hiritarrak bere etxean jasotzen duen telebista-eskaintza guztiaren %8 besterik ez bada euskaraz, hurrengo hamarkadan proportzio hori dezente asko murriztuko da, nahiz eta, behar bada, beste zenbait programa berezi —egun guztian zeharreko marrazki bizidun eta kirolak, esaterako— euskaraz azaldu.

Euskal proposamenak arrakastarik izango badu, teknologia-eraberrikuntza sakonez beharko du jantzi. 1982ko erronka 300 langile eskas bilduko zituen telebista-katea nola-hala martxan jartzea izan bazen, oraingo honetan elkarrekin 600 langile dituzten bi kateak gaurkotzea da apostua, bost albiste-gune (Baiona, Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Iruñea) eta bi ekoizpen-zentrutan (Iurreta eta Miramon) banatuak dauden bi kateak, hain zuzen ere. Gainera, orain dela hamabi urte euskal telebista bat eta nazionala egitea aski iruditu bazen ere, gaur egun ezinbesteko da lurralde historikoei protagonismo gehiago eskaintzea, ikus-entzulearekiko hurbiltasuna areagotzea eta lekuan lekukoari ahalik eta zuzenen erantzun ahal izatea. Lurralde-deskonexioak, digitalizazioa, goendefinizioa, 16/9 formatu berria etab. dira, besteak beste, mende hau amaitu aurretik egokitu beharko diren aldaketa berriak.

Laburbilduz, ondoko urteetan ETBk berebiziko irudimen ahalegina frogatu beharko du, aurreko hamabi urteetan buru-belarri saiatu ondoren lortutako audientzia-mailari eutsi ahal izateko. Aldi berean, ehundaka alternatiba bilduko dituen tropeletik ihes egin eta merkatuan nagusituko diren hiruzpalau aukera handienetako bat izateari eutsi nahi izango badio, sekulako botere eta ahalmenaz jabetu beharko du. Azkenik, teknologia-eraberrikuntza handien ataritan, kapital-inbertsioek ia hasiera-hasieran egindakoak bezain handiak izan beharko dute, kontua ez baita izango orain arteko ildotik hobetzea, oinarri-oinarrizko barne-sistema osoak goitik behera aldatzea baizik.

Orain dela hamahiru urte ez zegoen Euskal Telebistarik. Beharbada, gehiegi litzateke hamabi urte barru ere ez dela egongo esatea. Auskalo, egongo den ala ez, baina garbi dagoe-na zera da, egongo bada, guztiz desberdina izan beharko duela eta egin beharreko aldaketek oraindik hasi beharko dutela.

*1994ko urriaren 3an, artean ETBko zuzendari zela, idatzi zuen artikulua Luis Alberto Aranberrik.

IRRATIAREN HISTORIAKO 20 URTE EUSKAL HERRIAN

CARMEN PEÑAFIEL

Gertakari ugari izan dugu 1975az geroztik euskal irratigintzaren eremuan. Beren baitara itxitako gertakariak ez direnez, komeniko da kontuan hartzea Euskal Herriko ingurune sozio-politiko-ekonomiko eta kulturakoaren barnean.

Euskal irratigintzan hogeitaz urteko historiak ekarri duenaren laburbilduma egiten ahalegintzerakoan, beharrezkoa da Estatu espainiarreko *Trantsizio demokratikoaren* nondik norako sozial, politiko eta ekonomikoari bere zantzua eman dioten zenbait jazoera oro har azaltzea.

Gogora dezagun, nola 70eko hamarkadaren erdialdera hasi ziren gizarteko ingurune orotan finkatuz zihoazen eraldaketa

nagusiak: petrolioaren lehen krisialdia; Carrero Blanco, Gobernu espainiarreko presidentearen heriotza atentatu bat zela bide; ETA eta FRAPeko bost kideren fusilaketa; Francisco Franco diktadorearen heriotza; 1977ko Hauteskunde Orokorrak; 1978ko Konstituzioaren onarpena; bata bestearen jarraiko hauteskunde-prozesuak; ETA, euskal askapenerako erakundearen atentatuen gorakada; erregimenaren krisialdia 1981eko otsailaren 23ko kolpea zela-eta; Estatu espainiarra Europar Ekonomi Elkartean sartzea eta Elkartasun Atlantiarrekiko (NATO) lotura, etab. dira Trantsizio espainiarreko aldia laburbil dezaketen gertakari garrantzitsuenetako batzuk.

Jazoera guztiok beste batzuekin nahastuak zetozen; hala nola, frankismo bitartean isilarazitako askatasunen eskaera gero eta handiagoa eta askatasun- eta aldaketa-eskaera hauek Euskadin eta Katalunian zituzten ñabardura bereziak.

Euskal gizarteak une haietan —espainiarraren eta europarraren era berean— zenbait gizarte-aldaketa bizi zituen, langabezi indizearen gorakada nabarmena sortarazi zuen ekonomi krisialdi sakonaren zamapean. Elkarbizitza demokratikorako itun politikoko baten mende bizitzen zen eta eskuin- nahiz ezkerreko alderdi politikoen sistema berezia eta bi Elkarrekin Historikoetan alderdi nazionalistena gauzatzen ari zen.

INFORMAZIO-ORDENA BERRIA

Trantsizioak, bestalde, informazio-ordena berria ekarri zuen berekin eta, bertan, kazetaritza demokratiko altematiboaren nolabaiteko nagusitza nabari zen: *El País*, *Diario 16*, *Avui*, *Egin*, *Deia*, etab., informazio-eskaintza idatziari aniztasuna emanez eta sektore kontserbadoreenek ordura arte erakusten zuten monopolioa hautsiz.

Lehen Hauteskunde Orokorretatik ateratako Gobernu espainiarrak, 1977ko urriaren 25eko Errege Dekretuaren bidez, orotariko informazio-askatasuna baimendu zien irrati-hedapeneko irrati pribatuei, RNEko albiste-zerbitzuekin nahitaezko lotura ezartzen zuen dekretua indargabetuz. Irratigintzan,

urte haietan, informazio-askatasuneko lehen ahalegin lotsatiak gertatzen ari ziren, SER Irrati kateko *Hora 25* saioaren bidez, irrati-eduki berriak sartzen ziren une berean, kutsu frankista zuten kontsultategi sentimentalen, disko eskainien, irratisailen, etab.en orde, beste berrizaleagoak sartuz.

Irekitze hau FMaren bidez gertatu zen, batez ere; honek, entzulegoaren ohituretan aldaketa-sail bat sortzeaz gain, gorakada aipagarria ekarri zuen komunikabidearen historia modernoan. Garrantzi handia ematen zitzaion informazioari, unitate mugikorrek kalera ateratzen ziren protagonisten bila, kazetariak bertatik ematen zuten gertakarien berri, ordutegiak eta mugak gaindituz. Irratigintzaren gorakada hasi zen eta irratiak, gaurko gizartearen arabera komunikabide bizkor eta malgu bilakatu zihuan.

Estatu espainiarra administratiboki Autonomien Estatu gisara eratu zenean eta, 1980ko urtarrilaren 10eko Legez, Irrati-Telebistaren Estatutua onartu zenean, Autonomi Elkarteek gizarte-komunikabide propioak sortzea aurrirakosten zen, bakoitzaren Autonomi Estatutuaren babespean. Irrati eta telebista kanalak abiarazi zituzten lehen autonomi elkarteak Euskadi, Katalunia eta Galizia izan ziren. Autonomi prozesuak, honela, informazioaren deszentralizazioa bideratu zuen, une hartara arte egituratua zegoenez, eta estatu, autonomi eta herri-mailetakoa informazio-eskaintza edukiaraziz.

80ko hamarkadak, autonomietako irrati eta telebista bidezko komunikabideak finkatzeaz gain, FM desberdinen arrakasta izugarria ekarri zuen eta, ondorioz, irrati-oligopolioaren alternatiba ziren irrati libreena. Irrati libre edo independenteen artean, *komertzialak* eta *ez-komertzialak* zeuden. Lehenen helburu funtsezkoena emisio-baimena eskuratzea zen. Eta bigarrenek, uhinen monopolioa zuen ezarritako agintearen aurkako ozengailu bihurtu nahi zuten interes- edo ideologi taldeekiko loturak zituzten. Entzulegoaren eskuhartzea sustatu zuten programetan eta iritzi publikoari legeztatutako irratiak lantzen ez zituen eskakizunak eta proiektuak hurreratzen saiatu ziren, irrati alternatibo bezala aurkeztu ziren entzulegoaren aurrera. Baina egoera honek 1989a arte iraun zuen: orduan

ekin zitzaion Administrazio-Baimenik gabeko Frekuentzia Modulatuako irrati-entzuten gobernuko-irratien.

80ko hamarkadaren azken aldera, bestalde —1989ko otsailaren 10eko Errege-Dekretu bidez Frekuentzia Modulatuako Uhin Metrikotan Soinuaren Irrati-hedapenaren Plan Tekniko Nazionala onartu ondoren—, beste baimen-emateari ekin zitzaion, Gobernu Zentralak eta Eusko Jaurlaritzak banatutako soinubandaren zabaltzeari esker, Autonomietako zenbait Gobernuak eskumenaren zutenez irrati-hedapenari zegozkionetan lizentziak emateko. Euskadin, emate hauek, funtsean, jadanik eraturako irrati-kateei eman zitzaizkien beren sartzeko-eremua osatzeko (SER, COPE, Onda Cero), kultur industriarekin zerikusia zuten enpresa-taldeei (Iparragirre Argitaletxea) eta autonomi mailako ekintza-esparrua zuten irrati-talde multimediei: Radio-Tele-Baskonia, etab. Lizentziak emateko eskumen hau 11-11-86, 17-2-87 Dekretuen eta 30-11-87 eta 1-8-91 Ebazpenen bidez berreganatu du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak.

FMaren nagusitze honek irrati berrien ugalketa ekarri du Euskadin eta Estatu espainiarrean, eta Europar «desarautze» izenez deitzen dena. FMko irrati-entzuten kopurua, 90ko hamarkadaren hasieran, 1.500etan zegoen.

FMko irrati-entzuten zaparrada honi 500 udal-irratiren legeztatena erantsi behar zaio eta 600 gehiagoren sorrera, 1991ko apirilaren 8ko Irrati-hedapeneko Udal Irrati-entzuten Antolaketa eta Kontrolako Legeari esker.

Eta hala, Autonomietako Gobernuen eta Administrazio Zentralaren eskutik, irrati-entzuten atomizazioa gertatu da azken urteotan. Aro honetan, estatu-hedapeneko kate handiak finkatu eta bildu dira: SER, COPE, Onda Cero eta RNE; hauek elkarte-, zurgapen-, lagapen-, filiazio-uneak bizi izan dituzte, makrotaldeak sortzeko joera nabarmenez (PRISA + Godó = Unión Radio, S.A.). Autonomi kateek ere lehentasunezko tokia berreganatu dute dialean, beren presentzia finkatuz eta entzulegoa areagotuz.

Estatu espainiarrari dagokionez, 70eko urteen azken aldeko berrehun baino gutxiago eta 80ko hamarkadako bostehu-

nen bat irrati izatetik, 2.000 gainditzera igaro da gaur egun, administrazio-eremu orotan banatuak: estatukoa, autonomiatarikoa eta herrietakoa. Irrati-sistema hau TAL (Telekomunikabideen Antolamenduko Legea) delakoak eratu zuen 1987an, irrati publiko eta pribatuen arteko eredu bezala, bai Uhin Ertainei eta Frekuentzia Modulatuari dagokienez.

Arrasto nagusitan Estatu espainiarreko irrati-koiuntura azaldu ondoren, ikus dezagun Euskal Herriko irratiaren historia partikularra 1975-1995 tartean. Lehen aipatutako esparruetan gauzatzen den historia: Euskal Estatutuaren babespean sortutako irrati autonomikoa; FMaren ugalketa eta irrati librearen gorakada izugarria eta udal-irratien onarpena.

EUSKAL IRRATI AUTONOMIKOAREN FINKAPENA

Erregimen frankistaren krisialdiaren ondoren, diktadura garaian erreprimitutako errebindikazio-sail bat eskatzen zuen euskal gizarteak: kultur eta hizkuntz nortasunaren aitortzea, esaterako. Kultur politikaren barruan, eta besteren artean, komunikabide propioak edukitzeko asmoak erakusten ziren behin eta berriro, errebindikazio-mugimenduen bitartez.

Ordura arte entzun gabeko hizkuntz, gizarte, kultur eta politika-mailatako berezitasunak berreskuratzeko prest zegoen gizartearen hasiera zen. Dena den, kontuan hartu behar da Euskadik, Kataluniak eta Galiziak aurretik emanak zituztela autonomi eredu zehatzak, herriak berretsi eta II. Errepublikako Konstituzioan jaso, baina emaitzarik izan ez zituztenak Gerra Zibila hasi zelako.

1979ko abenduaren 18an, Espainiako Gorteek Euskal Herriko eta Kataluniako Autonomi Estatutuak bozkatu eta onetsi zituzten, Lege Organiko gisa eta, honenbestez, 1980ko urtarriaren 10eko Irrati eta Telebistaren Estatutuaren Lege arrunta baino maila jasoagoarekin.

Euskal Autonomi Elkarteko Estatutuak, 19. artikuluan zeraur aurrikusten du: «*Euskal Herriak erregula, sor eta atxiki*

ditzake bere telebista, irrati eta prentsa propioa, eta, oro har, bere helburuak lortzeko behar dituen giza komunikabide guztiak. Testu mugatua da eta, horregatik, Euskadin autonomi mailako lehen sareak eratzeari ekin zitzaion, Estatu Zentralarekin gauzak koordinatzeari itxosteke.

1982ko abenduan eman zitzaion hasiera Euskal Telebistaren lehen emanaldiari (ETB 1), hilabete lehenago hasi zen Eusko Irratiaren (Euskadi Irratia, Donostian) FMko lehen programa. 1983ko udaberrian jaiotzen zen bigarren programa (Radio Euskadi, Bilbon) eta, geroago, ibilbidea 1934an hasi zuen Radio Vitoria-Gasteiz Irratia Eusko Jaurlaritzak 1981ean Aurrezki Kutxari erosi zion eta 1983an kate horretatik ateratzen zen, programazioaren zati bat —albistegiak eta orduz orduko albiste-laburpenak bereziki— Radio Euskadirekin batera emateko eta, hala, EITBren menpe egoteko. 1986ko ekainean isiltasunez eta azkar-azkar aineratu zen Euskal Telebistaren bigarren programa gaztelaniaz (ETB 2) eta 1988ko ekainean Euskadi Irratia Uhin Ertainetan aineratzen hasi zen bere emanaldiak. Hauetako zenbaitetan, Euskal Irrati Telebista Ente Publikoari erantzuki egin zioten —Gobernu Zentralaren Odezkaritzak Euskal Herrian, hain zuzen— estatuko arauak «urratzen» zituela eta. Hala ere, aitortu beharra dago aipatu inplikazioak Gernikako Estatutuaren hitzetan jasotakoak daudela.

Euskal sare autonomiko gisara Eusko Irratiaren konplexutasuna eta ahalbideak ulertu ahal izateko, gogoan izan behar da Plan Orokorrak, hasieran, bi sare osotu hartzen zituena —FMan eta Estereoan— eta, Euskal Autonomi Elkarteak erabat esateko estalitz, hau eskaintzen zuen: bi programa desberdin FMz Bilbon (ele bitan) eta Donostian (euskaraz); herri eta probintzi mailako hedapena zuen emisio- eta produkzio-zentro bat FMz eta AMz Gasteiz eta Arabarako (gaztelaniaz nagusi). Era berean, azpimarratzekoa da 1989ko ekainaren 29an Garraio, Turismo eta Komunikazio Ministerioaren eta Gasteizko Gobernuaren artean sinatutako hitzarmena; honi esker, Radio Euskadiri Uhin Ertainetan sei frekuentziaz baliatzea baimendu zitzaion eta bat gehiagoz Radio Vitoriari. Hitzarmena sinatu eta hilabete batzuk geroago, 1989ko urriaren

26an, Bilboko zentroak Uhin Ertainen inaugurazioa lortu zuen. Eskaintza areagotu egin zen 1990eko martxoaren 21ean, Euskadi Gaztea izenez, dialaren beste tarte bat betetzen duen Eusko Irratiaren programazio berriari esker: egunaren 24 orduetan Irrati-formula emititzen du honek, hasieran gaztelaniaz eta orain, euskaraz oso-osorik.

Euskal irrati-hedapeneko katea Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren menpe dago zuzenean eta Euskal Autonomi Elkartera zuzentzen da, nagusiki, eta Nafarroa, Iparraldea, Errioxa, Burgos eta Santander estaltzen dituen entzulego-eremu fokala du, gainera.

Eusko Irratia hiritarren informazio, aberastasun, eta kultur normalizazioko tresna bezala jaio zen eta euskararen garapenean laguntzeko. Baina komunikabide propioen sorrera eragin zuen beste arrazoiak, autonomia eta burujabetza zaintzea zela ahaztu gabe. Helburuak argi eta garbi adierazten ziren Ente Publikoaren Sorrera-legean eta esaldi batean laburbil genitzake: «Euskal Kultur proiektuaren eraikuntzari laguntzea».

Euskararen berreskurapena eta normalkuntza nagusitzen ziren besteen gainera eta hori, Donostiatik ematen den Eusko Irratiaren lehen programazioan bitartez erdietsi da: egunetik egunera 24 orduko programazioaz, euskaraz irrati-hedapena duina egin daitekeela frogatu du, ez entzulego gipuzkoar soilari zuzendua, baita, bere 11 transmisore eta errepikagailuen bidez, Hego Euskadiko lurralde historikoetako eta Iparraldeko zenbait eskualdetako euskal hiztunen biztanlego osoari ere. Gazte-uhina den Euskadi Gaztea ere geure hizkuntzan egiten da oso-osorik. Kate autonomikoko beste bi irratiak euskararen presentzia ia ezereza da.

Lau irratiak erabat elkar osagarriak dira eta honek komunikazio anitza eskaintzea bideratzen dio taldeari, gizarteko atal edo entzulego-target guztietara iritsiz.

Euskal Irrati-telebistan euskara batua erabiltzen da, baina euskara mintzatuaren baitan, Euskal Herriko biztanlegoak erabiltzen dituen euskalki-mota desberdinak daude eta horretatik hizkuntz ulermeneko arazo larri bat planteatzen da; Eus-

ko Irratiak, honenbestez, azken lau mendeotan jasan duen hondamen semantikoaren eta lexiko-pobretzearen ondoren, euskararen normalkuntzan lagundu nahi izan du, maila aberatsago eta konplexuagora jasoz. Komunikabideotako profesionalak, horregatik, informazio-era propioa gauzatzen ahalegintzen dira, beste hizkuntzek, beste zientzi arloetan agertzen hasi zirenean, egin zuten modu berean. Honetarako, EITBk, agertzen diren ustezko hizkuntz arazoak bideratzen eta konpontzen ahalegintzen den euskararako kabinete teknikoa du.

Emititzen den programazioari dagokionez, esan dezagun: lehen hiru Programak programazio orokor edo ohikoan oinarritzen direla eta laugarren Programa, Irrati-formulan. Garrantzi handia ematen zaie albiste-zerbitzuei eta arreta berezia ematen zaio musika-programazioari. Entzumena hi-fi kalitatekoa da eta estereofonian sare osoan.

Eusko Irratiaren xehetasun gehiago jakiteko, esan dezagun bertan 205en bat enplegatuk lan egiten dutela, 1994an Jaurlaritzaren 1.142 milioiko diru-laguntza lortu zuela eta publizitate-inbertsioa, urte berean, 425 milioi pezeta inguruan ibili zela.

Euskal Irrati-hedapenari, bestalde, kritika egin zaio gizar-teko zenbait sektoretatik irrati gubernamentalizatua dela salatuz; interes profesionalei baino areago, politika-mailako ekimenei eta kezkei erantzuten dieten zuzendaritzako aldaketak eta gorabeherak dituela, komunikazio-sistemaren entelekia eragotziz honela eta, honenbestez, ez diotela komunikabide propioetako euskal kultur proiektuaren garapenari laguntzen.

Euskadin —beste Autonomi Elkarteetan gertatu zen bezala— autonomi egitura honek, Autonomi Elkarte bakoitzean irratingintzako produkziara emaniko autonomi mailako laugarren kanal bat sortzera —Radio 4— akuilatu zuen Radio Nacional de España estatu-kate publikoa. Radio 4 Espainiako Irrati Nazionalaren eta Irratikate Espainiarraren bategitetik sortu zen 1989ko urtarrilaren 1ean eta 1991ko uztailaren 24a arte iraun du; data honetan jarri zen indarrean, inplizitoki kanal honen desagertzea zekarren RNEren Lurralde-Ezarrerako Plan Berria. Radio 4ren helburua Euskal Herrian, hizkuntz nor-

malizazioa zen eta Euskal Herriaren hizkuntz eta kultur eskakizunei arreta berezia ematea, nortasun espainiarraren esanahia galtzeke. Helburu honek argi eta garbi bereizten zuen, euskal nazionalitatearen sentipenetik zehaztua dagoen Gernikako Estatutuaren babespean jaiotako autonomi kanalarengandik. Radio 4k programazioaren % 25a ematen zuen euskaraz.

IRRATI LIBREAK, ASKATASUN BERRIEN HAIZEA

Irrati-pila batek bete zuen 80ko hamarkadan euskal irratiendiala: merkatuan beren txokoa zuten eta, baliabide urriak izan arren, egunetik egunera airera informazio- eta komunikazio-proiektu berriak ateratzeko adina bazuten. Irrati libreak zireneko, mintzaira arruntean esanda, «piratak», espektro elektromagnetikoan lizentziarik gabe sartzen zirelako, zenbait erakunderen isilpeko baimenez egiten bazuten ere. Irratiok 1989a arte iraun zuten dialean; urte honetan agindu zen hauen ixtea Gobernu-aginduz.

Irrati-hedapenari buruzko legedian apur bat sakonduz gero, badira puntu giltzarri batzuk hauen agertaraztea irrati-sintonian bideratu dutenak.

1964. urtean Uhin Ertainen Plana onartu zenean —Frekuentzia Modulatuan ere izan zuen eragina— irrati-enpresa asko FMko irratiak martxan jartzen hasi zen.

1978an, Genevako Plana onarturik eta frekuentzien zein potentzien banaketa eginik airearen erabilerarako, 1979ko ekainaren 8an Frekuentzia Modulatuko Uhin Metrikotan Soinuaren Irrati-hedapenerako Plan Teknikoa onartu zen. Enpresa pribatuei eta Erakundeei lizentziak emateko itzarobide berriak zabaldu zituen dekretu honek eta tokian tokiko eta kulturari buruzko informazioaren garrantzia nabarmentzen zituen. Irrati libre asko Dekretu honen babespean sortu ziren. Administrazioaren Lizentziarik ez bazuten ere, tolerantzia nabarmena zuten askok, izan ere parroki-tokietatik, udal-instalazioetatik eta b. etatik emititzen zuten askok.

Hauek izan ziren aurrelarietako batzuk bide honetan: Arrate Irratia Eibarren (Gipuzkoa), 1978ko uztailearen 3an sortua; JMC Radio, 1979ko abenduan Areetatik (Bizkaia) emititzen hasi zena; Osina Irratia Donostiatik eta Radio Paraíso Iruñetik ere urte berean hasi ziren emititzen.

Gizarteak aldaketak eskatzen zituen garaia zen eta komunikabideek nola-halako liberalizazioa erakusten hasi ziren; irrati libreek, espektro elektromagnetikotik kanpo uzten zituen eraturtako ordenaren aurrean altxatzeko aprobetxatu zuten unea.

Hego Euskadin, abiada handiz ugaltzen hasi ziren hala deituriko FMko irrati libre ez-komertzialak, talde minoritarioen eta gizarte-mugimenduen ozengailu bezala, legeztatutako bideetara sartu ezina ikusirik. Entzuleek, iritziak emateko, mikrofonoak bereziki erabiltzen zituzten irratiak ziren. Entzulea igorle eta hartzaile izan zitekeen une berean. Mezua edo komunikazioa norabide bakarrekoa zen ohiko komunikabideen ustea apurtzen zuten eta gertutasuna zen nagusi, hau da, garrantzi handia zuen udaletik edo herritik zetorren guztiak. Programazioan musika-tarteak nagusitzen ziren eta oso ingurune desberdinetatik etorritako jendeak eginak ziren: kazetaritzako ikasleak, kultur edo auzokide-elkarteak, musikazaleak, etab.

Gauza zera da: Lizentziarik edo Baimenik gabe azaldu ziren irrati ugariak izakera desberdinei erantzuten zieten, zuzentzen zuten talde sustatzailea nor zenaren arabera. Batzuk komunikazio alternatiboa errebindikatzeko asmo sendoaz jaiotzen ziren eta ohiko komunikabideetako sarrera zaila gertatzen zitzaienten talde, mugimendu eta elkarte hiritarrekin zerikusia zuten: ekologistak, nuklearren aurkakoak, militarren aurkakoak, erakunde feministak, amnistiaren aldeko batzordeak, auzokide-elkarteak, nazioarteko komiteak, kultur elkarteak, etab.

Beste irrati libre batzu irabazbidea lortzeko edo irrati komertzial izateko asmoarekin sortzen ziren eta txoko bat egiten saiatzen ziren euskal irrati-hedapenaren bandan, laster lizentzia lortzeko asmoz.

Irrati independenteek hartzen zituzten xede edo helburuak oso ziren desberdinak, baina nagusiki, bi sail nagusion barruan sailka zitezkeen: komertzialak eta ez-komertzialak.

Gehiengo zabal batek ekonomi eta teknika-baliabide urriak zituen eta, hala ere, egunetik egunera betetzen zuten beren gizarte- edo merkataritza-konpromezua.

Euskal irrati-dialeko *irradi ez-komertzialen* artean, aipa ditzagun: Gramola Irratia (1981), Bilboko San Inazio auzoko Kultur Elkartearen eskutik jaioa; Txomin Barullo (1983) izen bereko konpartsarena zen; Iluna Irratia (1984), Santutxuko Auzokideen Elkartearena; Zirika Irratia (1984), Barakaldoko gazte-talde batek bultzatua; Otxasko Irratia (1985) Bilboko Otxarkoaga auzoko talde eta kolektiboek zuzentzen zuten; Ortazar Irratia, Bilboko Uribarri auzokoa; Karibe Irratia (1984), ezarritako aginteen aurkako Sestaoko (Bizkaia) talde batek; Basurto Irratia, elektronikak-ikasle talde batek sortu zuen 1986an izen bereko Bilboko auzoan; Bost-Axola Irratia (1987) euskarazko espresioiko irradiak izan zen Algortako (Bizkaia) jendearentzat; Irala-Irola Irratiak (1986) gazte-forua izateko asmoa izan zuen; Itsuki Irratia (1986) Bermeon jaio zen kazetaritzako ikasle-talde baten eskutik eta kultur programak egiten zituzten erabat eskaraz; Aldaba Irratia (1986), Durangon, izen bereko kultur elkartearena zen; Betekada Irratia (1984) Genikako Kultur Elkartearena; Azur Irratia Karrantzako bost lagunek sortu zuten 1986an; Hala-Bedi Irratia (1983) Gasteizen jaio zen, erabateko adierazpen-askatasuna lortzeko; Ganbara Irratia (1982), Arabako Amurrio herriko hamabi ikasleren talde batek sortua; lokalak Udal Euskaltegiarenak ziren arren, helduen euskalduntzeko koordinakundeak (AEK) sustatutako Pirula Irratiak (1985) euskararen hedapen-tresnarako balio izan zuen; Basterra Irratiak (1985) euskara bultzatzeko balio izan zuen Errioxa Arabarrean, herrian bertan hurbiltze-tresna izateaz gain; Resistentzia Amara (1985), talde sustatzailea Donostiako gazte batzuk izan ziren; Txantxangorri Irratia (1986) Donostiako nuklearren aurkako zenbait talderi esker jaio zen; Kakafash Irratia (1982), Azkoitiako (Gipuzkoa) gazte-talde batena; Pottoka Irratia (1983) injinerutzako zazpi ikaslek sortu zu-

ten; Nafarroan, 1980an hasi eta 1984a bitartean, Radio Paraisok, Eguzki Irratiak, Lizarra Irratiak eta Tafallako Eltxo Irratiak emititu zuten.

Irrati ez-komertzial guztiok, orain laburtuko ditudan alderdiok zituzten elkarrekin: Irrati alternatiboak izaten saiatzen ziren, ohiko legeztatutakoen aurrean. Potentzia txikian emititzen zuten: 25 eta 100 watio artean. Bazkide bakoitzak ekartzen zuten hileroko edo urteroko kuotaz finantzatzen ziren; kopuru txikiak izaten ziren: urtean 3.000ren bat pezeta eta, gainera, kanpaina berezietatik, jaietatik, ikuskizunak antolatzetik, eranskailuen salmentatik, etab.etatik lortzen zuten dirua. Ez zuten, irrati legeztatuek bezala, egitura hierarkizaturik: irratiaren antolaketa eta funtzionamendua Asanblada edo Batzar bidez erabakitzen edo planifikatzen zuten. Hiritarrek musutruk esku hartzen zuten. Egunean 6 edo 7 orduz emititzen zuten. Irrati askeak ziren, esku hartzean oinarrituak eta oso neurri txikian profesionalak, baina ahalegin handia aitortu behar zaie.

Irabazi-asmoko eta merkatuko eskeari eta eskaintza-legeen menpeko *irradi libre komertzialen* artean aipa ditzagun: JMC-Radio Areetan (Bizkaia) 1978an hasi eta gero, 1983an, Portugaletera aldatu zena. 1989an itxiera adierazi zitzaion lehen irrati izan zen, funtzionatzen zutenen artean zaharrena ere zelako, agian. 18 ordu emititzen zuten egunero eta irratiaren finantzaketa publizitate-zirietatik, herri arteko futboleko kirol-emanaldietatik, «disko eskaini»en programetatik eta publizitateko erreportajetatik zetorren. Irratiaren zuzendaritza, proiektua abiarazi zuten bazkide baten bidez gauzatu zen. 40ren bat gizon-emakumek esku hartu zuten era iraunkorrean.

Galdakaoko (Bizkaia) Radio Mosollo 1979an jaio zen eta, lehen aldi batean, 1981a arte emititu zuen; urte honetan itxi, eta berriro 1986an hasi zen emititzen. Lan-gelak oso xumeak ziren eta 25 watioko potentzia zuen. Irrati kulturala egiten saiatu ziren.

Portugaleteko Onda 3 1981ean hasi zen emititzen kooperatiba gisara, 25 watioko potentzia zuela, 1987an 500 watio-

ra areagotu zuen eta Nerbioi Itsasadarreko ezker eta eskuin aldeetan hedapen-eremu oso zabala lortu zuen. Irrati hau Radio Euskadirekiko akordio batera iritsi zen, goizeko lehen albistegia emateko, hura bezala legez kontra emititzen ari ziren JMC Radio eta Radio Nervión-ek egin zuten era berean. Radio Euskadiri ondo zetorkion lotura hau, entzulego-maila, horrela, handiagotu egiten baitzuen. Geroago, loturak egiten hasi ziren Cadena Rato-rekin eta Irrati-Hedapeneko Euskal Kateko partaide izan zen.

Bilboko Canal 3 1983an jaio zen eta Begoñako Parrokiak utzitako lokaletatik emititzen zuen; aldi batera irratiaren adiskideen kultur elkarteak eratu zen. 16ren bat ordu emititzen zuten egunero eta asteburuetan 24 ordu arte areagotzen zuten programazioa. Finantzaketa bazkideen ekarpenen eta bertako publizitatearen kontura joan zen.

Leioako (Bizkaia) KV-30, partikular batek sustatu zuen eta, urte batzuk geroago, akordio bat lortu zuen Leioako Udaletxearekin eta honek lokalak utzi zizkion zenbait lankidetzaren trukean. 10 ordu egunero emitituz hasi zen eta 24 ordu arte zabaldu zuen geroago.

Kazetaritza-Fakultateko lau ikasleek sustatu zuten 1985ean Bilboko Radio Sur-20. Bazkideen ekarpenen eta eskualdeko merkataritza-publizitatearen bidez egin zen finantzaketa.

Santurtzi Irratia (Bizkaia) lagun-talde musikazale baten eskutik etorri zen. 1985ean, helburu nagusitzat, kultur eduki oneko programazioa egiteko asmoa hartu zuten.

Onda Vasca (Bilbo) 1986an jaio zen, Karrera Berrien Euskal Institutuko ikasle-talde baten ekimenari esker eta urtebete geroago Eusko Jaurlaritzak ematen zuen FMari emititzeko lizentzia lortu zuen; apur bat geroago, Kate Iberiarrak erosi zuen. Antolaketa hierarkizatua izan zuen hasieratik bertatik eta publizitate bidez finantzatu zen.

Barakaldoko Radio 7 1986an jaio zen, 500 watioko potentzia zuela, gazte-talde irratizale batek sorturik eta lizentzia eskuratu zuten irrati apurretako bat izan zen, gobernuaren itxiera

ostean. Emititzen zuen lokala Barakaldoko Udalarena zen eta sozietate anonimo gisara eratuta zegoen. Bilboko Itsasadarreko bi aldeetara heltzen zen.

Bilboko Radio Mundok (1988); Radio Barakaldok (1987); Bilboko Radio 2000k (1988); Trapaga Arango JB Irratiak (1983), Radio Gernikak (1986) eta Zallako Radio Encartacionesek (1987) osatzen dute Bizkaiko Lurralde Historikoko irrati libre komertzialen gainerantzeko multzoa.

Arabian, Radio Stereo-2 daukagu, lan-alternatiba bila ari zen irrati-profesionalen talde batek sustatua. Emanaldiak 1986an hasi zituen eta taldea sozietate anonimo gisara osatu zen, Irrati-Hedapeneko Euskal Kateko kidea zen une berean. Helburu nagusia mozkinak eskuratzea zen kontratatutako publizitatearen bidez. 2 kW.ko potentzia zuen.

Gipuzkoan, Arrate Irratia zegoen; sorrera 1958tik dator, Eibarren Arrateko Santutegitik emititzen zuen egunetatik; euskara hutsean osatutako programazioa ematen zuen, baina ministerioaren agindu batek itxi zuen 1964an. 1978an hasi zen bigarrenaldea eta berriro itxia izan zen. 1982an ekin zion emititzeari, oraingoan etenik gabe, sozietate anonimoa osatuz. Dituena helburuen artean, baserritarrei, etxeoandreei eta haurrei zuzenduz, kultura hedatzea eta euskara sustatzea ageri dira. Hedapen-eremuak Durangaldea, Markinaldea, Lea eta Deba garai eta beheko arroak hartzen ditu. Inoiz, bere historian zehar, Arrate Irratiak Eusko Jaurlaritzaren eta Aldundiaren diru-laguntzak lortu ditu, baina herri-mailako publizitateetik etorritako diru-sarrerez baliatu izan da nagusiki. Arrate Irratiak 1989an lortu zuen emititzeko lizentzia.

Irrati komertzialek erakusten zituzten helburuak emititzeko lizentzia lortzera mugatu ziren gehienetan. Gobernuak agindutako itxieraren ondoren, 1989an, Eusko Jaurlaritzak frekuentzi banaketa egin zuen eta hala deituriko «legez kanpoko» irrati bat edo besteri baino ez zien eman legeztapena; Onda Vasca, Radio Nervión, Onda 3 eta Arrate Irratia izan ziren.

Jazarpenak eta gobernuaren itxierak gorabehera, bada zenbait, gaur egun ere Irrati Libre gisa diharduena; hauen artean,

aipa ditzagun: Irola Irratia (1988, Bilbo); Tas - Tas (1994, Bilbo); Ptitako (1987, Santurtzi); Radixu (1986, Ondarroa); Zazpiki (1984, Elgoibar), Txapa (1985, Bergara); Kaka-Flash (1984, Azpeitia); Zintzilik (1983, Errenteria); Irrintzi (1985, Astigarraga); Molotoff (1987, Hernani); Zirika (1991, Idiazabal); Hala Bedi (1983, Gasteiz); Zarata (1986, Iruñea) eta Eguzki (1982, Iruñea). Irrati libreok, eraturako aginteen aurkako ozengailu bihurtzeko lehengo helburu berak eta hiritarren eta talde marginalen esku-hartze zabalena erakusten jarraitzen dute.

UDAL IRRATIAK, LEGEZKO ERREALITATEA

Abenduaren 18ko 31/1987 Telekomunikabideen Antolamenduko Legeak (TAL), dagoeneko, Udal-Korporazioek zerbitzu publikoa ematea aurriztatu zuen.

Lege honen helburua adierazpen-askatasuna bermatuz, informazio-aniztasunaren ingurunea zabalduko duen irrati bidez hedatutako herri-mailako komunikabideak hiritarrei bideratzea da.

Lege honek eztabaida sutsuak sortarazi ditu irrati pribatuaren aldetik, finantzaketa bikoitza dutelako: Hazienda Lokalen diru-laguntzak eta publizitate bidezkoak.

Hasieran ez zen ikusten publizitatea sartzerik, baina talde politiko guztiak bat etorri ziren, merkataritza-finantzaketa baimentzen zuen emendakinarekin, Alderdi Popularra ezik; honek erantzuki egin zion gobernuari, lehiakidetasun ez-leiala eginenez jarduera pribatua inbaditzen zuela esanez eta, irrati publikoen ugaltzeaz, gobernuak irrati-hedapen pribatua isilarazteko asmoa zuela.

Euskal Herriko Autonomi Elkarteak, Autonomi Estatutuaren 19. artikuluari esker, eskumena du gizarte-komunikabideetako gaien lege-garapenerako; honenbestez, Euskadiko Udal-Erakundeek frekuentzia modulatuako uhin metrikotan irratiak izateko behar dituzten bideak erabaki ditzake. Hala dago ikusia martxoaren 2ko 138/1994 Dekretuan.

Udal-irriatiok Euskal Herriko kultur eta hizkuntz berezitasunaren babes eta sustapenaren bermatzaile izan behar dute. Interes publiko hau babesteko, azken Euskal Urtekari Estatistikotik Udallerri bakoitzerako atera daitezkeen ehunekoen batuketaren araberrako euskararen presentzia gutxienik ziurtatu behar dute.

Herri-mailako irriatiok denen amankomuneko ezaugarri-multzoa dute: udalerrira mugatutako geografi eremua; entzulego mugatua eta anitza; zerbitzuz eta orotariko programazioz osatuak daude, neurri handian; igorlearen eta hartzailearen arteko gertutasuna ere gertatzen da.

Interes sozio-politiko nabarmena ageri duten irriatiak dira, kultura, politika eta gizarte-mailatako kolektibitatearen hezur-mamitzea dakartenez. Eta ez gaitezen engaina: aukera ere eskaintzen dute hauteskundeetarako.

Legeak erabakitzen duenez, diru-sarrerak eskura ditzakete publizitateetik eta interesa, beraz, ekonomikoa eta merkataritzakoa da, produktua ustezko eta zuzen-zuzeneko kontsumitzaileei iragarritz.

Beste irriatiekin batera bizi daitezkeen irriatiak dira eta ez luke zertan planteatu beharrik lehiakidetasunaren erronka, nolabaiteko desorekaz plazaratzen direnez bitarteko teknikoetan eta giza baliabideetan; esate baterako, irriati handiek hasi duten teknologi mailako eraberritzeari dagokionez; herrietako irriatiak honetan, noski, atzeragotik datoz.

Irratiok herri eta eskualde-mailako prentsarekin bateratu jaio ohi dira eta, inoiz, beste fenomeno berri batekin batera: herri-mailako telebistekin, alegia.

Hori bai, garrantzizkoa deritzot irriatiok gutxieneko profesionaltasuna, dedikazioa eta ordainketa izateari. Eta, bestalde, us-te dut ez dutela zertan emititu beharrik eguneko 24 orduetan.

Oso gutxi dira oraindik Euskadin herri-mailako irratia duten udalak; eratu direnak, irriati-enpresa handien merkataritza-estrategiek errentagarritasunik ikusten ez duten udal ertain-handietan kokatuak daude.

ZENBAIT ONDORIO

Euskadi liderra dugu irrati-kontsumoari dagokionez, beste Autonomi Elkarteen aldean, lehentasuna erakusten baitu irrati konbentzionalaren entzulego zabalean (% 49,5); irrati-formulan, berriz, azken tokietara jaisten da (% 15,5).

Euskal Autonomi Elkartea irrati-hedapeneko sistema publikoak presentziarik handiena duen tokia da: entzulegoaren % 35a, % 25ean dagoen estatu-mailako batezbestekoaren aldean.

Herri eta eskualde-mailako irrati-kopuru handienetakoa duen Elkartetako bat da.

EAEk ia hirurogei irrati-emisora ditu eta programazioko eskaintza gaztelaniaz da nagusiki eta oso gutxitan ele bitan; urrun dago, honenbestez, Euskadiko soziolinguistikaren batezbestekotik.

Oso irrati gutxi dago Hego Euskadin bertako programazioa eta egitura duenik; hauen artean, Eusko Irratia kate autonomikoa daukagu (bi irrati gutxienik argi eta garbi bertakoak ditu; beste biek, programazio eztabaidagarriagoa), Bizkaia Irratia (euskarazko programazioa eta ondo bereizitako programak ditu, nekazaritza eta arrantza-munduari zuzenduak) eta Egin Irratia (ele bitan, nortasun propioa du, edukietan bereizten da, irrati alternatiboaren nernamuin gisara ageri da eta programazio-eredu bizia dakar).

Beste irratiek, EAEn dauden arren, estatu-mailako kate handien programazio mimetikoak eskaintzen dituzte eta haien islada zintzo dira eremu zehatzagoan. Irrati konbentzionala edo orotarikoa, irratien iragarpena egiteko publizitate-erakarmen handiko fitxaketetan edo izartzat hartzen diren esatarien inguruan pertsonalizatua dago.

Irrati-programazioa aisia edo jolas-programetan oinarritua dago eta presentzia zabalez ageri dira dialean info-showean oinarritutako albiste-edukiak, hau da, albiste-kutsuko espektakularizazioa; honen azalpenik argienak solasaldiak eta aktualitatearen irri-parodiako irratsaioak ditugu. Solasaldi haueta-

ko gehienetan, hiritarrari zertaz pentsatu eta nola pentsatu erakusten dioten iritzi-emaile profesionalak egon ohi dira eta ez, mintzatu beharreko gaien arabera aukeratutako adituak.

Espezializazioak, kalitate teknikoak eta, batez ere, adin gaztea0goak eraginda, entzule-aldaketa handia gertatu da Uhin Er-tainetatik Frekuentzia Modulatura.

90eko aldi honetan irrati- eta telebista-sistema publikoen le-gitimazio-galera nabari da. Komunikabideen desmonopolizazioa, komunikabideetako emisora eta estazio publiko eta pribatuen ugaltzea, informazioa, kultura eta aisia mendean dituzten tal-de multimediak agertzea eta finkatzea, satellite bidezko kana-len ugaltzea, etab. gaur egungo irrati-egoeran dauden joeretako batzuk ditugu.

Euskaratzailea:
ESTEBAN AGIRRE

[GUNEN GURPILEAN

JESUS ETXEZARRAGA

MEÑDE-HONDARREKO GIZONAK
EGUTEGIAK
BAKOITZAK BEREÀ
ETXENAGUSIA

XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

20 URTE
POESIA EMEAREN KONTRA
GOMENDIO TXIKI BAT

LONTXO OIHARTZABAL

IKERKETA ETA ENPRESEN ESKUHARTZEA
UNIBERTSITATEEN ARTEKO HARREMANAK
UNIBERTSITATEKO IRAKASLEGOAREN PRESTAKUNTZA

KIKE AMONARRIZ

A POR ELLOS
GOTZAIN BERRIEN IZENDAPENA
HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK
EZKORTASUNA
MESTIZAJEA
HIZKUNTZ NORMALIZAZIOA AUZITAN

KULTURA
LITERATURA
UNIBERTSITATEA
SOZIOLINGUISTIKA

KULTURA

JESUS ETXEZARRAGA

MEÑDE-HONDARREKO GIZONAK

Azkenengotik Emile Cioran eta Julio Caro Baroja joan dira. Mende-hondarreko gizonak. Mendea garaitzeko jaio ziren beste batzuk ere. Gabriel Ramos Uranga esate baterako. Julio Caro Barojak aspaldian zituen nekrologikak idatziak erre d a k-zioetan eta bere lanak utziriko jakituria oinatza aho batez go-raipatu dute gehienek honelakoetan ohi denez.

Julio Caro Barojaren heriotzak baina, gure kultur munduak bizi duen psikopatia bat edo beste azaleratu digu. Harriduraz irakur zitekeen egun gutxitara nola idazten zuen norbaitek ez zegoela doluminerako arrazoirik «ez baitzen gurea». Euskal gizarte hain sentsibilitate desberdinekoan norbait ho-

r rek erabakitzerik balu bezala besteak zer diren, jarrerak, iritziak eta pertsonak epaitzeko fanatismoak ematen duen zorioneko erraztasun horrekin.

«Tolerantzia nahikoa da. Hori, hemen, ez da batere erraza» esan zien Julio Caro Barojak Bernardo Atxaga eta Jimuri haren heriotz ondoko egunetan euskaraz berrargitaratu zuten elkarrizketa batean.□

EGUTEGIAK

Arestian aipaturiko Atxagak egutegiak egiteko aspalditik duen jitea ezaguna da, Akademia Sekretuaren Egutegia lekuko. Trantsizio urte haietan lau lagun, hori bai ondo jarriak, eta hamaika noizean behinkako inguruko bildu zituen Pott Bandak egin zuen keinu berbera egin du ere Lubaki Banda gazteak, Euskal Idazleen Elkartearen eskutik bere agurra kaleratzeko.

Uste genuen hori ere bagenekiela, edo gure aurretikoek ere bazekitela, baina orain dela gutxi jakin dugu nola idatzi behar den era zuzen batean edozein berri nahiz eskutitz edota dokumenturen goienaldetan jarri behar genukeen data eta lekua. Azken ospakizun eta biltzarren ondoren, eta zabal zegoen eskakizun bati erantzunez, Euskaltzaindiak bere erabaki, batzuetan txiki eta bestetan garrantzitsuen berri ahal denik eta gehien zabaltzeari eman dio. Eta holako batean heldu zitzaigun fetxa nola jarri zehazten zuen hori.

Euskararen etorkizuna ziurtatzeko informatika eta telekomunikazioez baliatzeko ahaleginak egiten gabiltzanean iruditzen zaigu, hala ere, zenbait gauza sinpleetan beranduegi ez ote gabiltzan. Euskara hutsez irakasten duten zenbait ikastetxetan planteatzen hasi den arazoa beste erritmo batean doa: informatika gaiak euskaraz azaldu eta ikasi, edo, hizkuntz maila dexentea ziurtatu ondoren, ingelesez egin zuzenean.□

BAKOITZAK BEREIA

Baserri askotarako bideak hango jendeak alde eginda gero konpondu zituztenez, behar zituztenean ez zegoelako nork egin, eta egin dituztenean, sarri, ez dagoelako nork erabili, kultur azpiegitura erraldoietan ere antzerako zerbait jazo daiteke. Egitea zaila izan arren, mantentzea eta bizirik iraunaraztea ez da errazagoa izango. Lurraldeka baino probintziaka dagoen tirabira dirudi honek. Lehen Kursaal, Euskalduna Jauregia edo Guggenheim Museoa baldin baziren lehian, ea nork behar zuen gehiago, edo neurkaitzagoa den, ea nork merezi duen gehiago, orain Bilboko eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoen etorkina dago azterleen mikroskopiopan.

Onenean ere, ez horren aintzina ezagutu genuen finantza-erparen aldirik ekarriko ez digun errekupeazio ekonomikoaren menpeko, diruen banaketaren ardura dutenek argi dute datorren urterako: zor publikoaren zama arindu egin behar da, eta inbertsioen lehentasunak ez dira kulturarenak, mantendu behar dena mantendu egingo baldin bada ere.

Jose Maria Gorordo ICV/EHE taldeak banderatzat hartu du probintzien arteko lehia hori. Lehen pausoak eman ditu: lurraldeen errepresentazio «desorekatua» salatu, lurralde bakoitzak egiten duen aportazio ekonomikoaren banaketaren errebisioa eskatu, Bilbo euskal hiriburutzat errebindikatu eta orkestra sinfonikoen isilpeko gatazka ikur bihurtu.

Gorordok Bilbon du indarra, Bizkaia osora zabaltzea nahi lukeena. Baina dirudienez, hasi dira talde barruko banaketak. Etorkizunak esango du dagoen dagoenean geratu eta Gorordorekin urtuko den. Zabalduko balitz, ikusi egin behar zer ekarriko digun antzerako beste esperientzia batzuk ikusiz. □

ETXENAGUSIA

Gotzainen izendapenak, edo hobe esanik Bilborako euskalduna ez den gotzaina izendatzearen auziak, ilunpean jarri du Karmelo Etxenagusia gotzain laguntzailea. Izango du ma-

kuluen beharrik aldean hartu beharko duen konponbehar eta itzultzaile zereginagatik. Baina goragoan Bizkaia aipatu dugunez, beharbada beste Bizkaia bat, ezin ahaztu Mikel Zaraterekin batera lurralde honetan euskal alfabetatzearen alde egin zuen lana. Aldi hartako gatazta eta eztabaidak alde batera utzirik, maisu izan genuenontzat beti geratuko zaigu azalaren mintzetik berez-berez ateratzen zitzaion iparraldeko euskal idazleenganako maitetasuna, eta hori, ez ahantzi, iparraldeko zenbait idazle proiektu legez erabiltzen zen aldian.□

LITERATURA

XABIER MENDIGUREN

20 URTE

20 urte dira Aresti hil zela. Beste horrenbeste Franco joan zela. Bi data horiek marka lezakete 75ean amaitzen den aldia. Bada 3. bat ere, aldi berria iragartzen duena: 75ean kaleratu zuten *Panpina ustela* aldizkari berritzaile eta ikonoklasta Koldo Izagirrek eta Bernardo Atxagak.

Hau dena askotan azaldutako kontua da, eta ez luke berez efemeride-errepikatzearena beste baliorik izango. Hala ere, 95eko uda-atari honetan liburu bana kaleratu zuten bi idazle horiek, oraindik ere sorkuntzarako emankor eta gure kultur panoramako protagonista izaten jarraitzen dutela erakutsiz; bestalde, idazten ari naizen uda-amaieran beste ezer askorik kaleratu ez denez gero, bi liburu horiek hartuko ditut iruzkintxo honen oinarritzat, zuengana iristerako dextenteko atzerapenarekin ibiliko garen arren.

Zeru horiek du izena Bernardo Atxagaren nobela berriak. Nobela laburra, aurretik argitara emandako *Zeruak* irakurraldi-liburuxkarekin *amplificatio* modukoa. Bere aurreko *Gizona bere bakardadean* hartako unibertso literario bertsuan segitzen

duela esan liteke: estilo errealista, hizkera kaletarra, gaur egun kokatua, gatazka sozialaz diharduena baina pertsonaren baitan duen eraginaren iragazitik. Egileak berak uste dut esan duela, lan honek eraman zezakeela izenburutzat «Emakumea bere bakardadean». Ez da liburu txarra, inondik ere, nekez aterako da ezer txarrik Atxagaren lumatik; halaz guztiz, faltan ditu *Gizona* hartako sakontasuna eta perfekzio formala, neure ustez behintzat. Txikiagoa izateak sortutako inpresioa ote dut? Baliteke. Baditu bere dohainak ere, noski, hala nola tentzioari uneoro eustea edo poesia narrazioaren erdian txertatzen jakitea (*Etiopian* ere, alderantziz baina, arrakasta osoz erabilitako baliapidea). Nolanahi ere, espero dezagun Espainiako eta Europako merkatuetan toki bat eskuratzeak berez dakarren presio komertzialak ez dezala bultzatu egilea behar bezala umotu gabeko obrarik azkarregi plazaratzera. Errespetuz eta mirespenez diot, zinez, oraintsu *Egunkaria*-n atera berri dituen ipuinetan erakutsi baitigu, behin berriro, bere eskuaren trebea, hitzekiko bere sorginkeria.

Kuba triste dago da Koldo Izagirrereren azkena. Aski liburu bitxia, Izagirrereren obrako prosa-lan guztiak ere nahiko bereziak badira ere. Kronikaren eta eleberraren erdibidean dago jeneroaren aldetik, Karibeko uhartean zehar egindako bidaiari ardatz hartuta. Ez da jeneroena nahasketa bakarra, ugari baitira liburuan hibridazioak eta dialektikaren teinka ageri duten ezaugarriak: hango sistemarekiko mirespen eta atxikimendua kritikaren eta akatsen agerpenarekin batera doaz; gogoeta serioa adarjotze etengabeaz zipriztindurik edo alderantziz; azken batean, kontraesan betean bizi da Kuba, inoiz baino islago eta isolatuago, eta kontraesan horren lilurak azaldu nahi dizkigu egileak.

Gaia, ordea, ez da Kuba. Edo, hobeto esanda, Kuba bezainbat da Euskal Herria. Orain 20 urte, poesia sozialaren gailurrean, literaturaren autonomia aldarrikatu zuten Atxagak eta Izagirrek: politikatik eta are euskalgintzatik ere libre jardun behar zutela, literatura ona egingo bazuten. Gaur, autonomia hori den-denek onartzen dutenean, gure inguruko borroka bihurtu da, nola edo hala, bien obretako giltzarri, erre a-

litatearen zama gainetik kendu ezin dugun seinale edo. Parabola erraz bat eginda esan liteke, borroka armatuaren tradizio eta ekarpen guztia lepo gainean daramagun karga dela; Atxagak, edo Atxagaren pertsonaiak, borrokari uko egin eta kartzelatik atereaz erabakitzen du karga horrekin nekatuta dagoela, ez diola onik egiten eta bizimodu lasaiagoa nahi duela. Izagirrek, berriz (edo bere liburuko kontalariak), Kubako komunismoaren adibidea erabilita, mundu osoak amore eman eta etsitzeko eskatzen, esijitzen dizunean, karga hori zeure ondaretzat onartu eta aurrera egitea defenditzen du, inredentismoa nolabait ere. Jarrera kontrajarriak irudi lezakete, baina badituzte loturak ere: ez bata ez bestea ez dira sinplistik ezta demagogikoak ere, eta aitzitik biak oinarritzen dira giza duintasunean eta biak dira alde horretatik indibidualistak, hitzaren zentzu humanistan.

Dena dela, gauza bat azpimarratu nahi dut, inork gogoeta txatxu hauen ondorio okerrik atera baino lehen: bi idazle handi ditugu horiek, dauzkagun handienetakoak, eta ez ditzagun egin jarrera biren bandera. Jendea aurrez aurreko manifestazioetan paratzen den herri triste honetan, euskal kulturgintzan gabiltzan apurrok ahaleginak egin behar baititugu gure arteko zauriak ixten, eta ez amildegiak zabaltzen. □

POESIA EMEAREN KONTRA

Komentatzeko liburu askorik ez dagoen sasoi hau aprobetxatuta, baimena ematen badidazue, nire aspaldiko kezka edo kasketa bat azaldu nahi dizuet. Azken urteotan kaleratzen diren euskarazko poesi liburu gehien-gehienekin konpondu ezinezko arazo bat daukat: ez zaizkit gustatzen, ahulak iruditzen zaizkit, txepelak, ezdeusak. Eta, hala ere, horrelako liburuek irabazten dituzte sariak eta kritika onak jasotzen. Hortaz, bi esplikazio besterik ez zaizkit bururatzen hau argitzeko: bata, ni nabilela zeharo despistatuta eta galduta, poesiaz ezertxo ere ulertzen ez dudalako; izan liteke, noski, izan ere ni narratibazalea bainaiz batik bat, eta gainera, gaur egun beste hizkunt-

za batzuetan egiten den poesia irakurtzen ez dudanez, agian zaharkiturik geratu da nire sentsibilitatea.

Hori da argibide bat; bestea, lotsarik gabe aitortzea poesia *mota hori* ez zaidala gustatzen, ez interesatzen. Neure gustoa da, jakina, gusto guztiak bezala arbitrarioa eta eztabaidagarria; baina literatur kritika antzeko zer edo zer egin nahi duenak, zintzo jokatu badu, bere gustoaz fidatu behar du, besteenarekin kontrastatu ostean, eta irakurle bakoitzak epaituko ditu azken batean bai literatur sortzailea bai kritikaria.

Hortaz, neure iritzia azalduko dut: gaur hemen egiten den poesia *gehiena* ez zait gustatzen. Gehiena diot batzuk oso onak iruditzen zaizkidalako. Ez dut ez batzuen ez besteen izenik emango, inor ez mintzeko; ez baita izen kontua gainera, joerena baizik. Eta gaurko poesiaren joera hori da eztabaidagai bihurtu nahi nukeena.

Hitz batean adierazteko, poesia *emea* deituko diot. Ez emakumeek egina delako edo emakumetasunarekin zerikusirik delako, ez; 'eme' hitzaren beste adierak erabili nahi ditut hemen: bigunkeriarekin zerikusia duena eta, batez ere, M letra bera, emez hasten diren adjetiboek ezaugarritzen baitute ondoenik poesi mota hau: motela, makala, mengela, maxkala, mixkina, melaxka. Gehiago ere bururatzen zaizkit baina nahikoa izango dira horiek, adierazi nahi dudana ulertarazteko.

Neure iritzia da, esana dut lehen ere. Beste batzuen ere bai, lagun batzuekin hizketan konturatu naizenez. Beste asko kontra jarriko zaizkit, noski, eta eskubide osoz. Tartean egon litezke, beharbada, egungo poeta zenbait. Hala ere, horietako bakoitzak pentsa dezala zein neurritan diren egiazkoak ezaugarri horiek, eta zenbateraino ez ote duen errua emekeria horrek —eta intelektualismo nartzisistak, eta abstrakzio antzuak, beste bi gaitz zabaldu aipatzearen— egungo poesiak eta irakurleek aspaldi samarretik bizi duten dibortzioan. Dibortzio hau, dena den, ez da gure poesiaren kontu hutsa, Mendebalde osokoarena baizik eta poesiaren kanalei dagokie gehiago poemetako hitzei eta mamiei baino. □

GOMENDIO TXIKI BAT

Au rreko iruzkinak luze samarrak atera zaizkit eta orain to-
kirik ez beste zenbait kontu hizpidera ekartzeko. Hala ere, pro-
posamen txiki bat egingo dizuet, hurrengo egokieran xeheki-
ago aztertzeko asmoz. Propaganda-kutsua ere eman liezaioke ba-
ten batek, edizioan zerikusia izan dudanez gero; haatik, bihotz-
ez esan dezaket deskubrimendu bat izan dela niretzat, izenez
ezagutu arren izatez ez bainekien horren idazle fina, kontala-
ri aparta zegoenik hor. Egilea: Telesforo Monzon. Izenburua:
Langosta baten inguruan. □

UNIBERTSITATEA

LONTXO OIHARTZABAL

IKERKETA ETA ENPRESEN ESKUHARTZEA

Jakina eta ezaguna denez irakaskuntza eta ikerketa dira
Unibertsitatearen betekizunik nagusienak, gure unibertsitateko
egoerak beste itxura bat badu ere. Irakaskuntzarena erabat
arauturik badago ere —eta nola arautua gainera!—, ikerketare-
na irakasle edo sail bakoitzaren irizpideetara utzirik dago. As-
ko edo gutxi ikertu, ez da gauza larriegirik gertatzen. Izan, or-
dea, ikerketaren bidez bakarrik aurrera daiteke gure ezagut-
za ren eraketan eta berrikuntzan. Eta ezin ahaztuko dugu eza-
gutza ren aurrerakuntzan oinarritzen dela bizibidearen erosot-
tasuna eta kalitatea, eta baita gizaki beraren askatasuna ere,
hein handi batean behintzat.

Dirudenez, gainera, horrelaxe ulertu izan ohi dute lurral-
de aurreratuenetako enpresa aurreratuenek ere. Haur txikie-
nek irakurtzen eta idazten nola ikasten duten aztertu eta iker-
tu duten lan-sail batez moldatutako liburu interesgarri bat
irakurri berria dut. Horietako ikerketa-lan gehienak Ford ize-

neko auto-enpresa handiaren fundazioak finantzaturikoak ziren. Gutartean ere argitaratu berria du Ludger Mees irakasleak Errioxako ardoaren historia sozialaz ikerketa-lan jakingarri bat. Beste auto-enpresa handi baterako fundazioaren finantzaketari esker burutu ahal izan du ikerlariak bere lana, Volkswagen enpresaren fundazioari esker hain zuzen ere. Atzerri aurreratuan ikerketa-lanak argitaratzen dituzten aldizkarietan horrelatsuko adibide ugari aurki daiteke. Ohizkoa ere bada, izan, ikerketarako diru-kopuru errespetagarri bat aurrirakustea horrelatsuko enpresen urteroko aurrekontuetan.

Enpresa-mundua eta ikerketarena nahiko elkartuta dabilzala adieraziko ligukete horrelatsuko gertakariak. Baina bada hemen azpimarratu beharreko horren guztiaren ezauzgarri nabarmen bat. Zentzuzkoa eta bidezkoa dirudi enpresa batek ikerketan hainbat diru ematea: ikerketak etekinak ugarriagotzen eta hobeagotzen lagunduko diela suposa baitaiteke. Baina, hara nondik eta enpresaren lanarekin eta produktuekin zerikusirik eta inolako lotura zuzenik ez duten eremu eta esparruko ikerketak ere finantzatzen dituztela! Arestian emandako bi adibideak horretxan lekuko baino ez dira.

Horrelako enpresak gizarte-erantzukizun bat hartzeko ere gaitu direla frogatuko liguke jokabide horrek, eta beren etekinetatik zati bat (zatitxo bat baino ez bada ere) berriro gizartera itzultzen dela ikerketaren emaitzen bitartez, gizartekideen lanean baitu jatorri ere.

Gutartean ez da ohizkoa jokaera hori. Zenbait enpresak, bai, eskaintzen dio dirurik eta finantziaketa-biderik hainbat eta hainbat ikerketari, baina bere interesetarako baliagarri izanen zaionari bakarrik normalki. Teknologiaren munduan eman ohi da gehienik hori, gizarte-gaiak inolako laguntzarik gabe gelditzen diren bitartean.

Enpresak beren ikuspegiak zabaltzen joan daitezen heinean eta neurrian etorkizun itxaropentsuago bat irekiko zaio unibertsitatearen ikerketa-betekizunari ere. Egia da gizarte osoaren eragina behar duela unibertsitateak bere eginkizunak duintasunez beteko baditu. Baina egia horren barruan

begibistakoena zera da, laguntzarik eraginkorra diru-iturrietatik jaso ahal izanen duela, eta diru-iturriak enpresetan daudenez nagusiki, ezinbestekoa gertatzen da euskal enpresaren munduaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen elkarlan hestua. Jai du, bestela, gure herriko goimailako eskola honetako ikerketak.□

UNIBERTSITATEEN ARTEKO HARREMANAK

Egunkari eta irrati-telebisten bitartez jakin ahal izan genuenez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektore ohiak —Juan García Blasco-k— eta Euskal Herriko Unibertsitatekoak —Goiriena jaunak— elkarlanerako hitzarmen bat sinatu zuten. Antza denez, gainera, unibertsitate-barruti bakar bat osatzeko asmoak eta gogoak ere adierazi zituzten orduan bi errektoreek, nahiz eta zailtasun ugari gainditu beharko direla helburu horretara iritxi bitartean adierazi zuten orduan.

Barruti bakar bat osatu ala ez, elkarkidetza ezinbesteko ere badela esango nuke nik gaur egun. Baina ez Nafarroako eta Euskal Herriko Unibertsitateen artean bakarrik, Akitania ere hortxe baitago, eta historiaz, kultur-ezaugarritz eta industria-harremanez, neurri handi batean bederen, elkarlanean jardutera beharturik baitaude lurralde horiek.

Harremanak, politikaren eremuan behintzat, bideratzen hasiak dira, euskarari toki handiegirik egiten ez dion *Atlantica* izeneko aldizkari dotore eta ponpoxoak aldian-aldian berri ematen digunez. Aldizkariaren izenburupean adierazten zaigunez «Aquitaine/Euskadi/Navarra» (sic) lurraldeak hartzen ditu euromagazine honek. Komertzio, industria eta politikaren mundukoak elkarlan horren beharraz konturatu badira eta beren urratsak ematen hasiak baditugu, ezin utziko da unibertsitatea harreman-giro horretatik at.

Hiru lurralde administratibo horiek elkartuz ere bertako gizateria ez da handiegia, Europako beste lurralde batzuetakoekin alderatuz gero behintzat. Eta industrigintzaren eta komertzioaren eremuen arteko harremanak ezinbestekotzat jo

badira, industrigintza zentzuzko eta kalitatezko batek ezin utziko du ikerketa alde batera. Prospektibak ere bide batetik jo beharko du, industriak eta komertzioak bide bateratsu bati jarraitu nahi badiote behintzat hiru lurraldeetan.

Unibertsitateko irakasleen arteko elkarlana eta trukaketa erraztuz, bertako irakaskuntzaren eta ikerketaren kalitatea hobegotzeko baldintza egokiak jarriko lirateke. Unibertsitate bakoitzak hainbat eremutan oso irakasle jantziak eta aparte-koak izan ohi ditu, bai irakaskuntzan eta baita ikerketaren kontuetan ere. Irakasle eta ikerlari horien lana emankorra goa litzateke lana inguruko unibertsitateetara hedatuz gero. Eta aukera horri ezin muzin egin diezaieke gure hiru lurralde horietako unibertsitateek. Beste eremuetako gizarte-harremanak gauzatzen hasiak badira, ezin atzera geratuko zaizkigu unibertsitateak, aintzindari ere beharko lukete izan elkarkidetza horretan, elkarrekiko susmo eta lehia antzuak alde batera utziz. □

UNIBERTSITATEKO IRAKASLEGOAREN PRESTAKUNTZA

Irakaslea, edozein mailatakoa izanik ere, egin egiten da, ez da horrela jaiotzen. Irakaslegoaren prestakuntzari, zoritxarrez, ez zaio arreta eta garrantzi handiegirik eskaini izan orain artean gutartean. Jadanik eskarmentu eta iaiotasun handiko irakasleen ondoan ikasi ohi dute irakaslegai berriek beren etorkizuneko lanbidea hainbat eta hainbat lurralde aurreratu-tuetan. Hilabete (agian baita urte) luzeetako jardunaldietan parte hartuz eta lagunduz eta oharrak jasoz moldatu ohi dute beren prestakuntza. Irakasletuta hartu ohi dute, geroago, irakaskuntza-ardura eta erantzukizuna.

Oinarrizko Irakaskuntzan irakasle izateko horrelatsuko zertxobait egin nahi izaten bada ere (oso baldintza desegokietan eta ia inolako baliabiderik gabe), ertainetako eta goimailako irakaskuntzetarako ez da inolako aurre prestakuntzarik aurrakusten gutarteko erakundeetako arduradunetan.

Lehenago baziren irakasleen irakasle-laguntzaileak eta antzekoak unibertsitatean. Gaur egun, ordea, ez da horrelakorik

gurean behintzat. Eta askori, ikasketak amaitu berritan, inolako eskarmenturik eta esperientziarik gabe, irakasle izatea egokitu zaio. Eta irakatsi beharraren beharrez ikasi du hala-holako irakasle izaten. Egoera horrelakoa izanik, ezin harrituko gara ikasleak oso kexu badira, ikasi gauzak buruz ikastera baino ez dituztela jartzen eta. Ezin harrituko gara, aldi berean, irakasleak kanpokoan ebaluaketa bat onartzera presatzen ezbadira eta horrelako ebaluaketa bati beldur baldin badiote. Zer ebaluatuko zaie, aurrez ezer irakatsi ez bazaie?

Aurrerapauso garrantzitsuak eman dira, azken hamarkadetan zehar, ikasleen ikaste-prozesuari dagozkien ezagutzetan. Ezagutza horietara egokituz moldatu beharko luke irakasleak —baita unibertsitatekoak ere— bere irakas-jarduera guztia. Horretarako prestakuntzan, ordea, ez du urratsik eman gure unibertsitateak. Kalitatezko irakaskuntza eskaini nahi badu, badago horretan zer jorraturik. Lan horri ere ekin beharko lioke noizpait gure unibertsitate gazte honek. Hobe orain geroago baino.□

SOZIOLINGUISTIKA

KIKE AMONARRIZ

A POR ELLOS!!

Goiz hartan, Don Jose Mariak gaizki lo egin eta gorputzari behar besteko atsedenik eman ez dionaren aurpegiz esnatu zen.

Besperako Telediaroan, Pujolen deklarazioak katalaneraz entzun eta beraz, azpituluen bidez jarraitu behar izan zituen. Berak!. Non eta Madrilen!

Astean zehar gero eta berri lazgarriagoak jaso zituen: Texasen epaile batek ama zigortu egin zuen alabari gaztelaniaz hitze-

giteagatik; Valencia inguruan, inoiz ikusitako manifestaziorik handienetako bat egina zuten katalaneraren alde eta batez ere PPre politikaren aurka, adiskide batek oparitu zion Penedeseko ardo-botila katalanera hutsez etiketatuta zegoen... Euskal Herrian zantzu kezagarri batzuk egon arren ez zirudien egoera oso alarmagarria zenik, baina orokorrean, gauzak bere onetik ateratzen ari ziren.

Marka guztiak hautsi zituena ordea, Gabriel Cañellas izan zen, Partidutik aldendu behar izan zuen Mallorcako lehendakariak. Dimisio/zesearen berri nola emango komunikabideen aurrean eta, katalanera hutsez!! Besterik ez genuen behar.

Don Jose Mariak gauza guzti hauek zituen buruan, Don Pelayoren errenkarnazioa zelakoan eta Covadongan zegoelakoan, mikrofono eta bideo-kameren aurrean jarri eta zirt-zart, zalantza izpirik ez sortzeko moduan, Gaztelako lurretatik gerra-aizkora atera zuenean: «el idioma castellano es la fuerza de intervención rápida de España», «fijar la primacía constitucional del castellano», «experimentos lingüísticos coactivos allí donde la lengua propia no es el castellano», ...

Handik gutxira, Covadongan egon ordez, Escorialen eta mikrofono eta bideo-kamera askoren aurrean zegoela konturatu ondoren, esanak nazioarteari begira esan zituela adierazi omen zuen eta beraiek, «elebitasun perfektuaren» (sic) alde daudela.

Xabier Leteren «Otsoa eta Txanogorritxu»ren abestia diskajogailuan jarri eta besaulkian eseri nintzen letra lasai-lasai entzuteko asmoz:

«Otsoak, uh,uh,uh,uh, mendi gainetan ugari.....».

(Parentesi artean esan dezadan, Aznarren adierazpen hauek Catalunyan sortu duten erreakzioa ezagututa, harrিতuta geratu naizela gure prentsak eskaini dien arreta eskasa ikusi ondoren.

Mallorcako Bunyolako Udalak *persona non grata* izendatu du honako arrazoi hauengatik: «Conducta contrària al futur de la humanitat, la seva agressió a la llengua pròpia de l'illa (Mallorca) i la seva falta de respecte a les institucions democràti-

ques». Mozioaren alde PSM-Nacionalistes de Mallorcako eta Independents de Bunyolako zinegotziak, PSOEkoa eta... baita PPko bat ere!!!.□

GOTZAIN BERRIEN IZENDAPENA

Bizkaiko gotzainak euskalduna izan behar omen du, edo gutxienez hemengoa, edo gutxienez euskal errealitatea eza-gutzen duena... Edo (beste batzurentzat) espainiarra izanik nahikoa omen da.

Eskandalua izugarria izan da; Xabier Arzallusek esanda-koak bete-betean jo baitu Estatuaren osaketaren inguruan dauden kontzepzio desberdinen arteko mugan.

Ez da hau izan, hala ere, era honetako lehen eskaera gure historian; prentsa bidez hainbatean irakurri ahal izan dugun bezala, mende haseran behin baino gehiagotan egin zituzten era honetako eskaerak euskal erakunde desberdinek.

Ni, agnostikoa izanik ere, erabat ados nago Xabier Arzallusek politiko eta kristau bezala egiten dituen eskaerekin: euskaldunen gotzainak euskalduna izan behar du. Punto. Alegia, euskaraz jakin behar du. Bost axola non jaioa den; baina euskaldunen gotzainak euskalduna izan behar du.

Arrazoizkoa derizkiot, ezein nazio, erakunde edo taldetako buruzagiek, zuzendu behar duten taldearen ezagupena izateari eta taldearekin komunikatzeko gai izateari. Batez ere, funtzionaltasun kontua da.

Gure herriarena kasu kuriozkoa baita: Euskal Herriko 5 gotzainetatik bakarra da euskalduna, eta euskaraz dakiten ia gotzain guztiak (Peruko Irizar, Bronxeko Garmendia...) Euskal Herritik kanpo daude.

Euskal politikariek luzatutako eskaera zuzen honek ordea, segida logikoa izan beharko luke:

Batetik, eliza mailan gotzainek duten arduraren pareko erantzukizuna duten arduradun politikoek ere, euskaldunak

izan beharko lukete (esate baterako, aldun nagusiak, hiri handienetako alkateak...). Gotzainak euskalduna izan behar baldin badu besteek ere bai; edo bestela gotzaina ere libre da.

Bestetik, gotzain euskalduna izateaz gain, elizaren menpeko hainbat erakunde eta zerbitzutan euskaldunenganako errespetu gehixeago izatea ere eskatu beharko litzateke: esate baterako, COPE irrati-katean euskarari leku gehiago emanez eta Luis Herre rok zuzentzen duen «La linterna» bezalako saio erasotzaile, antieuskaldun eta gatazka pizleak kenduz.□

HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

Euskal Komunitate Autonomoan 1990. urtean martxan jarri zen hizkuntz eskakizunen plangintzaren emaitzak ezagutu berri ditugu.

Irakaskuntza-esparrua alde batera utzita, euskararen normalizazioak inoiz ezagutu duen plangintza teknikorik osatue-na, konplexuena eta sendoena; bai hartzen zuen jende kopuru a rengatik, erabili dituen aurrekontuengatik, hala nola eskatzen zuen zehaztasun-mailarengatik.

Eztabaida eta kritikak bidelagun izan ditu plangintza honek. Jakinmina zegoen emaitzen inguruan.

Plangintzan sartzen ziren lanpostuei dagozkien emaitzak honako hauek dira, lanpostu hutsak alde batera utzita:

- Dagokien eskakizuna egiaztatuta: %54
- Eskakizunen bat egiaztatuta baina dagokiena lortu gabe: %16
- Eskakizunik egiaztatu gabe: %15
- Adinarengatik salbuetsita: %15

Adinarengatik salbuetsiak alde batera utzita, %63ak zego-kion eskakizuna eskuratu du, %19ak bateren bat eta %18ak batere ez.

Pozteko moduko ondorioak dira zalantzarik gabe, oso plangintza gutxitan lortzen baita bi herenetako arrakasta maila osoa eta bosten bateko arrakasta partziala.

Plangintzak berak beraz, gaingitu du bere baliagarritasun-froga. Eta datu hau oso garrantzitsua da, sektore batzuk plangintzak berak porrot egin zezan nahi baitzuten, bazekitelako plangintza honek porrot eginez gero, oso zaila egingo zitzaiola administrazioari, neurri eta maila bereko alternatiba baliokiderik aurkitzea.

Arrakasta honen adierazgarri da, plangintzaren balorazioa kaleratu ondoren oso gutxi izan direla kontra azaldu diren ahotsak. Bestalde, hizkuntz eskakizunik egiaztatu ez duten funtzionariengan bildu dira alderdi eta sindikatuen kezka.

Hala ere, kontutan izanik, derrigortasun-eguna lanpostuen herenari ezarri zitzaiola, udal batzuk ez direla plangintzan sartu, Osakidetza, Ertzantza eta Estatu-administrazioko langileak oraindik plangintzatik kanpo daudela, eta lehen fase honetan p rofila egiaztatu duten langileak izan direla motibatuenak oro har, jaso dudan inpresioak poz baino ardura eta kezka gehiago sortu didala ezin dut ukatu.

Aurreratu dela, bidea luzea dela eta funtzionarien mundua oso zaila eta konplexua dela jakin arren, iruditzen zait, plangintzaren sinesgarritasunak eta jarraipenaren arrakastak iraugipen-data laburra dutela: edo urte gutxitako epean administrazioak, bere orokortasunean inplikazio politiko sakona agertzen du (udal eta sail horiek plangintzan sartuz, ezagupena erabilera bihurtuz, politikariak erabilaraziz eta sarrera-frogetan euskarari duen garrantzia emanaz) edo aurreratutako guztiak ez du ondorio nabarmenik izango, zonalderik euskaldunetako udal jakin batzuetatik eta goimailako erakundeetako sail jakin batzuetatik kanpora. □

EZKORTASUNA

Eta aurreko atalean esandakoa hobeto ulertzeko, azken bolada honetan, baita udal eta erakunde berrien osaketaren ondoren ere, administrazio mailan euskararen normalizazio-lanetan diharduten teknikari eta funtzionarioen artean somatzen dudana apatia eta ezkortasuna aipatu behar ditut.

Gaur egun, Jaurlaritza, Aldundi, udal eta bestelako erakundeetako euskara-teknikariek oro har oso prestakuntza ona dute, nahikoa baliabide teoriko-instrumental ere badute, baina sarri ez dute behar besteko babesik aurkitzen beren lanean.

Nik ezagutzen dudana jendearen batezbesteko adina 35 urte ingurukoa edo hortik beherakoa da, eta gehientsuenak euskararen aldeko benetako militanteak (izan) direla jakinik, oso beharrezkoa iruditzen zait kolektibo honi babes teknikoaz gain, babes instituzional eta herritar sendoa eskaintzea, euskararen normalizazio-prozesuaren sustatzaile izan beharko luketenak, galga bilaka ez daitezen.□

MESTIZAJEA

Kontzeptu berri hau indartsu sartu da kulturgintzan eta soziolinguistikan. Kontzeptu erakargarria da ezpairik gabe, baina oso nahasgarria gerta daitekeen anbiguotasunaren arriskua somatzen diot, neure gusturako.

Hizkuntz kontuei buruz ari garenean, eta euskarazko testuetan, askoz ere egokiagoa iruditzen zait «hizkuntz normalizazioa» kontzeptua erabiltzea. Erdietsi nahi den helburua askoz ere garbiagoa da, eta euskaldunok nahikoa argi dugu oso mestizatuta gaudela dagoeneko.

Mestizaje kontzeptua askoz ere erabilgarriagoa suertatzen zait kultur ekoizpenaren alorrean. Oso baliagarria izan daiteke bestalde, euskal kulturaren inguruan indarrean dagoen hainbat kontzeptzio *inmobilista* eta *esentzialista* malgutzeko.

Erdaraz irakurtzen dudanean berriz, erakargarria egiten zait (mestizaje cultural/logique m etisse...) erdaldunei *mugitu eta*

nahastu beharra adieraz diezaiekeelako, eta mezu honek euskararekiko hurbiltasuna erraz dezakeelako.

Hala ere badira oraindik, mestizaje kontzeptua *asimilazioa* - *rekin* nahasten dutenak.

Adibide bat jarriko dut: Donostian argitaratzen den egunkari batek zioenez, Euskal Herriko bi antzerki taldek (biak erdaldunak noski), estatuko beste antzerki-talde batzuekin batera proiektu amankomun bat landu behar zuten «dentro de un proyecto de mestizaje cultural».

Eta susmoa dut batzurentzat mestizajea horixe dela: «erre-*gio*» desberdinetatik datozenen artean proiektuak amankomunean burutzea «gaztelaniaz».

Horregatik, garrantzitsua izan daiteke mestizaje kontzeptua hizkuntz normalizazioaren aldeko indar eta erakundeek eskuratzea, erabiltzea eta zentzu euskaltzalean erabiltzea.□

HIZKUNTZ NORMALIZAZIOA AUZITAN

«Va siendo hora de que, desde la propia Cataluña, abordemos críticamente la significación de la política de ‘normalización lingüística’, sacudiéndonos los diversos complejos del síndrome nacionalista y el miedo a que se nos tache de nostálgicos del franquismo o de agentes del nacionalismo español, apelativos que vienen utilizándose como eficaz mordaza en la vida pública».

Hauxe da, *El viejo topo* aldizkarian (1995eko uztaila-abuztua / 87.zka) Rafael Nuñezek «¿A quiénes o qué se ha de ‘normalizar’?» izenburupean idatzitako artikulu luzeskaren aurkezpena.

Artikulua, *pujolismoari* eta hizkuntz normalizazioari Kataluniako ezker ez abertzaletik luzatutako kritika sakona da. Argudioak eta arrazoiak findu nahi dituenarentzat, irakurketa egokia.□



IBURUAK

IDAZKARITZA
JASO DITUGU

JASO DITUGU

- AGIRRE, Txomin: **Kresala**. Elkar. Donostia. 1995. 20 x 12,5 cm, 221 or.
- AIZPURUA, Jon; BASTERRETXE, Begoña; OLABARRIA, Iñigo; ZALBIDE, Mikel: **EIMA. Idatzizko ikasmaterialen bilduma**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1995. 24 x 17 cm, 308 or.
- AIZPURUA, Xabier: **Euskararen Jarraipena / La Continuidad del Euskera / La Continuité de la Langue Basque**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1995. 29,7 x 21 cm, 308 or.
- ALCANTARA, Ricardo: **Hau beldurra!** SANTISTEBAN, Karlos. GUSTI. Edebé-Giltza. Barcelona. 1994. 17 x 12 cm, 41 or.
- ALVAREZ ENPARANTZA, Jose Luis; ISASI BALANTZATEGI, Xabier: **Soziolinguistika matematikoa**. UEU. Bilbo. 1994. 24 x 17 cm, 205 or.
- APRAIZ LANDETA, I. eta beste: **Inguruaren ezaguera 5 arloa. 3. zikloa LH**. BLASCO, Amadeo eta beste. Giltza. Sondika. 1994. 27 x 21,5 cm, 223 or.

- APRAIZ LANDETA, I. eta beste: **Inguruaren ezaguera 5 arloa. 3. zikloa LH. Gidaliburua.** BLASCO, Amadeo eta beste. Giltza. Sondika. 1994. 27 x 21,5 cm, 223 or.
- APRAIZ LANDETA, I. eta beste: **Inguruaren ezaguera 5 arloa. 3. zikloa LH. Langaia.** MAGRIA, Jordi; LEON, Pere. Giltza. Sondika. 1994. 27 x 21,5 cm, 56 or.
- ARANBURU, Pello Joxe; BIDEGAIN, Marian; IDIAKEZ, Antton; REZOLA, Iñaki: **Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga (1740-1824) eta bere Cristau Doctriña guztiaren esplicacioaren sayaquera (1858).** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1995. 24 x 17 cm, 169 or.
- ARRETXE, Jon: **Tubabu. Gizon zuri bat Afrikan.** Elkar. Donostia. 1994. 19 x 12 cm, 206 or.
- ARRUABARRENA, Garai: **Sasieta Mankomunitatea. Zabortegi kontrolatua.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1995. 24 x 17 cm, 85 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Antropología-Etnografía.** Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1994. 24 x 17 cm, 309 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Antzarren V. Bertso-paperak.** LAZKAO TXIKI TALDEA. Lazkao. 1995. 30 x 21 cm, 36 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Anuario de Eusko-Folklore 38/1992-93. Etnografía y paletnografía.** Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa. Ataun. 1994. 29,5 x 21 cm, 179 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Ardoa eta mahaia Euskal Herrian.** A.L. Bilbo. 1992. 29,5 x 21 cm, 354 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Centre de Cultura "Sa Nostra" 5 anys. Memòria d'activitats 1989-1994.** Centre de Culture "Sa Nostra". Palma, Balears. 1994. 34 x 22,5 cm, 107 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Cuadernos de Sección-Música.** 7. ed. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1993. 24 x 17 cm, 285 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Folklore.** Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1994. 24 x 17 cm, 224 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Hilariari buruzko Nazioarteko IV. Kongresua / IV. Congreso Internacional sobre la estela funeraria / IV. Congrès International sur la stèle funéraire.** Donostia 1991. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1994. 24 x 17 cm, 643 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Hizkuntza eta Literatura.** Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1994. 24 x 17 cm, 401 or.
- ASKOREN ARTEAN: **La Cultura del exilio vasco (I). Pensamiento y creación literaria.** J.A. ASCUNCE. Donostia. 1994. 21 x 15 cm, 286 or.
- ASKOREN ARTEAN: **La Cultura del exilio vasco (II). Prensa-Periodismo, hemerografía, Editoriales, Traducción, Educa-**

- ción-Universidad.** J.A. ASCUNCE. Donostia. 1994. 21 x 15 cm, 254 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Prehistoria-Arqueología.** Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1994. 24 x 17 cm, 230 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Tene Lehiaketa 1995.** Elkar / Debako Udala. Donostia. 1995. 19 x 12 cm, 84 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Zaldibarko II. Ipuin Lehiaketa / II. Concurso de Cuentos de Zaldibar.** Zaldibarko Udala. Zaldibar. 1994. 21 x 14,9 cm, 30 or.
- ATXAGA, Bernardo: **Xolak badu lehoien berri.** VALVERDE, Mikel. Erein. Donostia. 1995. 21,2 x 15,2 cm, 46 or.
- ATXAGA, Bernardo: **Zeru horiek.** Erein. Donostia. 1995. 20,5 x 12,5 cm, 140 or.
- AUERBACHER, Inge: **Izar bat naiz.** IGERABIDE, Juan Kruz. Elkar. Donostia. 1995. 18,5 x 12,5 cm, 103 or.
- AZURMENDI, A.; GILTZA TALDEA: **Hizkuntza eta Literatura 5 arloa. 3. zikloa LH.** PERIS, C.; ASENSIO, A.; RIUS, R. Giltza. Sondika. 1994. 27 x 21,5 cm, 192 or.
- AZURMENDI, A.; GILTZA TALDEA: **Hizkuntza eta Literatura 5 arloa. 3. zikloa LH. Gidaliburua.** PERIS, Carmen; SALES, Gemma. Giltza. Sondika. 1994. 27 x 21,5 cm, 231 or.
- BARANDIARAN IRIZAR, Luis de: **Cartas a Jose Miguel de Barandiaran (Segunda etapa, 1952-1991).** Kutxa Gizarte eta Kultur Fundazioa. Donostia. 1995. 30,5 x 21,5 cm, 365 or.
- CALLEJA, Seve: **Ni zu banintz.** AGIRRE, Jesus Maria. LUCAS, Belen. Edebé-Giltza. Barcelona. 1994. 17 x 12 cm, 46 or.
- CODINA, Victor: **Lluís Espinal gastar la vida por los demás.** Cristianisme i Justicia. Barcelona. 1995. 21,5 x 15 cm, 32 or.
- CORNAIRE, Claudette: **Irakurketa hizkuntzen irakaskuntzan. Gogoeta batzuk.** HABE. Donostia. 1994. 21,5 x 14,5 cm, 110 or.
- CORT, Jose Luis: **Cimarron II.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 26,5 x 20 cm, 74 or.
- DAVIES, Paul; GRIBBIN, John: **Los mitos de la materia.** CERVIÑO, Miguel. McGraw-Hill. Madrid. 1994. 21 x 15 cm, 284 or.
- DIAZ-SALAZAR, Rafael: **Un nuevo ciclo para la izquierda.** Cristianisme i Justicia. Barcelona. 1994. 21 x 14,5 cm, 32 or.
- DOCAMPO, Xabier P.: **Kanpai hotsen misterioa.** IGERABIDE, Juan Kruz. HERNANDEZ, Paco. Elkar. Donostia. 1995. 18,5 x 13 cm, 142 or.
- E.J. Kultura Saila: **Euskararen jarraipena.** Nafarroako Gobernua. Iruñea. 23,7 x 22 cm, 18 or.

- E.J. Kultura Saila: **La continuidad del euskera**. Nafarroako Gobernua. Iruñea. 23,7 x 22 cm, 18 or.
- EMANKUNDE: **Emakumeak Euskadiko Artegintzan / Las mujeres en la producción artística de Euskadi**. Emakunde. Gasteiz. 1994. 29,5 x 22,5 cm, 476 or.
- ENRIQUEZ, Javier; HIDALGO DE CISNEROS, Concepción; LORENTE, Araceli; MARTINEZ, Adela: **Colección documental del Archivo Municipal de Orduña (1271-1510). Tomo I**. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1994. 23 x 16 cm, 405 or.
- ENRIQUEZ, Javier; HIDALGO DE CISNEROS, Concepción; LORENTE, Araceli; MARTINEZ, Adela: **Colección documental del Archivo Municipal de Orduña (1511-1520). De la Junta de Ruzábal y de la Aldea de Belandía. Tomo II**. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1994. 23 x 16 cm, 759 or.
- ENRIQUEZ, Javier; HIDALGO DE CISNEROS, Concepción; LORENTE, Araceli; MARTINEZ, Adela: **Fuentes Jurídicas Medievales del Señorío de Vizcaya. Fueros de las Encartaciones de la Merindad de Durango y de las Ferrerías**. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1994. 23 x 16 cm, 113 or.
- ERDOZAINZI-ETXART, Manex: **Hinki-Hanka**. SAINT-ESTEBEN. Elkar. Donostia. 1995. 19 x 12 cm, 138 or.
- ERKOREKA, Anton: **Los vikingos en Euskal Herria**. Ekain. Bilbo. 1995. 19 x 12 cm, 115 or.
- ESNAOLA, Santiago; ELEXPE, Xabier; ALDASORO, Elena: **Tendencias y distribución geográfica de la mortalidad en la Comunidad Autónoma del País Vasco, 1980-1992**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1995. 23 x 22 cm, 108 or.
- ETXANIZ, Xabier; LUCAS, Jesus: **Igarkizunak**. 3. ed. LUCAS, Jesus. Elkar. Donostia. 1995. 18,5 x 13 cm, 174 or.
- ETXARRI, Joseba: **Euskaldunen Amerika. Bidaia bat EEBBetan zehar**. Elkar. Donostia. 1994. 19 x 11,5 cm, 259 or.
- ETXEBARRIA, J.R.: **Teoria fisikoen oinarriak**. UEU. Bilbo. 1994. 19,5 x 13,5 cm, 246 or.
- E.J. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila: **Diseño curricular base. Bachillerato. Materias optativas**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 24 x 17 cm, 406 or.
- E.J. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila: **Hezkuntza-erreformaren egoera Euskal Autonomi Elkartearen Hezkuntzaren egoerari buruzko urteko txostena 1994ko Ekaina / Situación de la reforma educativa en la Comunidad Autónoma Vasca. Informe Anual sobre la situación de la Educación. Junio 1994**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 24 x 17 cm, 347 or.

- E.J. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila: **Materiales de apoyo para la realización de adaptaciones curriculares individuales. 1. Etapas de Educación Infantil y Primaria.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 29,7 x 21 cm, 127 or.
- E.J. Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila: **Guía Municipal de Gestión Ambiental.** DORRONSORO, Unai; GOIKOLEA, Arantxa. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 24 x 17 cm, 212 or.
- E.J. Kultura Saila: **Zehazki-Mehazki. Centro coordinador de información y documentación juvenil de Euskadi.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 24 x 17 cm, 260 or.
- E.J. Lan eta Gizarte Segurantzza Saila: **Empleo con apoyos en la C.A.P.V.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 24 x 16,5 cm, 84 or.
- E.J. Lan eta Gizarte Segurantzza Saila: **Laneko lesioen estatistikak 1993 / Estadísticas de las lesiones profesionales.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 29,5 x 21 cm, 168 or.
- E.J. Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Saila: **Los hábitos de compra y el comportamiento del consumidor vasco. 1993-1994. Tomo I.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 29,5 x 21 cm, 244 or.
- E.J. Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Saila: **Los hábitos de compra y el comportamiento del consumidor vasco. 1993-1994. Tomo II.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 29,5 x 21 cm, 384 or.
- EUSKO JAURLARITZA: **Ebazpen Batzordea arautzen duen Legea / Ley por la que se regula la Comisión Arbitral.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1995. 17 x 12 cm, 83 or.
- EUSKO JAURLARITZA: **Euskadiko Diruegitamuen Jaurpideari buruzko Legea (Eraberritutako idazkera) / Ley de Régimen presupuestario de Euskadi (Texto refundido).** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1995. 17 x 12 cm, 199 or.
- EUSKO JAURLARITZA: **Euskal Autonomi Elkarteko Ekonomia kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legea / Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma del País Vasco.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1995. 17 x 12 cm, 93 or.
- EUSKO JAURLARITZA: **Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei Buruzko Legea / Ley de Fundaciones del País Vasco.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1995. 17 x 12 cm, 89 or.

- EUSKO JAURLARITZA: **Euskal Herriko Natura babesteko Legea / Ley de Conservación de la Naturaleza del País Vasco**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1995. 17 x 12 cm, 141 or.
- EUSKO JAURLARITZA: **Liburuen zerrenda. Urria 1994 / Catálogo de publicaciones. Octubre 1994**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 21 x 15 cm, 386 or.
- EUSTAT: **Asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateen estatistika 1993 / Estadística de entidades de seguro libre de asistencia médico-farmacéutica 1993**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1995. 25,5 x 21 cm, 43 or.
- EUSTAT: **Biztanleriaren berezko mugimendua (B.B.M.). 93 / Movimiento natural de la población (M.N.P.). 93**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1994. 25,5 x 21 cm, 188 or.
- EUSTAT: **Estatistika boletina. I. hiruhilekoa. 1995 / Boletín de estadística. I. trimestre. 1995**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1995. 25,5 x 21 cm, 79 or.
- EUSTAT: **Estatistika boletina. IV. hiruhilekoa 1994 / Boletín de estadística. IV. trimestre 1994**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1994. 25,5 x 21 cm, 79 or.
- EUSTAT: **Euskal Autonomi elkarteko input-output taulak 90. Emaizen Anilisia. III / Tablas input-output de la Comunidad Autónoma de Euskadi 90. Análisis de resultados**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1995. 25,5 x 21 cm, 311 or.
- EUSTAT: **Euskal autonomi elkarteko input-output taulak. Oinarrizko informazioa 1990 / Tablas input-output de la comunidad autónoma de Euskadi. Información básica 1990**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1994. 25,5 x 21 cm, 531 or.
- EUSTAT: **Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko iharduerei buruzko estatistika (I + G) 93 / Estadística sobre actividades en investigación científica y desarrollo tecnológico (I + D) 93**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1995. 25,5 x 21 cm, 150 or.
- EUSTAT: **Industri produkzioaren indizea (IPI) 1993 / Índice de producción industrial (IPI) 1993**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1994. 25,5 x 21 cm, 133 or.
- EUSTAT: **Irakaskuntza pribatuaren gastu eta finantzaketaren estatistika 93 / Estadística del gasto y financiación de la enseñanza privada 93**. Euskal Estatistika-Erakundea. Bilbo. 1995. 25,5 x 21 cm, 88 or.

- EUSTAT: **Irakaskuntza publikoaren gastu eta finantzaketaren estatistika 93 / Estadística del gasto y financiación de la enseñanza pública 93**. Euskal Estatistika-Erakundea. Bilbo. 1995. 25,5 x 21 cm, 77 or.
- EUSTAT: **Kontu ekonomikoak. 1989-1992, 1993 (Aurrerapena) / Cuentas económicas. 1989-1992, 1993 (Avance)**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1994. 25,5 x 21 cm, 209 or.
- EUSTAT: **Laburpena Euskadi 1994 / Panorámica**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1994. 30 x 30 cm, 121 or.
- EUSTAT: **Migrazio-mugimenduen Estatistika / Estadística de movimientos migratorios. 1992**. Euskal Estatistika-Erakundea. Bilbo. 1994. 25,5 x 21 cm, 80 or.
- EUSTAT: **Ospitale estatistika 93 / Estadística hospitalaria 93**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1995. 25,5 x 21 cm, 132 or.
- EUSTAT: **Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa 1993 / Estadística extrahospitalaria pública 1993**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1994. 25,5 x 21 cm, 64 or.
- EUSTAT: **Udal biztanleriaren eguneratzea. 1992 / Actualización de la población municipal. 1992**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1995. 25,5 x 21 cm, 53 or.
- EUSTAT: **Zentsuaren balidazioa. Demografiako eta balidazioko inkesta. 1991 / Validación del censo. Encuesta demográfica y de validación. 1991**. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 1995. 25,5 x 21 cm, 55 or.
- FERNANDEZ, Idoia: **Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975**. UEU. Bilbo. 1994. 23,5 x 16,5 cm, 302 or.
- FERNANDEZ, Luis: **Tetris zutabeak eta lerro solteak**. Elkar. Donostia. 1995. 19 x 12 cm, 238 or.
- FERNANDEZ SANTANA, Jorge Oscar: **Diseño y utilidad de las encuestas preelectorales**. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 24 x 17 cm, 431 or.
- GARCIA ROCA, Joaquín: **Constelaciones de los Jóvenes. Síntomas, oportunidades, eclipses**. Cristianisme i Justicia. Barcelona. 1994. 21 x 14,5 cm, 40 or.
- GILTZA-EDEBE TALDEA: **Hizkuntza eta Literatura 5 arloa. 3. zikloa LH. Proiektua eta programaketa**. Giltza. Sondika. 1994. 27 x 21,5 cm, 67 or.
- GILTZA-EDEBE TALDEA: **Inguruaren ezagueria 5 arloa. 3. zikloa LH. Proiektua eta programaketa**. Giltza. Sondika. 1994. 27 x 21,5 cm, 80 or.

- GILTZA-EDEBE TALDEA: **Matematika 5 arloa. 3. zikloa LH. Proiektua eta programaketa.** Giltza. Sondika. 1994. 27 x 21,5 cm, 60 or.
- GIRALDO, Javier: **Colombia, esta democracia genocida.** Cristianisme i Justicia. Barcelona. 1994. 21 x 14,5 cm, 48 or.
- GONZALEZ FAUS, José I.: **De «La tristeza de ser hombre» a «la libertad de hijos». Acceso creyente al hombre.** Cristianisme i Justicia. Barcelona. 1995. 21,5 x 15 cm, 32 or.
- GONZALEZ FAUS, José I.: **El derecho de nacer crítica de la razón abortista.** Cristianisme i Justicia. Barcelona. 1995. 21,5 x 15 cm, 32 or.
- GONZALEZ MINGUEZ, César: **Documentos de Pedro I y Enrique II en el Archivo Municipal de Vitoria.** Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1994. 23 x 16 cm, 103 or.
- HABE Liburutegia: **Aldizkako Argitalpenen Katalogoa 1994.** HABE. Donostia. 1994. 21,5 x 15 cm, 134 or.
- HARITSCHELHAR, Jean: **Ponttokeriak.** ONOS, Michel. Elkar. Donostia. 1995. 21 x 13,5 cm, 196 or.
- HERNANDEZ ABAITUA, Mikel: **Bazko arrautzak.** Elkar. Donostia. 1995. 19 x 12 cm, 121 or.
- HIRIBARREN, Jean Martin: **Eskaldunak (1. zatia).** Euskal Editoreen Elkarte. Bilbo. 1994. 19,5 x 13 cm, 139 or.
- JURGEN PRESS, Hans: **Eskubeltz. Taldearen abenturak.** 8. ed. IPARRAGIRRE, Pilar. JURGEN PRESS, Hans. Elkar. Donostia. 1995. 18,5 x 13 cm, 126 or.
- KUTXA: **1994ko mozkinen banaketa / Reparto de beneficios 1994.** Kutxa. Donostia. 1995. 27 x 25,5 cm, 103 or.
- LANDA, Mariasun: **Nire eskua zurean.** OLARIAGA, Antton. Erein. Donostia. 1995. 19 x 12,5 cm, 56 or.
- LARREA, Javier; ANITUA, Pedro de: **Manual básico de protección contra incendios en la industria.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 23,5 x 17 cm, 143 or.
- LONDON, Jack: **Hego itsasoetako hiru istorio.** MENDIGUREN, Iñaki. Elkar. Donostia. 1995. 20 x 12,5 cm, 82 or.
- LOPEZ, Javier; AGUIRRE, Javier; OLIVAS, Pilar: **El sector de desguace del automóvil en la C.A.P.V.** E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 1994. 29,5 x 20,5 cm, 85 or.
- MARKULETA, Gerardo: **Asier eta egia gurutzatuen liburua.** EROSTARBE, Xabier. Erein. Donostia. 1995. 19 x 12,5 cm, 53 or.
- MARTINEZ SAGARZAZU, Ernesto: **Ekuazio diferentzialak. Aplikazioak eta ariketak.** AGIRRE, Elena. UEU. Bilbo. 1994. 24 x 17 cm, 602 or.

- MARZA, J.; GILTZA TALDEA: **Zenbakien Koaderno**. 1. ed. CUBILLAS, Gusti; CUBILLAS, Juan Carlos. Giltza. Sondika. 1994. 21,5 x 27 cm, 31 or.
- MARZA, J.; GILTZA TALDEA: **Zenbakien Koaderno**. 2. ed. CUBILLAS, Gusti; CUBILLAS, Juan Carlos. Giltza. Sondika. 1994. 21,5 x 27 cm, 23 or.
- MARZA, J.; GILTZA TALDEA: **Zenbakien Koaderno**. 3. ed. GONZALEZ, Inés; CUBILLAS, Juan Carlos. Giltza. Sondika. 1994. 21,5 x 27 cm, 31 or.
- MARZA, J.; GILTZA TALDEA: **Zenbakien Koaderno**. 4. ed. ROVIRA, Fransesc; CUBILLAS, Juan Carlos. Giltza. Sondika. 1994. 21,5 x 27 cm, 31 or.
- MENDIOLA, Jose María: **Ingelesen hilerria**. 2. ed. URRUTIBEASKOA, Fauxtin. GATAGAN, Constantino. Edebé-Giltza. Barcelona. 1994. 19,5 x 13 cm, 97 or.
- MERIMEE, Prosper: **Mateo Falcone eta beste zenbait istorio**. IZAGIRRE, Koldo. Elkar. Donostia. 1995. 20 x 12,5 cm, 86 or.
- MILNE, John: **Heriotzaren erregina**. MENDIGUREN, Iñaki. DENNIS, Peter. Elkar. Donostia. 1995. 18 x 11 cm, 89 or.
- NUÑEZ ASTRAIN, Luis: **La razón vasca**. Txalaparta. Tafalla. 1995. 21,5 x 13 cm, 237 or.
- ORWELL, George: **Abereen etzaldea**. ELEXPURU, Juan Martin. ALONSO, Isabel. Elkar. Donostia. 1995. 18,5 x 13 cm, 160 or.
- OTAEGI, Lurdes: **Lizardiren poetika pizkundearen ingurumariaren argitan**. Erein. Donostia. 1994. 20,5 x 13 cm, 319 or.
- PLANTE, Raymond: **Saltxitzak eguzkipean**. IGERABIDE, J.K. Elkar. Donostia. 1995. 20 x 12,5 cm, 136 or.
- SACHS, Marilyn: **Maiatzean 15 urte**. MENDIGUREN, Iñaki. LOPETEGI, J.A. Elkar. Donostia. 1995. 18,5 x 13 cm, 193 or.
- SANTAMARIA, Antxon; UNTZUETA, Elias: **Erreologia. Teoria eta praktika**. UEU. Bilbo. 1994. 24 x 17 cm, 237 or.
- SANTISTEBAN, Karlos: **Eneko okerrekoren akerra**. ARANEGA, Mercè. Edebé-Giltza. Barcelona. 1994. 17 x 12 cm, 94 or.
- SARASOLA, Ibon: **Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia (Tolesgabe-Zuzartu)**. Kutxa. Donostia. 1995. 27 x 20 cm, 139 or.
- SECHAN, Olivier: **Sasi arteko ezkutalekua**. SARASOLA, Joxantonio. HIVES, Jeanne. Elkar. Donostia. 1994. 18,5 x 12,5 cm, 174 or.
- SEGARRA, J. eta beste: **Matematika 5 arloa. 3. zikloa LH**. CACERES, Gonzalo eta beste. Giltza. Sondika. 1994. 27 x 21,5 cm, 232 or.

- SEGARRA, J. eta beste: **Matematika 5 arloa. 3. zikloa LH. Gida-liburua**. LEON, Pere; GILTZA TALDEA. Giltza. Sondika. 1994. 27 x 21,5 cm, 222 or.
- SIMON, Montse; ARRUTI, Itziar; CARBONELL, Arantxa: **Rol sexualak eta eredu sozialak**. UEU. Bilbo. 1994. 24 x 17 cm, 107 or.
- TAIBO, Carlos: **Veinte preguntas sobre los conflictos yugoslavos**. Cristianisme i Justicia. Barcelona. 1994. 21 x 14,5 cm, 32 or.
- URKIJO, Natxo: **Zenbait apunte Laudioko euskaraz**. UEU. Bilbo. 1994. 24 x 17 cm, 209 or.
- URZANTE, Xabier: **Adarbakoitzaren oinatza**. MARTORELL, Luis; SOLA, Alberto. Erein. Donostia. 1995. 19 x 12,5 cm, 119 or.
- WHITNEY, Norman: **Kanpotarra**. MENDIGUREN, Iñaki. ESWARDS, Peter. Elkar. Donostia. 1995. 18 x 11 cm, 73 or.
- ZABALETA ZABALETA, Francisca: **Bigarren hizkuntzaren irakaskuntza murgiltze-ereduan**. Zubia. 1994. 20,5 x 13,5 cm, 156 or.
- ZUBIZARRETA, Patxi: **Marigorringoak hegan**. LAVARELLO, José M^a. Edebé-Giltza. Barcelona. 1994. 19 x 18 cm, 31 or.
- ZUMALDE IGARTUA, Irune: **Colección Documental del Archivo Municipal de Oñati (1149-1492)**. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 1994. 23 x 16 cm, 316 or.

TOLOSA HIRIBIDEA. 103-1. C
TEL. (943) 21 80 92
FAX (943) 21 82 07
20009 DONOSTIA



84-7240-
889